

Migrazioa ala lekualdatze behartua?

Biztanleria-mugimenduen kausak eztabaidan

Raquel Celis Sánchez (CEAR-Euskadi) eta Xabier Aierdi Urraza (UPV-EHU)



“Erregimen autoritarioetan estali egiten da bortizkeriaren oinarri ekonomikoa; formalki demokratikoak diren erregimenetan, aldiz, ekonomiaren oinarri bortitza estaltzen da”.

Bertolt Brecht

Egilea

Raquel Celis Sánchez (CEAR-Euskadi) eta Xabier Aierdi Urraza (UPV-EHU)



Saiakera hau CEAR-Euskadik Ikuspegirekin elkarlanean koordinatutako ikerketaren emaitza da, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzatuta dago.



Ikerketa-lanak Maite Fouassierren eta Alejandro Pulidoren laguntza izan du; Mariana Zaragoza, Lucía Bonilla eta Beatriz Alfonso dokumentazioa aztertzen aritu dira; eta Leire Lasak eta Patricia Bárcenak testuak berrikusi dituzte.

Gaztelaniazko bertsioa Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak argitaratu du, Cuadernos Deusto de Derechos Humanos bilduman.

➤ CEAR-Euskadiren webgunean eskura daiteke: www.pear-euskadi.org

Esker onak

Ikerketan lagundu duten pertsona guztiei, gure galderei eta zalantzei erantzuteagatik eta, eskuzabaltasun eta interes handiarekin, gurekin denbora eta ezagutzak partekatzeagatik.

ELKARRIZKETA SAKONAK

- Kolonbian egindakoak:

1. ACNUR-Kolonia: Andrés Celis
2. Memoria Historikoaren Zentro Nazionala: Miriam Hernández eta Juan Manuel Zarama
3. Giza Eskubideen eta Lekualdaketen Aholkularitza Taldea (CODHES): Paola Hurtado, Carlos Enrique Nuñez eta Marcos Oyaga
4. DH-Colombia: German Romero
5. Grupo Semillas: Fernando Castrillon
6. Errefuxiatuentzako Jesulagunen Zerbitzua: Vera Samudio
7. Tierra Digna: Elizabet Periz eta Johana Rocha

- Madrilen eta Euskadin egindakoak:

8. Amparo Pimiento, ekintzailea, errefuxiatu kolonbiarra
9. Alberto Franco, Justizia eta Bakerako Elizarteko Batzordea - Comisión Intereclesial de Justicia y Paz (Kolonia)
10. Enrique Santiago, abokatu, Nazioarteko Zuzenbidean aditua
11. Juan Hernández Zubizarreta, ekintzailea, OMAleko kidea, Nazioarteko Zuzenbide Korporatiboan aditua
12. Marta García Cienfuegos eta Juan Carlos Arnáiz, ACNUR-Espainia
13. Merlys Mosquera, Errefuxiatuentzako Jesulagunen Zerbitzuko eskualdezuzendaria Latinoamerikan eta Kariben (Kolonia)
14. Luisa Vidal, ekintzailea, psikologoa, PBIko kidea

15. Paloma Favieres, abokatua eta CEAREko Zerbitzu Juridikoko koordinatzailea

- Galde-sorta digital bidez egindakoak:

16. Alejandro Pulido, ikertzailea, ingurumenean eta garapen-proiektu handien inpaktuan aditua (Kolonbia)

17. Javier Orozco, errefuxiatua, Kolonbiako Indarkeriaren Biktimei Arreta Emateko Asturiasko Programako koordinatzailea.

18. Martín Iriberry, Alboan Fundazioko Ekintza Publikoko eta Partaidetzako taldeko kidea

19. Sandra Milena González, ikertzailea, Antioquiako Unibertsitateko soziologoa (Kolonbia)

20. Susana Borrás, Rovira i Virgili Unibertsitateko Ingurumen Zuzenbideko Masterreko koordinatzailea

AURKIBIDEA

0. HITZAURREA..... 7

1. KAPITULUA. MIGRAZIO EKONOMIKOA, BORONDATEZKOA? 10

A) HERTSADURA.....	10
B) EGITURAZKO INDARKERIA ETA GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA. JARRERA-ALDAKETAK	12
○ ESKUBIDE EKONOMIKO, SOZIAL ETA KULTURALAK ERE GIZA ESKUBIDEAK DIRA	14
○ MIGRAZIOA ESKUBIDE BANAEZINEN IKUSPEGITIK	16
○ ESTATUA, ESKUBIDEEN BERMATZAILE	17
C) GLOBALIZAZIOA ALA GABETZEA? BALIABIDEEN HARRAPAKETA	19
NEO-GARAPEN ESTRAKTIBISTA.....	20
○ ESTRAKTIBISMOA ETA GIZARTE- ETA INGURUMEN-GATAZKAK LEKUALDATZEEN JATORRIAN.....	22
○ KOLONBIAKO KASUA, DOKTRINA NEOLIBERALAREN PARADIGMA:	26
D) ERREALITATE BERRIAK, KATEGORIA ZIENTIFIKO BERRIAK?	34
○ IKUSPEGI SOZIOLOGIKOA.....	36
○ PUNTU ETA JARRAIA: ONDORIO PARTZIALAK	43
○ ESKEMA ORIENTAGARRIA	45

2. KAPITULUA. LEKUALDATZE BEHARTUAREN KARAKTERIZAZIOA NAZIOARTEKO ZUZENBIDEAREN TRESNETAN 47

A) ASILO 'POLITIKOA' DESMUNTATZEN: EESKIEKIKO BEGIRADA, ASILO-ESKUBIDEAREN IKUSPEGITIK.....	48
○ GENEVA INTERPRETATZEKO ESKEMA	50
B) BEGIRADA NAZIOARTEKO ZUZENBIDEAREN BESTELAKO TRESNA BATZUEI.....	51
○ ASILOA.....	51
○ BARNE-LEKUALDATZEA	55
C) EUROPA: BABES-TRESNAK.....	62
○ ZUZENTARAUAK	63
○ EZ ITZULARAZTEKO PRINTZIPIOA.....	65
D) EZTABAIDA AMERIKAN	67

3. KAPITULUA. ONDORIOAK: MIGRAZIOA ALA LEKUALDATZE BEHARTUA? 72

A) MIGRAZIO EKONOMIKOAREN ETA LEKUALDATZE BEHARTUAREN ARTEAN. ARRAZOITUTAKO ETA ARRAZOIZKO MUGA-LERRO BATEN BILA	73
○ MIGRAZIO EKONOMIKOAREN ETA LEKUALDATZE BEHARTUAREN ARTEKO LABURPEN-TAULA	79
B) AZKEN ONDORIOAK.....	84
○ LEKUALDATZE BEHARTUEN KARAKTERIZAZIOA	84
○ EZTABAIDAREN GARRANTZI POLITIKOA	86

LABURPENA 89

0. Hitzaurrea

Artikulu honetan azalduko ditugun hausnarketak Errefuxiatuen Laguntzarako Euskadiko Batzordeak (CEAR-Euskadik) Immigrazioaren Euskal Behatokiarekin (Ikuspegi) eta Alejandro Pulido ikertzailearekin lankidetzan egindako ikerketa-lanetik atera dira.

Lan hori hiru kezka nagusiren ondorioa da:

- Gaur egun, Europan, baina batez ere Espainiako estatuan, zer-nolako irizpide estuarekin interpretatzen den asilo-eskubidea; alegia, nola erabakitzen den errefuxiatua nor den.
- Asiloa migrazioaren esparruan kokatzeko joera: izan ere, behartuta egiten diren biztanleria-mugimenduak ezkutatu eta 'migrazio ekonomikoa' esaten zaion horretan kokatzen da; hau da, "borondatezko" migrazioetat jo eta "dei" parametroen arabera aztertzen da, "irteera" (derrigortutako kanporaketako) parametroen arabera aztertu beharrean.
- Eredu estraktibistak Hegoalde globaleko pertsonen eta komunitateen bizimoduaren suntsipenean eta horien lekualdaketa duen eragina.

Lekualdatze behartua definitzen duten elementuen definizio inklusiboagorantz eta integralagorantz jotzea erabaki genuen, historikoki baztertu izan den eskubide ekonomikoen, sozialen, kulturalen eta ingurumenekoen ikuspegia ere kontuan hartuta, eta asilo-eskubidea soil-soilik eskubide politiken urraketatik babesteko mekanismotzat jotzen duen interpretazioari aurre eginez.

ABIAPUNTUKO PREMISAK

1. Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidean lekualdatze behartuen kausak aztertzen direnean, ez dira onartzen eskubide ekonomikoen, sozialen eta kulturalen urraketa larriak, sistematikoak edo iraunkorrak, eta ez da aitortzen, halaber, ingurumenaren degradazioa (gainerako eskubideetan eragiten duena).
2. Migratzailetzat jotzen da Errefuxiatuen Estatuari buruzko 1951ko Genevako Konbentzioaren babespean kokatu ezin den pertsona, nahiz eta eskualdeko eta

nazioarteko beste irizpide batzuen arabera, lekualdatze hori behartutzat jo daitekeen.

Migrazio ekonomikoaren eta lekualdatze behartuaren artean bereizteko balio izango duen muga argigarri bati buruzko hausnarketa ireki nahi dugu.

'Migrazio ekonomikoa' deituraren atzean lekualdatze behartua ezkututzen ote den jakin nahi dugu, eta, halaber, nola bereiz daitezkeen egiturazko indarkeriaren edo jazarpenaren ondoriozko indar egozleak beste hertsadura-maila batzuetatik.

Kolonbia eredutzat

Saiakera honetan eta proiektu honen esparruan egindako ikerketa-lan osoan, Kolonbia kasu paradigmatikotzat hartu dugu, besteak beste arrazoi hauek kontuan hartuta:

- Urte luzez Espainiako estatura nazioartean babesaren bila iristen ziren errefuxiatuen jatorri nagusia izan da.
- Pertsona asko hiltzea eta desagerraraztea eragin duen gatazka historiko armatuak, sozialak eta politikoak iraun dirauen arren, gaur egun gatazkak itxura aldatu eta ingurumen-baliabideak eskuratzeko borroka kokatu da gatazkaren erdigunean.
- Gaur egun bost milioi pertsonatik gora daude Kolonbian bertan lekualdatuta. Munduan lekualdatutako biztanleria gehien duen bigarren herrialdea da, Siriaren atzetik.
- Europak eta Espainiako estatuak enpresa-inbertsioak egiteko lehenesten dituzten herrialdeetako bat da, eta eredutzat jotzen da nazioko, nazioarteko eta hirugarren herrialdeetako enpresen interes ekonomikoak babesten jartzen duen interesagatik.

Testu honetan ez dugu Kolonbian bertan eta Kolonbiatik egiten diren lekualdatze behartuen jatorriari buruzko azterketa egiterik nahi. Kasu horretan zentratu gara, azterketa estrapolagarriak ateratzeko eta migrazioen eta asiloaren teoria benetako egoera batean kokatzeko aukera ematen duelako.

Globalizazio kapitalistaren testuinguruan eta mugak ixteko joera nagusitzen den honetan gertatzen diren lekualdatze behartuei buruzko eztabaidari heldu diogu, eta beste egoera batzuetan ere gertatzen diren praktiken adibidetzat hartu dugu Kolonbiako kasua.

1. kapitulua: migrazio ekonomikoa, borondatezkoa?

a) Hertsadura

b) Egiturazko indarkeria eta giza eskubideen defentsa. Jarrera-aldaketak

- Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak (EESK) ere giza eskubideak dira
 - i. EESK-k nazioarteko zuzenbidean
- Migrazioa eskubide ikusezinen ikuspegitik
- Estatua, eskubideen bermatzailea

c) Globalizazioa ala gabetzea? Baliabideen harrapaketa

- Neo-garapen estraktibista
- Estraktibismoa eta gizarte- eta ingurumen-gatazka lekualdatzeen jatorrian
- Kolonbiako kasua, doktrina neoliberalaren paradigma
 - i. Aldatu den gatazka
 - ii. Kolonbia, Latinoamerikarako eredua?

d) Errealitate berriak, kategoria zientifiko berriak?

- Ikuspegi soziologikoa
- Puntu eta jarrai: ondorio partzialak
- Eskema orientagarria

1. kapitulua. Migrazio ekonomikoa, borondatezkoa?

a) Hertsadura

Ikuspegi soziologikotik, ezin da gizarte-egiturarik egon baldin eta hein bateko gizarte-hertsadurarik ez badu eta haren gauzatzea ez bada. Egitura hori bilakaera historikoaren emaitza da, eta bertan hezurmamitu, bildu eta metatzen dira iraganeko eta oraingo gizarte-mendekotasunak; izan ere, tradizio eta gauzak egiteko modu bihurtuta, azkenean naturalizatu eta normalizat jotzen dira.

Naturalizazio horren ondorioz, ezin dugu ikusi gizarte-egituren azpian dinamika eta gatazka daudela, eta nahasi egiten dugu gauzak zer diren eta zer izan behar duten. Egitura horiek desnaturalizatzea da gizarte-zientzien helburua. Gure aukerak zedarritu eta aukera- eta potentzialtasun-eremu mugatua ematen digun entitate ikusezina da gizarte-egitura. Bourdieuk gizarte-espazioa esango liokeena da, posizio eta borroka sinbolikoez osatua¹. Pertsonak karta markatuekin jokatzen dute eremu horretan; erabakiak askatasunez hartzen dituztela uste dute, baina gizarteak mugatutako askatasuna izaten da beti.

Gizarte-egituretan bezala, migrazioetan ere gauza bera gertatzen da. Agerian dago migrazio guztien atzean, borondatezko migrazioen atzean ere bai, halakoak bultzatzen dituzten indar-esparrua egoten dela; hein handiagoan edo txikiagoan, baina borondatea zuzentzen duen esparrua. Logikari jarraituz eta ikuspegi horren arabera, migrazio guztiak behartuak dira, migrazio hori eragin duen indar, kausa edo bideren bat egoten delako beti. Alabaina:

1. Migrazio guztiek behartze-maila berbera dute?
2. Behartuta egote horren atzean intentsitateak bereiz daitezke?
3. Behartze-maila horien ondorioz, tipologiaren aldaketa kualitatiboak sortzen dira?

Azterketa soziologikoarekin jarraituz, egungo garaia deszentralizazio- eta desinstituzionalizazio-garaia da. Horixe diote korrante soziologiko handiek. Gizarte-hertsaduraren munduaren ordeztu, aukeratzeko gaitasun handiagoa duen, gizarte-egiturak hainbeste baldintzatzen ez duen mundua omen dator. Patuari eutsi beharra

¹ Horren azalpen erraza aurki daiteke bere liburuan: BOURDIEU, Pierre (Bartzelona, 1997): *Razones Prácticas. Sobre la teoría de la acción* (11.-32. orrialdeak). Anagrama

utzi eta gure bizitza proiektatu eta zuzentzeko garaia omen da hau, eta gure aukeraren, gure gogoen eta zehazten ditugun helmugen arabera izango omen da geure biografietan gertatuko dena. Hala, gure etorkizuna oso gutxitan egongo omen da gure borondateak kontrolatu ezin dituen kanpoko baldintzen eta kausen menpe.

Alabaina, horixe bera gertatzen da pertsonen migrazio-lekualdatzeak eta -proiektuak kontatzen dituztenean ere: guztiz jabetuta edo ez, baina lekualdatzea eragin zuten kausak desitxuratu eta kontzientzia osoz azpimarratzen dute, ordea, erabaki hori hartzeko askatasun pertsonala. Ikuspegi hori hariaren mutur bat da; alegia, lekualdatze-proiektua pertsonaren beraren erabaki aske eta baldintzatu gabea dela, eta ez duela kanpoko faktore objektiborik. Beste hari-muturrean, ordea, migrazio librerik ez dagoelako ikuspegia aurkituko dugu. Are gehiago, 'migrazioa' esan beharrean, lekualdatze behartua esango diote.

Baldintzatu gabeko erabaki *guztiz askea* → Derrigorrez hartutako erabakia, *guztiz behartua*

Migrazioei buruzko tratatu handietan migrazioa ekonomikoa eta borondatezkoa dela jo da, nahiz eta jaioterrian dagoen egoera ekonomiko jasanezina izan eremu hori utzi eta beste batera joateko kausa. Jaioterria pobrea izatea edo bertako biztanleei bizimodu egonkorra eskaintzeko baldintzarik ez betetzea ez da hartu migrazio behartua dagoela jotzeko faktoretzat: migrazio hutsa izan dela jotzen da.

Termino soziologikoetan, gizarte-hertsadurak egituratzen du gizarte-ordena. Hartara, horren arabera, gizarte-taldeen asmoek elkarren artean duten gatazkaren hezurmarnitze historikoa baino ez da gizarte-ordena. Hala, talde bakoitza bere esanahiak eta ikurrak, eta, batez ere, bakoitzaren gizarte-kokapena eragingo duen gizarte-estratifikazioa inposatzen ahaleginduko da. Kokapenak eta interpretazioak inposatzea da gizarte- eta talde-borrokaren mamia. Logikoki, nagusi diren posizio eta interpretazioen artean koherentzia dagoenean, gizarte-ordena naturaltzat eta dudagabetzat hartuko da eta, beraz, bere horretan egonkorra izango da. Posizio eta interpretazioen artean desadostasunak daudenean edo interpretazio batzuek gaur egungo ordenaren ordeko etorkizunak imajinatzen dituztenean, ordea, interpretazio-gatazkak eta borrokak sortuko dira, eta talde batzuek kokapenak aldatu, irauli edota suntsitu nahi izango dituzte.

Beraz, gaur egun migrazioetat jotzen dugunak lekualdatze behartua ezkututzen ote duen argitu nahi izanez gero, gainjarritako gaiak ditugu aurrean, guztiak elkarri lotuta.

Kolonbiako eta, pentsatzekoa denez, Hegoalde globaleko beste herrialde batzuetako lekualdatze behartuaren errealitateak migrazioen ikuspegi tradizionala eta hari buruzko teoria aldatzea legitima lezake. Aurretiaz egiturazko hertsadura baizik ikusten ez zen tokietan, lekualdatze behartua ikus daiteke orain. Hein batean kausak berrinterpretatu egiten dira baina, aldi berean, errealitate berri bat ere badago, edo, behintzat, errealitatea aztertzeko ikuspegi berri bat.

Esperientzia berri horiek direla eta, zientziak behin eta berriro egokitu behar ditu eskema teorikoak, fenomeno berriek lehen ez zuten garrantzia hartu dutelako, edota gertaerek aurreko tipologiak etengabe ñabartzea eskatzen dutelako.

Joaquin Arango migrazioen ikertzaileak² galdetzen du ea munduan dauden egoera ekonomikoak eta geopolitikoak kontuan hartuta, nola den posible migrazioa jotzeko arrazoia izan lezakeen biztanleria horretatik guztitik soilik zati batek ekitea migrazio-proiektuari. Are gehiago, beraren esanetan, etengabeko mugimenduaren irudia ematen duten hedabideen teoriaren aurrean, Mundua *planeta ibilgetzat* jo daiteke.

b) Egiturazko indarkeria eta giza eskubideen defentsa. Jarrera-aldaketak

Oso litekeena da globalizazioak migrazio-prozesuen logika ez ezik, horiek antzemateko modua ere aldatu izana. Gainera, herritarrek euren eskubideak erabiltzeko moduan estatuak duten erantzukizuna interpretatzeko era berri bat ere sortu da. Iraganean kate bat ikusten zen, eskubide zibiletatik politikoetara eta, batzuetan, eskubide sozial eta ekonomikoetara ere hedatzen zena; gaur egun, ordea, eskubide horien guztien arteko lotura banaezina ikusten da. Gainera, eskubide horietako edozein –eskubide zibila eta politikoa izan zein eskubide sozioekonomikoa, kulturala eta ingurumenekoa izan– urratu eta erantzunik ez badago, giza eskubideen osotasuna urratu dela jotzen da.

Eskubidea eta giza eskubideen multzoa ulertzeko modu banaezin horrek zaildu (eta zabaldu) egiten du hiritartasuna ulertzeko modua, eta migrazioak ulertzeko eran eragiten du.

² ARANGO, Joaquín. (Bartzelona, 2007ko urtarrila-martxo). Las migraciones internacionales en un mundo globalizado. *La Vanguardia Dossier*, 22. zenbakia, 'El continente móvil'.

Mendebaldean, eta batez ere Europan, eskubide zibiletatik politikoetara eta sozioekonomikoetara joateko ibilbidea segurtasun juridikotzat jo genezakeen testuinguru batean burutu da, beste kontinente edo zonalde batzuekin alderatuta. Faktore hori dela eta, lehen bi eskubide motak (zibilak eta politikoak) bermatzen dituzten estatuek *gutxieneko estandarra* 'betetzen' dute. Eskubide sozioekonomikoak kontuan ez hartzea ez da giza eskubideen urraketatzat jo, harik eta Zuzenbideko Gizarte Estatua aldarrikatzen hasi den arte. Egoera osatu edo burutu gabea zela jotzen zen, baina ez eskubideen urraketa *bere horretan*.

Gaur egungo krisi ekonomikoak ageriko atzerakada ekarri du Europan izandako eskubide sozioekonomikoetan, eta areago herrialde zehatz batzuetan. Horixe da, hain zuzen, Ongizate Estatua desmuntatzea. Hala, elkarren kontra dauden bi korrante azaleratzen dira: demokrazia eta ongizatea eskuratzeko, eskubideen interpretazioaren eboluzioa batetik, eta eskubide horien inboluzioa bestetik.

Latinoamerikako zati zabal batean egiten den bezala, *giza eskubideen banaezintasuna* aldarrikatzen denean, zaila da hiritartasun estandar bati buruz hitz egitea, baldin eta pertsoneri ez bazaie berezko gizatasuna benetan gauzatzeko baliabiderik bermatzen. Norbera pertsona gisa mamitzea bermatzen duten baliabideak urratzen badira, zaila izango da eskubideei buruz aritzea. Zerk ematen digu bizitza duina izateko berme gehiago: bildu, elkartu eta manifestatu ahal izateak ala eskolara joan ahal izateak? Bizitza duina izateak esan nahi du *beldurrik gabe* bizitzea, eskubide zibil eta politikoak erabiltzeko aukerarekin, eta *miseriarik gabe* bizitzea, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak erabiltzeko aukerarekin.

Giza eskubide guztiei buruz ari gara. Eskubide horien hedapenak ez du zerikusirik historikoki egin den irakurketarekin edota garai bateko borroken bidez babestu edo lehenetsi ziren eskubideekin. Izan ere, garai hartan eskubide zibilei eta politikoei baino ez zitzaaien erreparatzen.

Gure iritzian, Kolonbiako errealitatean badago lekualdatze-fenomenoak ñabardura eta ikuspegi berriz analizatzeko aztergai nahikoa, eta, hortik abiatuta, trataera hori gorako bidean dauden antzeko errealitateetan ezartzeko aukera ematen du: adibidez, *baliabideen madarikazioak* jotako Afrikan.

○ Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak ere giza eskubideak dira

Wilhelmiren eta Pisarelloren arabera (2008)³, honela defini daitezke eskubideak: subjektu batek dituen zentzuzko asmo edo aurreikuspenak, beste subjektu batzuek bere interesen edo beharrianen harira egin dezaketenez edo egingo ez dutenez. Asmo "legitimoak", "zentzuzkoak" edo "bidezkoak" izango lirateke, beraz, eta legitimotasun horrek izaera orokorra aitortuko lieke: "*beste batzuek antzeko egoeran antzeko asmoa alegatzeko aukera*".

Eskubideak gauzatzeko, zerbait derrigorrez egin behar da (betebehar positiboa) edo derrigorrez ez da egin behar (betebehar negatiboa), horrela, jokoan dagoen interesa edo beharriana zaindu ahal izango baita.

Giza eskubideak, askotan, aldarrikatu diren une historikoaren arabera sailkatu dira. Sailkapen horrek giza eskubideen bilakaera ulertzen lagunduko digu, baina ez da hierarkiatzat hartu behar. Lehen belaunaldiko giza eskubideek eskubide zibil eta politikoak hartzen dituzte aintzat. Askatasunari lotuta daude eta Estatu Batuetako 1776ko Independentzia Adierazpenean eta 1789ko Frantziako Iraultzaren ostean aldarrikatu zen Pertsonaren eta Hiritarraren Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jaso ziren lehen aldiz.

Bigarren belaunaldiko giza eskubideak eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak (EESK) dira. Langile-mugimenduaren eta sozialismo demokratikoaren ondorioz sortu ziren eta, batik bat, Berdintasunari lotuta daude. Zuzenbideko Gizarte Estatuaz pentsatzen hasi zen horrela.

Lehen nahiz bigarren belaunaldiko eskubideak 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasota daude.

Hirugarren belaunaldiko giza eskubideak munduari buruzko ikusmolde globalari eta etorkizuneko belaunaldien eskubideen babesari lotuta daude. Elkartasunari lotuta daude: garapenerako, bakerako, ingurumenerako, gizateriaren ondare erkiderako eta abarrerako eskubideak dira.

Giza eskubideei buruzko ikusmoldea aldakorra da eta esanahia zabalduz doa. Whilhelmik eta Pisarellok dioten bezala, eskubide eta betebeharrak orokortu egin badaitezke ere, komunitatean duten kokapen politikoaren, sozialaren, kulturalaren edo

³ PISARELLO, G. eta WILHELMI, M.A. (2008): *Los derechos humanos y sus garantías: nociones básicas*. Universitat Oberta de Catalunya.

ekonomikoaren ondorioz mehatxatuta daudenen beharrezko erantzun behar diete. Betebeharrak, ordea, botere gehien dutenen kontua dira; ez eurenak bakarrik, baina bai bereziki eurenak. Hau da, gizartean duten kokapen politikoaren, sozialaren, kulturalaren edo ekonomikoaren ondorioz, beste pertsona batzuen interesak edo betebeharrak asetzeko aukera gehien dutenak. Beste modu batera esanda: zenbat eta botere handiagoa, betebeharrak gehiago, eta zenbat eta botere gutxiago, eskubideen berme handiagoa.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaz harago, pertsonak eta natura babestera bideratutako eskubide berrien ikusmoldean aurrerapausoak eman badira ere, oraindik orain oso urrun daude Hegoalde globaleko herrialdeetako pertsona gehienek Adierazpenean babestutako eskubideen maila egokia erabili ahal izateko gutxieneko bermeak. Gainera, oraindik orain hierarkia dago pertsonak beldurrik gabe bizi izatea ahalbidetzen duten eskubide zibil eta politikoaren artean, batetik, eta pertsonen pobreziaz at bizi izatea ahalbidetzen duten eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen artean, bestetik. Zalantzarik gabe, garapen-eredu kapitalistaren inposaketan berri ematen digu hierarkia horrek.

i. EESK-k nazioarteko zuzenbidean

EESKNIren (Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren) 1. artikulua ezartzen du garapen ekonomiko, sozial eta kulturalerako eskubidea dutela herriek, bai eta beren aberastasuna eta natura-baliabideak askatasunez erabiltzekoa ere. Gainerako artikuluek bizitza duina izateko beharrezko diren eskubide batzuk aipatzen dituzte; adibidez, lan egiteko eskubidea, gizarte-segurantza izateko eskubidea, osasunerako eskubidea, hezkuntza eta kultura jasotzeko eskubidea... Berariaz adierazten da elikadurarako eskubidea, eta ezartzen da beharrezkoa dela nazioartean neurriak hartzea, Itunean jasotako eskubideak errespetatuko direla bermatzeko.

Azken urteotan eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak babesteko sortu diren tresnak ez dira beti barne-legedietan gauzatu. Herrialde askok, hala nola Espainiako estatuak, argi eta garbi bereizten dituzte eskubideak: alde batetik eskubide zibil eta politikoak daude, Konstituzioak funtsezkotzat jotzen dituenak, eta beste alde batetik daude eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak, printzipio gidarrietan edo, asko jota, exijitzeko aukera txikiagoa ematen duten formulen bidez jasota daudenak.

1996ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak (EZPNI)⁴ biltzen dituen eskubideak berehala exiji daitezke baina, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunak (EESKNI) bildutakoei dagokienez, aldiz, horietako asko pixkanaka-pixkanaka ezartzea jasotzen du Itunak berak, biak ala biak urte berean prestatu ziren arren, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala indartzeko asmoz.

1985ean, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea (CESCR) sortu zen Nazio Batuetan, estatuei EESKNI zuzenean aplikatzea eta judizializatzea gomendatzen dien erakundea. Aritu independentez osatuta dago eta Estatuak eskubide horien erabilerari buruzko txostenak aurkeztu behar dizkiote aldian-aldian.

2008an, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak babesteko urrats handi bat egin zen; izan ere, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Kontseiluak Hautazko Protokolo bat onartu zuen, aukera ematen diena biktimei, salaketa aurkezteaz gain, ordain bat jasotzeko. Protokoloa gauzatzeko beharrezkoa zen 10 estatuk berrestea, eta 2013an lortu zen hori. Izan ere, 2013ko otsailean, Uruguayk Argentinari, Boliviari, Bosnia-Herzegovinari, Ekuadorri, El Salvadorri, Eslovakiari, Espainiari, Mongoliari eta Portugalari EESKNI berresteko eskatu zien eta, horri esker, Ituna indarrean jartzeko 42 herrialde sinatzaileetatik 10ek berretsi behar zutelako baldintza betetzea lortu zen.

○ Migrazioa eskubide banaezinen ikuspegitik

Eskubide banaezinen ikuspegiaren arabera, norbait borondatezko migratzailetzat hartzeko, ezinbestekoa litzateke jatorrizko gizarte-ingurunean duintasunez bizi ahal izanik, beste leku batera joatea erabakitzea. Ikuspegi horren muturreko ikuspegia ezarriz gero, pertsonak jatorrizko komunitatean, nortasuna eta sareak dituzten lekuan, irauteko eta bertan oinarrizko beharrian guztiak betetzeko eskubidea exijitu beharko litzateke.

Bestela esanda, eskubideen ikuspegi banaezinaren arabera, norberaren lekuan bizi izatea litzateke normaltasuna edo araua. Migrazioa “anormaltasuntzat” jo beharko litzateke, sistema soziopolitikoak bere herritarrak tokian bertan mantentzeko ezintasunaren isla, euren bizitzen segurtasunaren beldur, derrigorrez lekualdatzera egongo liratekeelako. Ziur aski, anormaltasunaren eskema hori ikuspegi ideologiko eta teoriko guztietan nagusitzen da, baina are nabarmenagoa da Kolonbiako

4 NAZIO BATUAK (1966): Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna. Batzar Nagusiaren 2200 A (XXI) ebazpena, 1996ko abenduaren 16koa.

errealitatean, besteak beste, estatu horretan barrurako eta kanporako lekualdatzeen kopurua demasa baita.

Enrique Santiago Nazioarte Zuzenbideko abokatu adituak honela laburtzen du: *“Hori horrela da; pertsona bati beraren herrialdean iraun ahal izateko gutxieneko eskubide ekonomiko eta sozialak ukatzen zaizkionean, pertsona hori errefuxiatua da, jazarpenaren beldur baita, kasu horretan, eskubide ekonomiko eta sozialak urratu zaizkiolako. Eskubide horiek ukatu gabe, kalitate txarrekoak izan arren, gutxieneko estandarretan eskuratzeko aukera badu... orduan, emigratzea erabakitzen badu, migratzailea izango da”*.

Asilo-eskubidearen esparruan, 1951ko Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioa ezartzen duten herrialdeek (aurrerantzean, 1951ko Genevako Konbentzioa) eskubide zibil eta politikoak urratzen direnerako babes-elementutzat jo izan dute, baina albo batera utzi dituzte eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak. Geroago aztertuko dugu sakonago Konbentzio hori, baina momentuz aurreratuko dugu Nazio Batuen Erakundearen esparruan garatutako erreferentziako tresna loteslea dela eta, 1967ko Protokoloarekin batera, errefuxiatua nor den, eta haren eskubideak eta Estatuaren betebeharrak zein diren zehazten duela.

CEAR-Euskadin errefuxiatuaren interpretazio inklusiboagoa defendatzen dugu. Asiloa eskuratzeko giza eskubideen urraketa aintzat hartzen bada, gutxienez Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren pean eta, beraz, bi Konbentzioen pean (EZPNIren eta EESKNIren pean) dauden eskubide guztiak hartu beharko dira aintzat.

Alabaina, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak zer mailatan eta zer egoeratan urratu behar dira, biztanleria behartuta lekualdatu dela jo ahal izateko? Gure asmoa ez da *behartua* deitura jartzea eskubide horien edozein gabeziak eragindako biztanleria-mugimendu guztiei; lekualdatze behartuen jatorria eta karakterizazioa aztertzen denean, eskubide horiek funtsezko elementutzat hartzea, horixe baino ez dugu nahi.

○ **Estatua, eskubideen bermatzaile**

Lekualdatzea behartutzat ulertu eta ezaugarritzeko beste funtsezko elementu bat zera da: estatuaren eginkizuna eta harekiko aurreikuspenak eta exigentziak.

Estatuak ezintasuna edo interesik eza adierazten badu, indarkeria mota bat dagoela uler daiteke. Estatuak herritarren beharrezanean erantzuten ez badie, edo bizitza duina garatzeko eta urrakortasuna gutxitzeko behar diren neurriak ezartzen ez baditu, indarkeria hasten dela uler daiteke.

Elkarrizketetan eta landa-lanean behin eta berriro entzun dugu esparru politikoari egozten zaiola biztanleen babesgabetasun-egoera; izan ere, horren ondorioz, herritarrek migratzea beste aukerarik ez dute. Estatuaren ekintza-gabezia hori muturrera eramanez gero, giza eskubideen urraketatzat uler daiteke. Askotan, arretagabezia edo babes-gabezia horren intentsitateak bereiziko ditu migrazioa eta lekualdatze behartua.

Azken buruan, estatuaren eginkizuna eta erantzukizuna dago jokoan. Duela mende bat izan ziren migrazioetan ez zegoen hain agerian estatuaren erantzukizuna azaleratzen zuen ikuspeirik, eta ez zen uste horren eginkizun garrantzitsurik zuenik egitura ekonomiko egokiak hornitzen. Ondorioz, errazagoa zen migrazio ekonomikoaren artean (behartua izan arren) eta lekualdatze behartuaren artean bereiztea, gizakiaren nahiz naturaren eraginez. Gaur egun muga horiek lausotu egiten dira, hainbat arrazoi direla eta: estatuaren eginkizunaren inguruko ikuspegia aldatu egin delako, eta estatuak bermatu beharreko eskubideak berrikusi egin direlako.

Historikoki estatuak sortu du lekualdatze behartuen bolumen handiena eta bera izan da jazarlerik ezagunena eta agerikoena. Alabaina, gaur egunean bi aldaketa gertatu dira.

Lehenengo aldaketaren ondorioz, estatuak babestu beharreko eskubideen eremua zabaldu egin da eta, horregatik, elkarrizketatutako pertsonak hari egozten diote errua, nahikoa egin ez duelakoan. Hau da, estatuak ez die jaramon nahikoa egiten herritarrei, ez die arretarik eskaintzen, ez ditu urrakortasunaren egiturak kentzen edo suntsitzen. Horregatik, herritarrek jasaten duten egoeraren erantzulea da. Estatua, kasu horretan, 'borondate politikorik gabeko' erakunde gisa aurkezten da; edota, borondate politikoa izatekotan, gizarteko sektore nagusiarekin eta barneko sektore horien nazioarteko aliatuekin bat egiteko erabiltzen du. Estatuaren ekintza-gabezia hori etengabe agertu da elkarrizketetan, eta behin eta berriro adierazten dute solaskideek.

Nazioartearen Asilo-babesaren esparruan, estatu batek pertsona bati babesa eskaintzeko, pertsona horren jatorriko estatuak izan behar du jazarlea, jazarpen hori onartu egin behar du, edota ezin ditu jazarritako pertsonak babestu, edo ez du nahi.

Lekualdatze behartuaren ikuspegi integralari heltzeko, jazarpenaren ohiko ikuspegiaren haragoko gogoetak egin behar dira (geroago ikusiko ditugu), eta herritarrek funtsezko eskubideak eskuratu eta erabili ahal izateko estatuak duen erantzukizunaren gaiari ere heldu behar zaio.

Azken batean, eta ikerketan zehar ikusi ahal izan dugun bezala, estatua bi modutan izango litzateke erantzulea: alde batetik, jazarri egiten duelako; beste alde batetik, bizi irauteko oinarrizko eskubideak ezin dituelako bermatu edo ez dituelako bermatu nahi.

c) Globalizazioa ala gabetzea? Baliabideen harrapaketa

García Canclini⁵ arabera, desberdintasun handia dago modernitatearen eta globalizazioaren artean. Paperaren gainean, behintzat. Modernitateak, eta berarekin batera modernizazio-prozesuak, *gizarte modernotzat* ulertzen zenaren parametroetan kokatu nahi zituen munduko gizarteak, herrialdeak eta gizarte-sektore guztiak. Pentsamolde horren arabera, industria-gizarteak, nahitaez, gizarte hiritarra, politiko-pluralista, laikoa, juridikoki bermatzailea eta demokratikoa eskatzen zuen hiritarrentzat. Modernizazioa endogenoa nahiz exogenoa izan zitekeen, baina munduaren ikuspegi meritokratikoa zeukan, mugigarritasun geografikorako aukera mugagabeekin, gizartean gora mugitzeko aukerarekin, eta munduko herrialde eta pertsona guztiei irekita. Modernizazioaren eskaileran gora egitea zen kontua: herrialde 'garatuek' dagoeneko gora egindako bide berari jarraitzea; haien mugimenduak eta egiturak imitatzea, eta emaitza berdinak lortzea. Gainerakoa berez etorriko zen. Garai horretan aurrerabidearen sinesmena nagusitu zen.

Halere, globalizazioak amets integratzaile hori eta logika integratzaile hori hautsi eta beste logika bat, logika baztertzatzailea, ezarri zuen haren ordeztuz; "zuk baduzu, nik ez dut" ideian oinarritzen zen. Garapena/ ez garapena zero emaitza eskuratzeko batuketa-joko bihurtu eta, ondorioz, partaidetza integral eta unibertsalaren erretolika bertan behera gelditu zen. Globalizazioa konexio selektibo gisa egituratzen da: sartzea lortzen duena 'aukeratuen' klubean kokatzen da eta, sartzen ez dena, berriz, prozesutik *sine die* kanporatzen da. Castellesek esan ere egin du hobe dela globalizazioaren eragina eta kaltea jasotzea, haren eraginetik kanpo gelditzea baino. Konexio/deskonexio selektiboaren ideia horren bidez zera adierazi du: "globalizazioak planeta osoari eragiten dio, baina planeta osoa ez dago sistema globalean txertatuta. Izan ere, jende gehiena ez dago barruan: balioa duela jotzen dena globalki konektatzen da, eta interesatzen ez dena deskonektatu"⁶.

⁵ GARCÍA CANCLINI, Néstor. (Bartzelona, 2002): *Latinoamericanos buscando lugar en este siglo*. Paidós Estado y Sociedad.

⁶ CASTELLS, Manuel (Madrid, 1997): *La era de la información: economía, sociedad y cultura*. I. liburukia. *La sociedad red*. Alianza.

Neo-garapen estraktibista

Washingtoneko Kongsentsuak Estatua argaltzea eta politika publikoen dimentsioa murriztea defendatzen zuen, herritarrei segurtasun juridikoa kendu eta enpresa transnazionaleri are handiagoa emateko. Gaur egun, berriz, eredu neodesarrollistak bi bide erabiltzen ditu:

1. Bata Kolonbiako ereduan ikus daiteke: estatua interes partikularren edo hirugarrenen konplizea da eta politika zapaltzaileak eta kontrol militarra ezartzen du, politika publiko gutxiarekin.
2. Bestea, estatu indartsuenetan ikus daiteke, hala nola Bolivian, Ekuadorren eta Venezuelen. Ezkerreko korranteak dituzte eta, joko-marjina txikiaren baitan, baliabideak euren barnean birbanatzen dituzten indar integratzaileak bihurtzeko asmoz jokatzeko dute.

Lehenengo kasuan harrapaketa 'garbia' da; bigarrenen kasuan, 'neodesarrollismoa' eredu banatzaileagoetara bideratu da.

Juan Hernandez ekintzaileak, Nazioarteko Zuzenbide Korporatiboan adituak, hainbat adibideren bidez (hala nola Boliviakoa) aztertu du bigarren kasua: *"Gaur egun baliabide naturalak ustiatzeko estatu indartsua behar da, eta transnazionalak ondo konpontzen dira Evo Moralesekin. Zer lortzen da horrela? korrituak, zergen interesak... birbanaketa. Batzuen ustez populismoa sortzen da, eta beste batzuen ustez, jendearen bizi-baldintzak aldatzeko aukera"*.

Hernándezen arabera, bide berri horrek sektore batzuetan egiten du birbanaketa, *"gutxiengo batzuen kaltetan"*.

Eredu hasiberria da, baina aurreko eredu desarrollistetan bezala, oinarritzko ideian, gero banatu ahal izateko, aurretik metatu egin behar da. Iragazketaren teoriaren formulazio berria da eta, horren arabera, estatuak herritarren kaltea eta sakrifizioa arintzen du; hala, komunitate nazionalako banaketa- eta bitartekari-lana betetzea onartzen du, eta bere komunitatearekin partekatzen ditu hain kaltegarria izango ez den negoziazio baten ondoriozko etekinak.

Kolonbiako ereduan nahiz gizartearen gehiengoarentzat "abegikorragoak" diren beste eredu batzuetan, estraktibismoa da garapenaren erdigunea. Ondorioz, ingurumenean eta gizartean gatazka larriak sortzen ditu eta lurraldean errotuen dauden pertsona eta komunitateak kanporatzea eragin. Lehen eredua askotan jarri da zalantzan, bortxaz inposatzen delako (batzuetan agerian, batzuetan ezkutuan). Bigarren ereduan, teorian

behintzat, birbanaketa nagusitu egiten da, baina gune zehatzetan gatazkak eragiten ditu.

Honelaxe dio Hernándezek: *“Askoz ere kokatuago dagoen beste gatazka bat agertzen da. Non eta zertan kokatua? Komunitate indigenetan, Afrikatik etorri zirenen ondorengoengan eta nekazari-kolektibo batzuetan. Eta gatazkak sortzen dira, komunitate horiek naturarekiko eta lurrarekiko errespetua eskatzen dutelako... eta, beraz, gatazka etortzen delako. Lurra funtsezko elementua da, demokrazia baloratzeko beste bide bat; eta, nolabait, garapenaren kontzeptu berri bat agertzen da, post-garapena...”*.

Horretan bereiziko lirateke Kolonbia eta Bolivia, bi eredu en muturreko adibidetzat. Lehenengo kasuan, estatuak, neutraltasunaren izenean, atzerriko kapital transnazionalaren alde egiten du, herritar gehienek kaltetan. Bigarren kasuan, estatuarentzat horren kaltegarria izango ez den akordioa bilatzen da transnazionalekin; estatuak baliabideak ustiatzeko ahalmena izango luke, horren trukean etekinak banatu eta azpiegitura nazionalizatzaile erako proiektu handiei helduz. Alabaina, horren ondorioz lekualdatu egin beharko diren pertsonak kaltetzen dira. Lehenik eta behin oposizioaren aitzindariak edo jarraitzaileak, baina baita ‘zeharkako kalteak’ jasaten dituzten pertsonak ere, bizimodu tradizionala desagertu egin zaienez lekualdatu egiten baitira, munduan ia inor konturatu ere egin gabe.

Gaur gaurkoz, eredu batean nahiz bestean estraktibismoaren aldeko apustua egin da eta gizarte- eta ingurumen-alorreko gatazka dakar horrek (*“jende asko eta asko hiltzen duen labana baten parekoa da”*, esan du Hernándezek) baina nazioarteko zuzenbideak ez du egoki erantzuten eta, zerbait egiten duenean, alde baten alde jokatzeko oso segurtasun juridiko eskasa eta ahula eskaintzen dielako kaltetuei; transnazionalen, aldiz, oso segurtasun juridiko handia eskaintzen die.

Hernándezek Guatemalako egoera ere aipatu du. Berrikitan bertara joan eta Galiziako kapitalez herrialde horren hegoaldean zentral hidroelektriko bat eraikitzearen aurka egiteagatik kartzelaratu dituzten buruzagi indigenak bisitatu ditu: *“[...] Molina presidenteak Guatemala nazioarteko eredu globalizatzailean kokatzea erabaki du. Nola? Herrialdean megaproiektuak eginez. Zer esan nahi du horrek? Urtegiak eraikitzea, hipermerkatu handiak eta produkzio-kate handiak ezartzea... eta energia esportatzea. Eta zeren kontura? Ingurumen-alorreko gatazka eragitearen kontura. Gatazkak norekin? Batik bat landa-eremuko jendearekin eta indigenekin, horiek ez baitute inolako onurarik aterako.*

Nire ustez, gai horrek Latinoamerika osoa hartzen du, Txileko maputxeekin gauza berbera gertatzen baita [...]". Mexikoko eta Erdialdeko Amerikako kasuak ere aipatu ditu. *"[...] Barne-lekualdatze izugarriak gertatzen ari dira, eta kanporako lekualdatzeak ere bai. Zuzenean? Ez dakit. Neurtu ere ez duzue egingo eta, beraz, migrazio ekonomikoarekin alderik ote dagoen zehaztea... ni baiezkoan nago. Gizarte- eta ingurumen-arazoengatik lekualdatutako jendea dago, normalean lekualdatzera behartuta, joaten ez badira indarkeria jasango dutelako"*.

Ereduaren larrialdiak Nazioarteko Zuzenbidearen premiazko erantzuna, erantzun pragmatikoa, eskatzen du, Kolonbian gertatzen dena Afrikan ere (Angolan, Kongoko Errepublikan Demokratikoan, etab.) gertatzen delako, eta areagotuz doalako, gainera. Onartezina da halako larrialdi baten aurrean Nazioarteko Zuzenbideak duen jarrera zuhurra eta kontserbatzailea izatea. Elkarrizketatuko pertsona batzuek esan digutenez, izugarritzko zailtasuna dago elikagai-segurtasunari, harrapaketari edo herri indigenen kontsulta-eskubideari lotutako gaiak irekitzeko, nahiz eta hildakoak milaka izan.

Fenomeno horiek berri samarrak dira edo, behintzat, interpretazio berriak onartzen dituzte. Enpresak, talde paramilitarrak eta talde kriminalak daude komunitate babesgabeen aurrez aurre; beti-betiko bizimoduan erasotzen diete, bizirauteko bideetan bertan. Herri horiek arpilatu, lekualdatu, zanpatu eta jazarri egiten dituzte. Betidanik lurrarekin izan duten harreman sozialaren eta materialaren forma kulturalak hausten dizkiete. Azken buruan, esplotazio-bide berriak eta parte hartzen duten eragile berriak azaleratu dira, eta betiko tokian irauteko aukera kentzen diete komunitate horiei. Are gehiago, komunitateak ez dute onurarik aterako euren bizitzak suntsitzen dituzten proiektuetatik eta, kasurik txarrean, beti-betiko habitata defendatzeagatik hil egingo dira.

o **Estraktibismoa eta gizarte- eta ingurumen-gatazkak lekualdatzeen jatorrian**

Elkarrizketatutako pertsona gehienak bat datoz gizarte- eta ingurumen-gatazken ondoriozko lekualdatze behartu itzela (barnekoa nahiz kanporakoa) dagoela. Horien atzean megaproiektuak, megaenpresak edota meatzaritzako eta elikagaien industriako proiektuak daude, betiere estraktibismo berriari eta enpresen zerbitzura egongo diren azpiegiturak eraikitzeari lotuta. Liderren jazarpenean, herrien aurkako mendekuan, beldurragatiko eta arriskuagatiko lekualdatze behartuan oinarritzen den egoera erreala dago.

Egoera hori laburtzeko, Hernándezek dio Nazioarte Zuzenbide ahula dugula biktimen defentsan, eta indartsua enpresen defentsan.

Hernández kide duen Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiak (OMAL) honela definitzen du 'segurtasun juridikoa': *“zuzenbideko subjektuek duten segurtasuna, euren egoera juridikoa ez dela aldatuko ez bada aurretiaz ezarrita dauden eta euren eskubideak bermatuko dituzten prozeduren bidez”*.

Enpresa transnazionalak printzipio horretara jotzen dute euren jardueren gaineko kontrol handiagoa ezar lezaketen aldaketa politikoen aurrean beren interesak defendatzeko. *“Horrela, ezkutatu egiten da benetako segurtasun juridikoa beste bat dela: Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea Lex Mercatoriaren gainetik lehenesten duena, hain zuzen”*.

Enpresa transnazionalen eskubideak blindatzen dituzten merkataritza- eta inbertsio-alorreko kontratu eta arauen multzoa da Lex Mercatoria edo Merkataritza Globalaren Zuzenbidea. Nazioartean arautzen dira eta bi aldetarikoak nahiz alde askotarikoak izan daitezke. Eskubide horiek urratzen direnean, enpresek Arbitraje Auzitegietara eta Munduko Merkataritza Erakundearen Desadostasunak Ebazteko Sistemara jo dezakete, biak ala biak Lex Mercatoriaren parte baitira.

Halere, transnazionalen jarduera nazioarte osoan zabaldu eta eskubideak esparru horretan babesten dituzten arren, haien betebeharrak ez dira Lex Mercatorian sartzen, eta jarduten duten herrialdeen kontrol nazionalaren pean gelditzen dira, enpresa matrizea beste leku batean egon arren.

OMALek salatu duenez, enpresa transnazionalak nazioetako nahiz nazioarteko jardun legegilea zuzenean edo zeharka behartzen dute, mundu mailako akordio formal eta informalen bidez eta gatazkak konpontzeko bide espezifikoen bidez, botere judizialaren irizpideen eta oinarrien gainetik ere.

Enpresa transnazionalak lortzen dituzten hitzarmenak eta baldintzak blindatu eta babestu egiten dira, berdin dio zer egoeratan sinatu diren (governua hala-holakoa izan arren, gatazka armatu baten erdian izan arren, etab.).

Biktinek ez daukate nazioarteko bideetara jotzeko giza baliabiderik, teknikorik eta finantzariorik, eta, gainera, tokiko nahiz nazioarteko organoen erabakiak sarri askotan bete eta gauzarazten ez direnez, pertsonak eta komunitateek enpresa transnazionalen aurrean duten babesgabetasuna areagotu egiten da.

OMALek behin eta berriro salatu eta azpimarratu du zer-nolako arau-asimetria dagoen, batetik Lex Mercatoriaren artean (Hernándezek "zuzenbide gogor, hertsagarri eta aginduzkotzat" jotzen du) eta bestetik Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen artean. Ez enpresa transnazionalen betebeharrak arautzen dituzten herrialde hartzaileen legeriak, ez Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen mekanismoak, ez dira enpresa transnazionalen jarduerak kontrolatzeko nahikoak, eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta ingurumenekoen aurka aritzen direnean.

Posizioen arteko asimetria itzela dago eta are larriago bihurtzen da, gainera, inposatzen den 'tratu nazionalaren' ondorioz; izan ere, horren arabera, herrialde batera iristen den enpresa transnazionala bertako enpresen pareko baldintzetan tratatu behar da. Hernándezen esanetan, ordea, hori "desberdintasun hutsa edo trataera asimetrikoa da", batez ere herrialde aberats-aberatsek herrialde pobretuen baliabideak ustiatzen dituztenean; izan ere, agerikoa da ez dela berdin jokatzeko pertsonak toki batetik bestera joaten direnean.

Hernándezek eta beste aditu batzuek bezala, lekualdatzeetan lurraren gaineko interesak duen garrantzia azpimarratzen du Santiagok: batzuetan baliabide naturalak ustiatzeko interesa izaten da, beste batzuetan arrazoi geoestrategikoak eta beste batzuetan garapen-proiektu handiak. Adibide bezala aipatzen ditu sojak hartutako Argentina; zentral elektrikoek ondorioz Txilen eta Brasilen gertatzen diren lekualdatzeak; Hondurasen nekazaritzako industria-proiektuek dituzten ondorio latzak, nekazarien aurkako "zapalkuntza bortitza" ez ezik, Kolonbian gertatzen denaren pareko lur-arpilatzea ere eragiten dutenak. Herrialde horretako adituek gatazkaren arrazoia ere testuinguru horretan kokatzen dute: "Ez daude gerraren ondoriozko lekualdatzeak; gerra dago, lekualdatzeak egoteko"⁷.

Adituek zeharka baino ez dute onartzen migrazio ekonomikoa. Beraien ustez, migrazio ekonomikoak ez du garrantzirik, ez kopuruan, ez esanahi sozialean. EESK-ak lehen mailako eskubidetzat hartuz gero, orain arte migrazio ekonomikotzat jo izan denaren borondatezko izaera nabarmen murrizten da. Hernándezen iritzian, etorkizunean gehiago izango dira lekualdatze behartuak, migrazio ekonomikoak baino.

Izan ere, lekualdatutako pertsonak "errefuxiatu ekonomikotzat" jotzen ditu, halakoak zeharka badira ere. Ingurumen- eta gizarte-gatazkaren modu berri bat azpimarratzen

⁷ Jorge Rojas, Héctor Mondragón aipatzen. *Relatifundización, megaproyectos y campesinos en Colombia*, CODHES, 2000. 'Lekualdatzea, Gatazka, Bakea eta Garapena' nazioarteko mintegia.

du, gero eta jende gehiago lekualdarazten duen arren, Nazioarteko Zuzenbideak ez baitu egoki moztu jakin. Alor juridikora jo gabe, arrazoi horiengatik lekualdatu behar izan duena "errefuxiatua" dela uste du. *"Izan ere, pertsonaren duintasun-adierazpenaren eta, beraz, Nazioarteko Zuzenbidearen muinean dagoen eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen Protokoloan eta Itunean jasotako funtsezko eskubideak urratu zaizkion pertsona jazarria da"*.

Beraren arabera, Inbertsioen eta Merkataritzaren Zuzenbidearekiko dagoen asimetria azpimarratu behar da. Alabaina, eztabaida hori ez da egiten, eta egoera hori azpimarratzeko modukoa dela uste du. *"Merkataritza Libreari buruzko Hitzarmenak, inbertsioei buruzkoak, ustiapen-kontratuak... bizkor, moldakortasunez eta indar itzelez garatzen dira. Alabaina, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak milaka urte emango ditugu asiloa ote den ala lekualdatzea ote den erabakitzen, zer arau ezarri behar zaien eta zein ez... klima-aldaketaren ondorioa den ala urtegi baten ondorioa. Nire iritzian, agerikoa da klima-aldaketak eragindako lurrikaren ondoriozko lekualdatzeak egongo direla, eta kategoria horrek nazioartearen babesa merezi du. Beste alde batetik, ordea, hori konprometituagoa denez, lausotu egiten da. Zergatik da konprometituagoa? Izen-abizenak dituelako: enpresak dira.*

[...] tresna juridiko berriak behar dira ingurumen-gatazkari eta EESKei loturiko lekualdatzeak tipifikatzeko; asilo gisara gauzatu behar dira legerian, eta ez badiogu asiloa deitu nahi... dei diezaiogun beste modu batean. Ulertzen dut horri asilo deituz gero, dagoeneko Nazioarte Zuzenbidean oso errotuta dauden beste posizio mota batzuk kutsatu egingo lirakeela. Beharbada beste tipifikazio bat eraiki behar dugu; zaila da, baina egin dezagun [...]".

Historikoki, immigrazioa jazarpen-arrazoirik gabe antzeman da. Egozketaren faktoreak aipatzen zirenean, bizitza duina galarazten duten kausak lehenesten ziren, baina oso kasu zehatz batzuetan izan ezik, ez zen nabarmentzen hasierako gabetzea: pertsona eta komunitateei euren bizimoduak eta bizibideak, oraingoak eta etorkizunekoak, ebasteko prozesua.

Ondorioz, gabetzearen ikuspegi erradikalean oinarrituz gero, migrazio-prozesu guztiak dira, nahitaez, gizarte-porrota, pertsonak eta komunitateak babestu behar dituzten estatuak eta erakundeak ez direlako gabetzea eragiten duten kausak erazteko gai izan. Hau da, inoiz sorterritik joateko asmorik izan ez duen pertsona, gutxi gorabehera tradiziozko jardueren bidez ogibidea irabaztea proiektatu duen pertsona, lekualdatzera behartuta dago, dela beldurratik, dela arriskuagatik.

Ikuspegi erradikal horretatik begiratuta, lekualdatzearen eta hondamendiaren artean aukeratu beharko du pertsona horrek.

○ **Kolonbiako kasua, doktrina neoliberalaren paradigma:**

“Hau horrela da: iritsi zara, zeure lurretatik egotzi zaituzte, mendira jo duzu, mendia soildu duzu, landu egin duzu, ireki, finkatu egiten zara, eta bost urte eman ondoren, dagoeneko soilduta utzi duzunez, jauntxoak paramilitarrekin iristen dira, eta berriro ere hasi behar...”
[Enrique Santiago]

i. Aldatu den gatazka

Kolonbian galdekatutako ia pertsona guztiak, edota errealtate hori ezagutzen duten ia pertsona gehienak, bat datoz herrialde horretako lekualdatzeetan bi une bereizi behar direla esatean. Bata, joan den mendeko erdialdeko barne-indarkeria eta, bestea, berriagoa, doktrina neoliberalari lotutako baliabideen espoliazio globalari lotutakoa eta “zigorgabetasun-eremu zabalak” irekitzen dituen. Atzealdean beti daude giza eskubideak eta haien etengabeko urraketa.

Merlys Mosquerak, Errefuxiatuentzako Jesulagunen Zerbitzuko Latinoamerikako eta Karibeko (Kolonbia) eskualde-zuzendariak, honela laburtzen du: “Kolonbiako lekualdatzeak bi begiradapean azter ditzakegu. XX. mendearen erdialdetik, berrogeita hamarreko hamarkadatik, aurrera, indarkeria hutsak eragin ditu lekualdatzeak; gatazka armatuaren ondorioz landa-ingurura zabaldutako indarkeria gogorra zen, kausa historikoak zituen, garai batean, pobreziaren, miseriaren eta giza eskubideen etengabeko urraketaren ondorioz talde armatuak sortu zirelako.

Alabaina, Kolonbian duela hamar edo hamabost bat urtetik hona gertatzen den lekualdatzeari buruz ari bagara, indarkeriari horri beste elementu batzuk erantsi behar zaizkio: narkotrafikoaren kontrolarengatik borroka, baliabide naturalen arpilatzea eta neoliberalismo handiaren hasiera. Izan ere, globalizazioa eta ekonomia suntsikor eta mingarri hori elkartuta, elefantea kristal-denda batean bezala mugitzen dira, eta zigorgabetasunerako esparruak zabaldu. Hori beste lekualdatze mota bat da”.

Germán Romero abokatu eta ekintzaile kolonbiarrak baliabide naturalak eta lurra eskuratzeagatik gudatzat definitzen du bere herrialdeak bizi duen gatazka (dela aberastasunagatik, dela kokapen estrategikoagatik). “Kolonbiak bizi duen lurralde-gatazka lehen ez zen hain handia. Lurralde-gatazka terminoa erabiltzen dut, horrela errazago uler

daitekeela pentsatzen dudalako. Badira lurra eskuratzeko gatazkak, lurra erabiltzeko gatazkak, lurraren jabetzagatiko gatazkak, baina orain badago gatazkaren kategoria berri bat, jabetzaz harago, lurraren kontrolaren ondorioz sortzen dena: meatzaritza- eta hidrokarburo-proiektuak daude horren atzean.

Kolonbiako instituzioetan ari den pertsona batek (izena ezkutuan izatea nahiago du) Kolonbiako gaur egungo gatazkaren antzeko irakurketa egiten du. Haren esanetan indarkeria jendea lekualdatzera zuzenduta dago; horri esker, eskala handiko megaproiektuak, nazionalak eta nazioartekoak, burutu daitezke. Haren esanetan, "lurrak husteko" bi bide daude: proiektu horiek ezarriko diren tokietan indarkeria handituz, edo dagoeneko abian diren indarkeria-egoerak aprobetxatuz.

"Lekualdatze masiboa izan den bakoitzean, ondoren garapen-proiektu handiak etorri dira (nekazaritza, erauzketa, abeltzaintza...). Eta orain eremu frankoak, errepedeak eta abar egiteko ere erabiltzen dira eta dagoeneko lekualdatuta dauden pertsonak berriro lekualdatu behar izaten dute.

Elkarrizketatutako beste pertsona batzuek TAKRIMEi (talde kriminalei) buruz egiten duten irakurketarekin bat dator: hala, desmobilizazioa⁸ amaitu eta berehala sortu dira talde armatuak, eta "lurraren eta gizartearen gaineko kontrola iraunarazten dute. Are gehiago, kontrol hori zabaldu eta sendotu egin da".

Bertsio ofizialaren arabera, 2005az geroztik desmobilizatuta daudenez, ez dira gatazkaren eragile armatutzat jotzen eta, beraz, armadak ezin du haien kontra jardun, eta ezin zaie, halaber, Nazioarteko Giza Zuzenbidetik aurre egin. "Hala, 400 pertsonako batailoia dago herrialdeko zonalde batean jarduten".

"Zuzenbideko estatua egon arte –ez zuzenbideko gizarte-estatua, zuzenbide-estatua besterik ez–, ezin izango da megaproiekturik egin indarkeria erabili gabe. Proiektu handi guztiak legez kanpoko eragileen bidez edo indar publikoko eragileen bidez gauzatzen jarraituko dute. Proiektu ekonomiko handietan, biztanleak hertsatuta edo, bestela, tantaka burutuko da lekualdatze masiboa".

⁸ Aipatzen duten desmobilizazio-prozesua Justizia eta Bakearen Legearen (975 Legea) haritik etorri zen. Hala, legez kanpoko armadetako borrokalariei birgizarteratzeko aukera eman zitzaion, bi baldintzarekin: armak uztea, eta beren krimenak batzorde judizial berezi baten aurrean aitortzea. Batzorde horrek 5 eta 8 urte arteko kartzela-zigorak bermatzen zizkien gehienez ere, zenbateko ardura-maila zuten kontuan hartuta. 2004an Legea onartu zenetik, 32.000 paramilitarrek utzi dituzte armak, eta 100ek aurkeztu dute beren burua batzorde judizialean. Kolonbiako gizarte-erakunde gehienentzat, ordea, zigorgabetasuna lortzeko prozesu bat besterik ez da. Eta horri esker, paramilitarrak berregituratu egin dira, eta talde armatu berriak sortu dituzte, beste izen batzuekin. Gainera, justizia saihestuz egin dute hori guztia. Juan Lozanok eta Hollman Morrisek Impunity dokumentalean dioten bezala, Justizia eta Bakearen Legeak zigorrik gabe utzi du kasuen % 98.

Mosquerak enpresen eta indarkeria erabiltzen duten taldeen artean dagoen lotura gaiztoa ere azpimarratzen du, azken horiek pertsonak lekualdatzeko eta proiektuak ezarri ahal izateko oztopoak kentzeko erabiltzen baitute indarkeria: *“Oro har, Kolonbiako egoera talde armatu horiek jarduteko egokia da. Izan ere, izen-abizenak dituzten enpresek interesak dituzte Kolonbian, eta zentzu askotan gerra ordaintzen dute”*. Besteak beste, Buenaventurako kasua ekarri du gogora, multinazional handiak (kapital espainiarra dutenak ere bai) portuan sartzearen ondorioz, interes ekonomiko handiak mugiarazten baitira bertan. Duela urte askotatik hona eskubideen urraketa itzela gertatzen ari da eta, segurtasun kontuak direla eta, auzi horretaz zerbait jakin nahi dutenen aurrean erabateko zigorgabetasuna dago. Azken buruan, estraktibismoaren, megaproiektuen, interes ekonomikoen eta gatazkaren artean dagoen lotura estua azpimarratzen du: *“Gatazka ez dator ezerezetik. Une honetan, Kolonbiako gatazkak garai batean izan zituen arrazoi ideologikoak utzi ditu [...], negozio hutsa da, narkotrafikotik elikatuta [...]”*.

Andrés Celis Iheslarienezako Nazio Batuen Kolonbiarako Goi Komisarioak zuhurtasun handiz heldu dio gaiari. Haren esanetan, Gobernuarekin egindako hitzarmenak zehazten du ACNURek Kolonbian duen mandatua, eta gizarte-erakundeei luzatzen die deia, beraiek erakar dezaten estatuen arreta.

Halere, beraren ustez, Biktimei laguntzeko eta Lurrak Itzultzeko Legearen (1448 Legea)⁹ 150. eta 177. artikuluek agerian uzten dute eztabaida hori: *“150. artikulua*

⁹ X. KAPITULUA Berriro ez Errepikatzen Bermeak. **150. artikulua.** Egitura ekonomiko eta politikoak desegitea. *Kolonbiako estatuak legez kanpoko talde armatuen onurako izan eta elikatu dituzten egitura ekonomiko eta politikoak desegiteko neurriak hartuko ditu, aurreko artikulua aipagai dituen berriro ez gertatzeko bermeak gauzatuko direla ziurtatzeko asmoz.*

III. KAPITULUA. Lurrak itzultzea. Xedapen orokorrak

Itzultzeko prozedura eta hirugarrenen eskubideen babesa. **77. artikulua.** Ebasketaren presuntzioa, Gabetutako Lurren Erregistroan izena emana duten lur-ondasunen harira. Gabetutako eta Behartuta Utzitako Lurren Erregistroan dauden lur-ondasunak direla eta, honako presuntzio hauek hartuko dira kontuan:

1. Zuzenbideko presuntzioak, kontratu batzuen harira. *Itzulketa-prozesuan froga-balioa izan dezan, zuzenbidez onartuko da ez dela adostasunik egon, edo legez kanpoko kausa egon dela, 75. artikuluan aurreikusitako aldian, itzuli beharreko higiezinaren gaineko benetako eskubide bat, jabetza edo okupazioa eskualdatu edo eskualdatzeko agindua ematen duten negozio eta salerosketa-kontratu egin bada, alde batean biktimea, haren ezkontidea, lagunkide iraunkorra, berarekin bizi diren senide adin nagusikoak edo haren kausadunak, eta kontratuaren beste aldean, berriz, legez kanpo ari diren talde armatuetako (berdin dio izena zein den) kidea, laguntzailea edo finantziatzailea izateagatik kondenatutako pertsona, edota narkotrafikoagatik edo lotutako lege-hausteengatik kondenatutakoa, berdin dio azken horiek zuzenean edo hirugarrenen bidez aritu badira negozio horretan. Zerrenda honetan aipaturiko kontratu eta negozioetan adostasunik ez badago, ez da negozio edo ekintza horri egintzat joko eta, ondorioz, erabateko baliogabetasuna izango da ondasun horren osotasunaren edo zati baten gainean ondoren egin diren egintza edo negozio guztietan.*

(...)

3. Administrazio-egintza batzuen gaineko lege-presuntzioak. *Aurkako aldeak higiezin baten jabetza, edukitza edo okupazioa, eta ondorengo uztea, frogatu duenean, ezin izango zaio itzultzea ukatuko, ondorengo administrazio-egintza batek biktimaren eskubideen aurkako egoera juridikoa legeztatu duelako argudioarekin. Itzulketa-prozesuko*

dioenez, talde armatuak sortu, iraun eta indartzea ahalbidetu zuten sektore ekonomiko eta sektore politikoen arteko harremanak desegiteko konpromisoa hartzen du Kolonbiako estatuak. Kolonbiako estatuak onartu egin du talde armatuek interes ekonomikoekin duten lotura, interes ekonomikoek nola aprobetxatzen duten biztanleriaren urrakortasuna.

Horregatik aipatzen dut 77. artikulua ere, ebasketaren suposamendu guztiak biltzen dituenena. Nik ez dut zalantzarik. Esan genuenaren zati bat da. Gure txostenetan jasota dago nola aprobetxatu zuten indarkeria lurraldeen produkzio-bokazioa aldatzeko, nola aprobetxatu zuten erakundeen ahultasuna eskualdeen beste ikuspegi bat ezartzeko, eta nola, gaur egun ere, horixe den eztabaida-prozesua sendotzeko oztopo nagusia; izan ere, garapenari buruzko azpiko eztabaidak bere horretan dirau".

Memoria Historikoaren Zentro Nazionaleko Magda Vázquezek eta Juan Manuel Zaramak ere adierazi dute interes ekonomiko eta politikoak ez direla biktimizazioaren zeharkako osagaiak, haren oinarria bera baizik; hala, estatu horretako toki askotan "lurraldeak eurak gatazka armatuaren biktimak" direla uste dute.

Beraien iritzian, fenomenoak ulertu eta erantzuna emateko gatazka eskualde mailan aztertu behar da. "Eskualdeko bakoitzean gatazka azaltzen duten faktoreak identifikatu behar dira. Kausak eta ondorioak kontrastatu". Diotenez, gertatzen ari denaren zati handi bat lursail latifundisten babesarekin lotuta dago. "Gatazka gogortzen den heinean, jendeak lurra uzten ditu. Eta nekazaritza-industria erraztu egin da horri esker. Jendea bere lurretatik aterata, estatuaren laguntzaz eta nazioartearen lankidetzaz, monolaboreak ezarri dira".

Beraien iritzian, multinazionalak lekualdatzeak eragin dituzte "zuzenean, gerra finantzatu dutelako", ebasketa masiboen bidez, baina baita zeharka, egoera "aprobetxatu

froga-ondorioetarako, egintza horiek legez baliogabeak direla jotzen da. Beraz, epaileak edo magistratuak egintza horiek baliogabetasuna xedatu ahal izango du. Egintza horien baliogabetasunaren ondorioz, ondorengo administrazio-egintza guztiak ere bertan behera geldituko dira eta baliogabeak izango dira, halaber, ondasun osoaren edo zati baten gainean egindako egintza eta negozio juridiko guztiak.

4. Erabaki judizialen prozesu egokiaren presuntzioa. Eskatzaileak higiezin baten jabetza, edukitza edo okupazioa, eta ondorengo gabetzea, frogatu duenean, ezin izango zaio itzultzea ukatuko, argudiatuz ondorengo epaile batek jabetza hori hirugarren baten alde eman, eskualdatu, desjabetu, amaitu edo adierazi zuela, edota jabetza erremateko diligentzia izan zela, baldin eta prozesu judiziala lekualdatzea eragin zuten mehatxuen edo indarkeriazko ekintzen garaian jarri bazen abian eta epaiak lege hau aztertzen duen prozesua amaitutzat eman bazuen.

Itzulketa-prozesuko froga-ondorioetarako, jotzen da indarkeria-ekintzek ez ziotela gabetuari funtsezko defentsa-eskubidea gauzatzeko utzi beraren eskubidearen aurkako egoera legezatu zuen prozesuan.

Ondorioz, epaileak edo magistratuak biktimaren eskubideak urratu zituzten erabaki judizialak atzera bota eta gabetua izan den biktimaren aldeko erabakia gauzatzeko eta txertatzeko doikuntzak agindu ahal izango dituzte.

5. Jabetzari egon ez delako presuntzioa. Itzuli behar den ondasunaren jabetza eta lege honek aztertzen duen prozesua amaitutzat ematen duen epaia 75. artikulua aurreikusitako garaian hasi bazen, jabetza hori inoiz gertatu ez zela joko da.

egin dutelako". "Legez kanpoko eragileek lan zikina egiten dute, jendea ateratzen dute; eta gero, arrazoi magiko baten ondorioz edo, produkzio-eredua sartzen da".

Giza Eskubideetarako eta Lekualdatzeetarako Kontsultoretzako (CODHES) kideen iritzian ere, herrialdeko eredu ekonomikoa gerra-ereduari lotuta dago eta, gainera, ez dute ulertzen zonalde batzuetan gerrak nola ez dien multinazionaleri eragiten. Paola Hurtadok, informazio-analistak, 90eko hamarkadako plan ekonomikoak jarri ditu mahai gainean. Orduan, Kanadako ekonomista batek aholkatuta (herrialdeko inbertsiogile nagusia da Kanada) erabaki zen garapenerako ezinbestekoa zela jendea landa-eremutik ateratzea.

Hurtadok gabetzearen bi arrazoi laburtzen ditu, beraren ustez horiek baitaude Kolonbiako gatazka armatuen atzean:

- Enpresei lotutako produkzio-ereduak ezartzea: erauzketa-industriak, meatzaritzakoak, energiari lotutakoak...
- Lurralde-berrantolaketa

Alberto Franco Justizia eta Bakerako Elizarteko Batzordeko kidearen arabera, zonalde horietako komunitateek (indigenek, Afrikatik etorritakoen ondorengoek, mestizoen) giza eskubideen urraketa larriak jasan dituzte, ia gehienetan lurra dela eta. Gerrarekin batera, gaur egun lekualdatze behartua eragiten duten arrazoi ekonomikoen artean hiru bloke bereizten ditu: *"Bata erauzketa-industria delakoei lotuta dago: petrolio, urrea, kobrea, molibdenoa, ura [...]; bestea nekazaritza-industriari, abeltzaintza estentsiboari, bananari, palmari eta abarrari lotuta; eta hirugarrena azpiegitura-negozioei lotuta (errepideak, urtegiak...)"*. Eta beste kasu batzuetan, gutxiagotan, gai estrategikoa ere badago: *"lurraldea pasagunea bada, halako tokiak garrantzitsuak baitira gatazkan"*.

Gogorarazi egin behar da garapen-proiektu handiek azpiegitura handiak behar izaten dituztela eta, ondorioz, errepideak, aireportuak eta energia emateko zentral hidroelektrikoak eraikitzen direla industria horiei azpiegitura eskaintzeko.

2014ko urrian, Washington DCn, Giza Eskubideen Amerikarteko Batzordearen (CIDH) 153. saio-aldian, *Garapen-proiektuen ondoriozko lekualdatzearen salaketa*¹⁰ izeneko

¹⁰ Entzunaldian Isabel Zuletek eta Miller Dussanek (Rios Vivos Mugimendua), Leiner Palaciok (Foro Interetnico Solidaridad Chocó), Johana Rochak (Tierra Digna) eta Astrid Puentesek (AIDA) hitz egin zuten. Tokiko 21 erakunderen izenean hitz egin zuten eta gogorarazi zuten duela bi urtetik hona Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordearen aurrean ohartarazi izan dutela Kolonbian urtegien eta meatzaritzako eta energiako beste proiektu batzuen ondorioak jasaten dituzten pertsonen eta komunitateen egoera.

auzialdia burutu zen. Bertan, CIDHren esku-hartzea eskatu zen, honako helburu hauekin:

- Kolonbian meatzaritzari eta energiari lotutako proiektuak atzeratu eraztea, meatzaritza- eta energia-ereduaren eraldaketei buruzko eztabaida nazionala ireki eta azken 30 urteetan ingurumenean eta gizartean egindako erasanak geldiarazteko
- Kaltetutako komunitateek jasan behar duten lekualdatze behartua aitortzea, eta komunitate horiei laguntzeko neurriak hartzea.

Hitzaldi hori egin zenean, Kolonbiako Gobernuak aurreko saio-aldian CIDHren aurrean hartutako bi akordio bete gabe zituen: lurraldearen eta ingurumenaren defendatzaileen bizitza babesteko neurriak ezartzeko esparrua sortzea, eta lurralde- eta ingurumen-eskubidea osorik babestu eta bermatuko duen garapen-politika publikoa eraikitzeko mahai iraunkorra osatzea.

Bertaratutako erakundeek salatu zuten akordio horiek ez zirela bete eta gogorarazi zuten dagoeneko berrogei auzialdi egin direla azken hamar urteotan, politika eta proiektu handiek eragindako giza eskubideen urraketei buruz.

Auzialdi horretan gatazka armatuaren eta megaproiektuen arteko harreman estua salatu, eta giza eskubideen urraketan duten ondorioak aztertu zituzten.

Bozera maileetako baten esanetan: “Aurrerabidearen aitzakiatan burutzen dira meatzaritza- eta energia-politikak, ustez lagundu nahi zaien gatazkaren biktimen euren kaltetan. Kolonbiako gizarteko eragileen parte-hartzerik gabe eraiki den aurrerabidearen nozio abstraktu hori ezin da bateratu giza eskubideekin eta baliabide naturalen babesarekin. Are gehiago, ustez lortu nahi den garapen ekonomikoarekin ere bateraezina da”.

Romerok datu deigarri bat eman du ildo horretan. Azaldu duenez, Kolonbian garapen-proiektu handien inguruan egin diren herri-kontsulta gutxietan, komunitateek halakoak ezartzearen aurkako botoa eman dute.

Auzialdian hainbat eskaera egin ziren, Kolonbiako estatuak erantzuteko. Besteak beste, Kolonbiako Gobernuari exijitu zitzaion onartu eta bete dezala lekualdatze behartuak (garapenaren ondoriozko lekualdatze behartuak ere bai) jasan dituzten pertsona guztien eskubideen errespetuarekiko eta bermearekiko duen erantzukizuna, inolako garapen-eredurik ezin delako eraiki herrialdeko giza eskubideak urratzearen gainean.

ii. Kolonbia, Latinoamerikarako eredia?

Latinoamerikako testuinguru politikoa azaletik aztertuta, elkarrizketatutako pertsonak azaldu dute lekualdatzea eragiten duten ereduak, ekonomia estraktibistetan oinarritutakoek, irauteko joera antzematen dutela. Kolonbiak barne-burgeseriarekin bat datorren estatua du, eta transnazionalen interesak ordezkatzeko du helburu.

Baina ez da soilik ildo neoliberalenaren fenomeno. Beste eredu batzuen aldeko apustua egin dutenak ere (hala nola Bolivia eta Ekuador) ildo berean doazela dirudi: batetik, euren gizarteak sendotzeko behar den metaketari begira, muturreko estraktibismora jotzen dute; eta, bestetik, megaproiektu eta azpiegitura handiak bultzatzen dituzte, estatua/gizarteak eguneratzeko. Horren ondorioz, baina, ezinbestekoa izango da barne-lekualdatze handiak eragitea.

Ziurrenik, datoen hamarkadetan Kolonbia Latinoamerikako herrialde askorentzako erreferentzia bihurtuko da ikuspegi ekonomikotik, nahiz eta eskubideen urraketak ugariak eta nabarmenak izan. Estatu Batuen geopolitikak herrialde hori aukeratu du, horixe da eskualde horretan interesatzen zaion erregimen soziopolitikoa eta, izan ere, ez zaizkio Washingtonen kanpo-laguntzak falta izango.

Alabaina, ziurrenik Latinoamerika osoan abiaraziko da, bertako baliabide itzelak direla eta, epe laburrean garatzeko asmoz, estraktibismoa sustatu eta desarrollismoa bilatuko dutelako azken buruan. Kolonbiak gainerako herrialdeekin duen borroka ekonomikoa da, baina baita politikoa eta efizientziaren eta eraginkortasunaren hegemonia lortzeko borroka ere. Desarrollismoak beste herrialde batzuetan egon litezkeen ordezkari aukerak (ongizatea, landa-bizitza, postdesarrollismoa...) baino emaitza hobek lortzen dituela frogatzen ahaleginduko da. Azken horietan gaur egungo erregimen politikoek eta haien proposamen gizatiarragoek egonkortasunez eta iraunkortasunez irautea lortzen ez badute, oso posible da Kolonbiak irabaztea borroka ideologikoa.

Elkarrizketatutako pertsonak errezeloz begiratzen diote La Habanan burutzen ari den negoziazio-prozesuari. Haien eta nazioarteko analista askoren iritzian, ez da kalte-ordainik egongo eta ez da lur-itzulketarik egongo lekualdatutako herritar ugariarentzat, eta dagoeneko gauzatuta dauden gertaerak legitimatu egingo dira. Badaude irakurketa itxaropentsuagoak ere, gaur egungo barne-botereak orekatzeko balio izango duela uste dutenak. Ez da sistema aldatuko, baina oreka, behintzat, aldatu egingo da.

Alberto Francok aurreikusten duenez, etorkizuneko eredu biztanleen kontrol masiboa ziurtatu eta, beste aldetik, lekualdatzeen izaera behartua lausotu egingo da.

Honela labur daitezke Kolonbiako giza eskubideen aldeko ekintzaileek lekualdatze behartuari buruz partekatzen dituzten ideiak:

- Lotura bat dago lekualdatze behartuaren eta interes ekonomikoen artean; hain zuzen, horrek ezaugarritu eta bereizten du Kolonbiako gatazka.
- Biktimizazioak (indarkeriak, gabetzeak, lekualdatzeak) zer-nolako pisu handia izan duen 'garapenerako' produkzio-ereduen sarreran.
- Gabetzeko berariazko estrategiak daude, lotura frogatzea zaila bada ere. Eskualdatzearen kausak eskualdearen arabera eta bertako ezaugarrien arabera aztertzeko premia, horrela fenomeno horiek identifikatu ahal izateko.
- Lurraldea berrantolatu eta eragile ekonomiko berriek egin dute sarrera, estrategikoki beraien alde diseinatutako burokraziaren laguntzaz (lurra edukitzeko moduak, produkzio-lizentziak, etab.).
- Interes ekonomiko horiek zaildu egiten dute bakea eraikitzeko prozesua.
- Pertsona batzuek diote produkzio-proiektu handiez gain, ekonomia propioa eredu estraktibistarako eta desarrollistarako mehatxu bihurtzen dela, eta horregatik erauzi beharra dutela.
- Ingurumen-krisi larria dago.
- Itzulerarik gabeko eraldaketa handiak daude, badaude guztiz besterendutako lurraldeak, eta lurraldeak eurak gatazkaren biktimatza jo behar dira.
- Estatuak ez du presentzia bera herrialdeko leku guztietan: estatua ez dago presente Kolonbia osoan.
- Oso-oso zaila eta nahasia da herrialdeko lekualdatze behartuak erregistratzea: iritzia oso lerratuta dago eta ez da onartzen lekualdatzearen kausarik, lehenago zehaztuta ez dagoenik. Biktimek urrakortasun itzela dute euren kausak azaldu nahi dituztenean.
- Barne-lekualdatzea hain da handia, mugatik kanpoko lekualdatze behartuen dimentsioa bera oharkabean gertatzen baita.
- Landa-eremuko biztanleak, indigenak eta afroak dira kaltetuenak. Herritar horiek jasan duten eskubideen gabetzearen ondorioz, oso babes gutxi dute lekualdatze behartuaren aurrean.
- Hiri arteko lekualdatze behartua ere azpimarratu da: pertsona asko bigarrenez lekualdatzen dituzte eta egoera horrek oso dimentsio larria hartu du, gainera.

- Azpimarratzekoa da lider sozialen, komunitarioen... galerak duen garrantzia; izan ere, euren jatorrizko testuinguruan, gunean, tokiko jakintsuak izaten dira baina kanpoan daudenean, aldiz, 'ez dira inor'.
- Biktimei laguntzeko eta Lurrak Itzultzeko Legeari buruzko ikuspegi desberdinak daude, baina ia analisi guztietan, lurren ebasketa legitimatzeko tresnatzat jotzen da gabetzea. Gainera, adierazi dute historikoki lekualdatzea gaindimentsionatu egin dela (lekualdatutako pertsonak baino ez ziren biktimak, eta ezkutatu egiten ziren eraildakoak, desagerrarazitakoak, bortxatuak...), baina orain lekualdatzea ezkututzen dela (ez dago lekualdatzerik; lege horren bidez ordaina hartuko duten biktimak daude)

Bizibideak eta bizimoduak desagertzea lekualdatze behartutzat kategorizatzeke, eta megaproiektuek eta fumigatzeek eragindako lekualdatzeak bistartzeko beharra ikusten da. Oinarrian ez dago eztabaidarik; kategoria hori nola eraiki da kontua.

d) Errealitate berriak, kategoria zientifiko berriak?

Mosquerak azaltzen duenez, Kolonbiako kasuak, *shockaren* kapitalismoaren¹¹ menpe dauden beste herrialde batzuetako kasuak bezala, legearen linboak, hutsuneak, azaleratzen ditu (lege-esparruko linboak ez ezik, linbo kontzeptualak ere bai): asilo-eskubideren babesean egongo ez diren pertsonak baina, aldi berean, migratzaile ekonomikoen deitura ere merezi ez dutenak.

- 1.- Erabat zabaldua dagoen indarkeriatik ihesi doazen pertsonak
- 2.- Hondamendi naturalen ondorioz lekualdatzen diren pertsonak
- 3.- Garapen-proiektu handien ondorioz lekualdatutako pertsonak

Romerok defendatzen du hautsi egin behar dela lekualdatzeak soil-soilik gatazka armatuarekin lotzen duen ideia klasikoa, komunitateak arriskuan jartzen dituzten prozesu ekonomikoak eta kapital-inbertsioak kontuan hartzen ez dituenak. Haren esanetan, produkzio-ahalmena suntsitzeagatik eta ohiko bizimoduak desagerrarazteagatik lekualdatzeak lekualdatze behartuarekin pareka daitezke.

¹¹ Naomi Kleinek, '*Shockaren doktrina*' liburuan, kasu zehatzak dokumentatzen dituen ikerketa-lanaren ondoren frogatu du indarkeriazko estrategiak erabiltzen direla neurri neoliberalak ezarri ahal izateko. Liburuan azaltzen du gizarte-asaldura handiko unen ondoren aldatu direla politika ekonomikoak herrialde askotan. Adibidez, aurretiaz prestatutako inbasio militarren eta estatu-kolpeen ondoren; herritarren artean izua eragiten duten datuak manipulatu; hondamendi naturalen ondoren gizarte-trauma handia dagoen momentuetan, etab.

Komunitateekin lankidetzan jarduten eta gatazkaren kausak eta ondorioak aztertzen urteak eman ondoren, abokatu kolonbiar horrek oso kontzeptu argigarria aipatzen du, EESKak lehen mailako eskubidetzat jotzea ekar dezakeena: bizimoduen lekualdatzea.

“Lekualdatze behartuaren kontzeptuan, nire ustez garrantzitsuak diren kategoriak galtzen dira. Ez da kontuan hartzen lekualdatze behartuaren atzean dagoen izaera ekonomikoa, hau da, lurra erabiltzeko aukera oztopatzea edota landa-eremuaren edo hiri-eremuaren gaitasun produktiboa oztopatu edo suntsitu izana. Lekualdatze behartua, halaber, bizitza-jarduerak, -eredua eta -proiektua ezin garatu izanarekin lotuta dago. Lekualdatzeko borondateari nola eragiten zaion da kontua. Jendeak euren proiektuari eutsi nahi dio baina, edozein arrazoi dela eta, ezinezkoa da, eta behin betiko gainera. Bideraezin bihurtzen da. Nire ustez, errazagoa da pertsona horiei galdetzea ea behartuta lekualdatzen dituztela sentitzen ote duten.

Ez dago lekualdatze behartuaren atzean egon diren egitura kriminalen azterketarik, eta ez dira ikertu lekualdatzearen patroiak; ez da azertu nola aldatu den lurraren jabetza eta erabilera, egitura kriminalen ondorioz.

Gainera, lekualdatze behartua, alde batetik, giza eskubideen urraketa larria da baina, beste alde batetik, lege-haustea ere bada. Hau da, lekualdatze behartuaren atzean, lekualdatzea eragin duen norbait, onuradun bat, determinatzaile bat edo, gutxienez, interes estrategiko bat egoten da”.

Grupo Semillaseko Fernando Castrillónnek (Kolonbiako kasuari buruz) dioenez, lekualdatzea estatu-kategoriaren arabera aztertzen da, baina ahaztu egiten da kulturak, gobernatzeko erak eta ekosistemetarako egokitzapenak ere galtzen direla. “ [...] nekazaritza-industriako proiektuek, megaproiektuek eragindako ekosistemen krisiari lotutako beste lekualdatze modu bat dago, batez ere nekazariei eta komunitate urrakorrei, hala nola afroen eta indigenen komunitateei, eragiten diena”. Lurralde kolapsatuei buruz hitz egiten du, “besterenduriko bizimoduei” buruz.

Kolonbian badira aparteko larritasuna duten kasuak: biztanleek bizimodua eta lurraldea goitik behera aldatuta ikusi dute, meatzaritza-sektoreko enpresak bertan sartu direlako, eta egoera horrek ingurumenean dituen ondorioak direla eta, lekualdatu egin behar izan dira. Ingurumenaren narriadura larria, batzuetan, hondamendi naturalek eragiten dute, baina beste batzuetan, -agerian dagoenez- produkzio-ereduaren ondorioz etortzen da.

CEAR-Euskadik behin eta berriro aipatu du klima-aldaketari eta hondamendi naturalei erreparatuko dien ‘ingurumen-errefuxiatuen’ kategoria berria sortzeak dakarren arriskua, baldin eta horren bidez garapenerako eredu estraktiboak lekualdatzeetan

duen eragina ezkututzen bada. Klima-aldaketak lekualdatze behartuei buruzko eztabaidan aurrera egin dela ikusten da, baina eztabaidak ez du aurrera egin horren premiazkoak diren beste lekualdatze mota batzuen kasuan.

Elkarrizketatutako pertsona guztiak bat datoz garapen-eredu estruktibista, EESKen urraketak eta behartutzat jo behar diren eskualdatzeak lotuta daudela esatean.

Memoria Historikoaren Zentro Nazionalak gomendatzen du ez sartzea "zaku berean" 'ohiko' lekualdatze behartua jasan duten pertsonak eta garapen-proiektu handien ondoriozko lekualdatze behartua jasaten dutenak, "galerak ez direlako berdinak". Bereizi egin behar direla uste dute, garrantzi handiko kategoria juridikoa ireki behar delakoan daudelako.

Nolanahi ere, esan dezakegu migrazioak behartzen dituzten eragile berriak sartzen direla tartean. Gertatzen diren biztanleria-mugimenduak ezin dira ausazkotzat edo borondatez kotzat jo, eta ezinbestekoa da nazioarteko komunitateak horretan arreta jartzea. *"Ez esan migratzaile ekonomikoak direla, soilik pobreak direlako -dio Vera Samudiok, Errefuxiatuentzako Jesulagunen Zerbitzuko kidea Bogotan-. Lotura bat identifika daiteke kausan: lan bila abiatzen dira, baina nondik datozen begiratu gero, indarkeriaren eta megaproiektuen eragina berehala antzematen da".*

Mosquera dio ACNURek nazioartearen babesak behar duten pertsonatzat identifikatutakoez gain, beste % 85 inolako babesik gabe gelditzen dela. *"[...] ziurrenik jende horrekin ez da ezer gertatutako eta ausaz edo euren baliabideez integratu beharko dira komunitateetan".*

○ Ikuspegi soziologikoa

Baliteke migrazioak, oinarrian, ekonomikoa izaten jarraitzea, baina herrialde batzuetan, hala nola Kolonbian, luzaroan mantendu diren eskemak zalantzan jartzeko arrazoi legitimoak daude. Oso gai konplexua da, migrazioa eragiten duten kausen inguruko pentsamolde zaharrak eta berriak biltzen dituen. Alabaina, kasu horiek parametro berrien bidez aztertzea komeni da, indarkeriaren presentziak (presentzia faktikoak nahiz ezkutukoak) lausotu egiten baititu orain arte giza lekualdatzeaz egindako azterketen mugak, indarkeria hain presente egon ez denean egin direnak.

Errealitate bakoitza zedarritu eta aztertzeke, abiapuntu berria behar da.

Soziologiak, baina, ohartaraz dezake ea Kolonbian masiboki eragiten den lekualdatze behartuak kategoria zientifiko berriak behar ote dituen, ohiko portaerei duten garrantzia aitortu eta migrazioen eta lekualdatzeen teoria ñabartzeko. Izan ere, askotan, egoerarekiko hurbilegi egoteak zaildu egiten du fenomenoari egoki heltzea. Adibidez, elkarrizketatutako pertsonen artean prozesu horien biktimak daude; batzuk gogor-gogor jasan dute egoera eta beste batzuk ez hainbeste. Pertsona batzuek senide asko hiltzen ikusi dituzte eta beraien ustez, estatuak tragedia horretan baimentzen dituen gehiegikeriak ikusirik, borondatezko migrazioa edo migrazio ekonomikoa egon litekeen hipotesia kontuan hartze hutsa benetako gertaeren azal-azalean gelditzea da.

Haien ustez, duintasuna errespetatu nahi bada, jasandako sufrimenduarekiko gutxieneko errespetuak ez du onartzen migrazioa banakakoaren mugimendura murriztea. Are gehiago kontuan hartuta estatuak, egiten duenagatik edo egiten ez duenagatik, babesgabetasun-esparruak onartu eta bultzatu dituela eta herritarren zati handi bat aterperik gabe bizi izatera behartu duela. Estatuak suntsitutako lurraren politika egiten du, komunitateak kanporatu eta lurra multinazionalei ematen die; hala, azken horiek asezin sartzen dira jendearen lurretan, inolako errespeturik gabe. Horregatik, pertsona askok eta askok, halako prozesuetan erabakitzeke inolako gaitasunik gabe, *“zergatik niri?”* galdetzen dute. Elkarrizketatutako pertsona batek *“hildako asko dituzte atzean”*, argitu digu.

Gizarte-zientzia guztietan, hasieran esperientzia eta ondoren zientzia badago, kasu honetan ere protagonistek euren lekualdatze behartua, barneko nahiz nazioarteko lekualdatzea, nola bizi izan duten ikustea komeni da, eta azterketa juridikoei buruzko begirada berria proposatzen dutela ikusiko dugu. Gai juridikoetako adituek, lan horri helduta, esperientzia horiek kodetu eta kategoria berrietan birkontzeptualizatzea gomendatzen dute.

Migrazioa zertan datzan ulertzeko pertzepzioa baldintzatzen duten bi elementu daude, elkarren artean nahasita eta sarri askotan bereizteko ez hain errazak. Alde batetik, migrazioa eragiten duten egiturazko kausa efizienteak daude, eta, beste alde batetik, norberaren esperientzia. Bi alderdi horietan artean konplexutasun handia dago.

Egiturazko kausak, hein batean edo bestean, determinatzailetzat jo daitezke, eta horien artean dago ea nori egotzi behar zaion lekualdatzeak eragin dituzten egiturak sortzearen erantzukizuna.

Esperientzia pertsonaletik, berriz, beste alderdi batzuk gehitzen dira, hala nola migratu duen pertsonaren politizazioa, jasandako indarkeria, gatazkan duen pertsonalizazio-maila, etab. Egia da, Thomasen Teoremari¹² jarraiki, esperientzia batzuek gertatutako fenomenoen irakurketa eta interpretazioa baldintzatzen dutela. "*Pertsona batzuek egoera bat benetakotzat jotzen badute, ondorioetan benetako izango da*". Errealitateaz egiten dugun irakurketa errealitatean bertan txertatuko da eta, hein handi batean, geroago izango dugun portaera baldintzatuko du.

Jendea kanporatzeko modu berriak direla eta, eta arpilatzeak hartu dituen fase eta modalitate berriak direla eta, migrazioaren teoria eguneratzeko komenigarritasuna ikusten da, baina, aldi berean, zailtasun metodologikoak ere badakartza horrek, oso zaila baita esperientzia dramatikoei matrize analitiko zorrotzetik heltzea.

Aditu batzuek zuzenbidearen logika eta gertaeren logika bereizten dituzte. Hain ustez, lehenengoa oso motela da eta izatezko egoerak errazten ditu; hala, hasieran *kasua* zena, gero *eredu* bihur daiteke. Kolonbiako kasuari erreparatuz gero, transnasionalek megaproiektu handien, nekazaritza-industriaren edo lurraldeaz jabetzeko beste modu batzuen bidez jarduten duten herrialde guztietara orokortzeko modukoa dela ikusiko dugu, guztietan ere, halabeharrez, biktimak eta lekualdatzeak eragiten baitira (nekazari-komunitateen, indigenen eta afroen artean nagusiki, baina ez horiek bakarrik).

Lekualdatutako pertsonen/errefuxiatuen osagarritasun hori, kontsultatutako aditu eta analistak, eta Nazioarteko Zuzenbideko elementuak, den-denak kontuan hartuta, esan dezakegu badaudela arrazoi ugari migrazioaren kausak berriz aztertzea komeni dela adierazteko. Eta, lehenago ere esan dugun bezala, Kolonbia kasu-azterketa da, etorkizunean orokorra izan daitekeena.

Agerian dagoenez, gerta daiteke etorkizuneko migrazio horietan ez ikustea Kolonbian ohikoak izan diren, eta oraindik ere badiren, modalitate batzuk: gerrillak irautea, lurjabeen zerbitzuan dagoen estatua, etab. Alabaina, beste elementu batzuk zalantzarik gabe ikusiko ditugu: oro har, hainbat egilek landutako kontzeptu berria, alegia: *baliabideen madarikazioa edo oparotasunaren madarikazioa*: zenbat eta baliabide gehiago, lekualdatze behartua jasateko aukera handiagoa, estatu-instituziorik ez dagoelako, edota haren konplizitatez gertatzen delako.

¹² Garapen aparta eta funtzionamenduaren azalpena dago kapitulu honetan: MERTON, Robert K. (México, 1964): *La profecía que se cumple a sí misma*, Teoría y Estructura Sociales lanean (505-515 orrialdeak). FCE.

Elkarrizketatutako pertsonen ustean, errealitate hori kontuan hartuta, migrazio ekonomikoetarako tarte txikia gelditzen da eta asko eta asko, gehienak, hasieratik bertatik ikus daitezke lekualdatze behartutzat, estatuak herritarrak babesgabe uztean oinarritzen den egiturazko kausen ondorioa izaten baitira. Babesgabetasun horrek, hau da, *ustez estatuak berezkoak dituen eginkizunen baztertze horrek*¹³, giza eskubideen faktore anitzeko urraketa nagusiarazten dute. Estatuak ez du babesten eta pertsonak egiturazko babesgabetasun-testuinguru orokor batean uzten ditu. Dena da politikoa, eta berez oso tarte gutxi dago faktore ekonomikoa, bere horretan, faktore autonomotzat hartzeko. Ekonomikoa ere politikoa da eta. Estatuaren esku egon beharko litzateke zalantza ekonomikoa desagerraraztea, baina bere oinarri-oinarrizko eginkizunak ez betetzeaz gain, *suntsitutako luraren politikaren ezinbesteko laguntzailea eta bultzatzailea da. Amparo Pimiento errefuxiatu eta ekintzaile kolonbiarrak honela laburtzen du bere herrialdearen kasua:*

“Gatazkak ez du lurra suntsitzen; estatuak suntsitzen du lurra, komunitate afroak, komunitate indigenak eta nekazari-komunitateak euren ingurumen naturaletik ateratzen dituenen. Lurra suntsitu eta jendea bere ingurumen naturaletik ateratzen du, gero multinazionalak hartu ahal izateko. Agerian jarri behar dugu estatuak legitimatzen duten nazioarteko kapitala. Aseezin, eurek nahi duten gisara negoziatzen dute, eta pertsonen eskubideak errespetatu gabe sartzen dira beraien lurretan”.

Lekukotasunaren sekuentzian ikus daitekeenez, estatuak ahalbidetzen ditu gainerako prozesu guztiak. Izan ere estatuak hartu eta irekitzen die bidea multinazionaleri. Multinazional horiek, aurretiaz, euren jatorrizko estatuen baimena jaso dute; badakite, halaber, eskubideak urratzen dituztela, ez dituztela espazioak eta pertsonak errespetatzen, lurrak nahiz ondasunak arpilatu eta bizimodu material eta kulturalak suntsitzen dituztela. Hala, babesik eta aterperik gabe, herritarrek Kolonbian bertan edo beste herrialde batzuetara lekualdatu beharra dute. *“Horri migrazio ekonomikoa deitzen badiogu, ez ditugu gatazkaren sustrai historikoak irakurtzen, ez ditugu irakurtzen globalizazioaren eta desjabetzeen, mundu global honetan bizi den zigorgabetasunaren sustrai historikoak.*

Lekualdatzeen onuradunak –Germán Romerok aipatzen dituen egozleak– zigor gabe gelditzen dira, eta lekualdatutako pertsonak, berriz, kriminalizatu egiten dira.

¹³ Elkarrizketa guztietan edo askotan agertu da estatuak historikoki ez diola jaramonik egin herritarren ongizateari, eta arbitrarioki aritu dela alderdi baten alde. Beste alde batetik, lekukotasun guztietan antzeman daiteke estatuaren ikuspegi aingerutarra, interes-gatazketan neutrala izatea eskatzen baitaia.

Kolonbiako kasuan, Romerok azaldu du 2010. urtera arte, lekualdatze behartua 10 urtez legean araututa egon ondoren ere, ez zela kondena bakar bat ere egon: *“Egunero behartzen dira lekualdatzeak. Alabaina, Kolonbiako Justizia Administrazioak ez du inoiz erantzunik eman [...] Ez da inoiz testuinguruan aztertu, ez patroï batzuetan oinarrituta, ez orokortasunean oinarrituta, ez egitura kriminaletan oinarrituta, ez onuradunen ikuspegitik, ez lekualdatze behartuaren determinatzaileen ikuspegitik. Kolonbian oraindik ere ez da ezer egin. Oraindik ere ez da ikerketa handirik egin jakiteko zer egon zen mandoa hartu eta lurra utzi behar izan zuen pertsonaren egoeraren atzean. Ez dago horren atzean zer dagoen esango duen zigor-ikerketarik”*.

Elkarrizketatutako pertsona askoren ustez, jazarpena bizi-baldintzen indarrezko eraldaketaren atzean dago. Besterik da ikuspegi juridikotik jazarpen hori zehaztu, pertsonalizatu eta identifikatu egin behar dela, horrela nazioartearen babeserako tresna batzuek aitortu dezaten. Santiagoren hitzetan, *“[...] estatuak bizi irauteko oinarritzko gizarte-eskubideak bermatzen ez dizkion pertsona jazarritako pertsona da. Horixe baita jazarpena: funtsezko eskubideak borondatez mugatzea, hori saihesteko aukera egonik. Duintasunez bizi izateko aukerarik ez dagoen egoera horietan guztietan indarkeria motaren bat dago eta horren ondorioz mugitu behar izan duen pertsona errefuxiatutzat edo barne lekualdatutzat hartu behar da.*

Alabaina, oso zaila da gai hori objektibitzea. Berdin dio eskubide zibil eta politikoak izatea edo eskubide ekonomiko eta sozialak izatea; pertsona batek esaten badu “ihesi nator talde paramilitarrak jazartzen nauelako” eta hori egiaztatzeko udal langileen egiaztagiria baino ez badu, egiaztatuta dago; eta berdin-berdin egiaztatuta dago duela hamar urte egiturazko sikatea jasaten duen eskualde batetik datorren pertsonaren kasua. Esan nahi dut biak ala biak subjektiboak direla. Eginkizun tekniko-juridikoa da hasiera batean subjektiboa den egiaztapen baten atzean zer objektibizatu daitekeen azaleratzea. Gertaerak eurak, askotan, emaitzak izaten dira eta jazarpena egiaztatu ahal izateko pista ematen dute. Baina beti izaten da konplexua; izan ere, termino juridikoetan frogatzeko, logika- eta arrazonamendu-prozesua burutu behar duzu [...]”.

Aurreko karakterizazioak laburtzen du aztertzaile batzuek bultzatzen duten paradigma-aldaketa, mugikortasun berriak edo testuinguru zehatz batzuetan berriazkoak direnak aipatzen dituztenean. Izan ere, mugikortasun mota horietan fenomeno batzuk batera eman edo kausa izaten dira, hala nola estaturik ez egotea (edota eragile ekonomikoekin bat jarduten duten estatu korporatiboak egotea), bai eta *baliabideen madarikazioa* ere. Ikuspegi horretatik azaltzen da egindako jarrera-aldaketa,

behartzea zer den eta tartean zer eskubide dauden zedarritu nahi direnean. Hala, lekualdatzea behartua dela jotzeko Nazioartearen babes Zuzenbideak erabiltzen duen interpretazio klasikoaren ikusmolde estu eta mugatua bertan behera uztea eskatzen dute.

Horrenbestez, bi aukera daude: gertaera eta araudiei muzin egitea ala, logikoagoa dirudiena, eskubideak ulertzean eten teorikoa sortzea. Hain zuzen ere, gaur egun esparru teorikoan gertatzen den borroka politikoa eta ideologikoa izaten jarraitzen du horrek. Lekualdatzeen kopuru handia estatuaren baitan geratzen bada eta nazioartearen babesa gero eta mugatuago interpretatzeko joera badago, kategoriak estu gelditzen dira eta eztabaida berriak irekitzeko premia azaleratzen da.

Bizi dugun eztabaida horretan bi pentsamolde daude aurrez aurre: batetik, herritarren eskubideak interpretatzeko modu tradizionala, mendebaldekoa, dago; eta bestetik, ikuspuntu tekniko-juridiko huts batetik errealitate zehatz batzuei eman behar zaien deitura. Logika berri horretan ez da baztertzen migratzaile ekonomikoak egon daitezkeenik, baina eskubideak osotasunean ulertzeko posiziotik aztertuta, garrantzi gabeak izango lirateke. Horregatik, eta lehen aurreratu dugun bezala, halako kasu batean *benetan* aukera egin ahal izan duen pertsonaren kasua "hutsala" da lekualdatzera behartu duten pertsonaren kasuaren aldean. Aukeratzeko ahalmena, kasu horretan, norberaren adierazpen hutsaz harago doan benetako ahalmena da.

Santiagok laburtzen du irizpide berri hori: “[...] *migratzaile ekonomiko bat ‘stricto sensu’ balego, arrazoi ekonomikoak tarteko, beste herrialde batean abentura migratzaileari heltzeko ahalmena duen pertsona izango litzateke [...]’*”.

Arriskua zera da: kasu batzuetan, hala nola Kolonbian, migrazio ekonomikorik ez dagoela ondorioztatzea. Kolonia barnean, ia oharkabean gertatzen den lekualdatze behartu itzelarekin batera (zifra ofizialek ez baitituzte jasotzen lan honetan aipatzen diren fenomenoak), badago borondatezko migrazio handia ere, baina fenomeno hori normalizat, naturalizat jotzen denez, ez du eragin kezkarik gizartean edo zientzialarien artean.

Normaltasun horrek bi arazo interesgarri eragiten ditu: batetik, migrazioa ez aztertzeko arriskua dago, garrantzirik gabea delakoan; alabaina, lekualdatzeek ez dute migrazioa estali behar. Beste alde batetik, lekualdatzeek garrantzi handiagoa hartzen dute, kopurua eta larritasuna kontuan hartuta. Hain zuzen, kopurua dela eta, Kolonia da munduan lekualdatze-tasarik handiena duen bigarren herrialdea. Baina tasak ez

ezik, beste gauza batek ere kezkatu behar gaitu: haren etiologiaren larritasunak. Lekualdatzea politikan eta gizartean jarduteko modua izan da, eta bada.

Sektore menderatzaileek euren arma eta eragile ugarien bidez garatzen dituzten politika ekonomikoek pertsoneri eragindako kalteak –besteak beste lekualdatzeak– ez du inolako kezkarik eragiten beraiengan. Baina onartezina da lekualdatzea datorkigun desarrollismoaren jardunbidea bihurtzea.

Nola gainditu egoera hori? Elkarrizketatutako pertsonen iritzian, giza eskubide guztiak bermatuko dituen estatu baten bidez. Hau da, gizarte osoaren alde, eta ez bakarrik gizartearen zati baten alde, arituko den estatu gisa hezurmamitu behar da borondate politikoa. Gainera, estatuaren jarduera hori eskubide guztiak kontuan hartuta ebaluatu behar da. Lekualdatzeko arrazoiak berrikusita daude eta, orain, arrazoi horiek guztiak kontuan hartu eta pertsona guztiek euren gaitasunak garatzeko eta bizitza duina izateko benetako aukera bermatu behar da.

Arrazoiak berrikusi ondoren, egiturak ere berrikusi behar dira, giza eskubideen mailan egon daitezen. Lekualdatzeko kausa dira eskubide zibil eta politikoak, baina horren tamainako kausa dira, halaber, eskubide ekonomiko, kultural eta sozialak. Programa minimoan, behintzat urrakortasun-egoera murriztea da kontua. Eta, programa maximoan, pertsonen eta kolektiboen dimentsio sozialak, ekonomikoak eta kulturalak erasorik izango ez duten ziurtasuna izatea. Pertsona bati bere bizimoduan oinarrituta bizitza duina garatzeko aukera ukatzen bazaio, duintasuna eta berezko gizatasuna ukatzen zaizkio. Horregatik, kausa berriak azaleratu direnean, egitura berriak eta asmo zaharrak behar dira; alegia, pertsonaren duintasuna bermatzea.

Gure ustez, interesgarria da lekualdatzeen modalitate zaharrak eta berriak, batzuen eta besteen arteko jarraitutasuna eta sortzen dituzten kausa eraginkorrak kontuan hartuko dituen strategiari heltzea.

Esan dugu soziologiarako ez da dela berdina gizarte-hertsadura eta egiturazko indarkeria; izan ere, gizartearen zati handi batek hala joz gero, biak ala biak sozialki legitimoak izan arren, lehenengoak gizarte-ordena egongo dela bermatzen du eta bigarrenak, berriz, erraz gaindi dezake berme horren onarpenaren marra. Gerta daiteke, halaber, bata nahiz bestea ez-legitimoak edo erdi-legitimoak izatea. Alabaina, azken buruan, zer izango litzateke berria? Hiru plano bereizitan kokatuta dauden hiru eztabaida dira:

1. Metaketaren era kapitalista berriak merkatu-zokoak bilatzen ditu eta ez du bere jarduera mugatzen Hegoalde globalaren eta etorkizuneko belaunaldien beharrianen arabera.
2. Eskubideak eta estatuaren eginkizuna ulertzeko beste modu bat dago, egoera berriari erantzun juridikoa eman beharri buruzko iritzi berria dagoen bezala.
3. Oharkabean gertatzen diren lekualdatze behartuak identifikatu eta seguruenik asiloarena ez den beste kontzeptu batean sartu beharko dira, nahiz eta horietako asko asiloaren kontzeptuan aise kokatzeko modukoak izan.

EESKen formulazioak egokia dirudi eta leku batzuetan, hala nola Kolonbian eta kapitalismoa *shock* formulen bidez ezartzen den beste herrialde askotan, urratzen diren giza eskubideak ulertzeko modu berria izango dela ematen du. Oraindik ere hertsaduraren intentsitatearen inguruko zailtasunak ditugu, baina ez dago zalantzarik pentsamolde eta birformulazio berriak daudela. Eta, gure ustez, pentsamolde berri horiek “*jarrera-aldaketa*” dakarte, eskubideen unibertsoari begiratzeko era berria. Alde batetik, ikuspegi hori irekitzen duen ikuspuntua dugu eta, beste aldetik, indar teorikoen eta politikoen (baina batez ere azken horien) indar-korrelazioaren ondorioz espazio juridikoa ezartzeko aukera. Jarrera-aldaketaren formulazioak ez du zalantzarik uzten.

○ Puntu eta jarraia: ondorio partzialak

Elkarrizketatutako pertsonetako asko bat datoz ikuspegi horrekin eta, beraz, bi ondorio partzial ditugu:

1. Biztanleria-mugimenduetan borondate-maila txikia ikusten da. Zeharka halakorik egon dela onartu arren, eta migrazio ekonomikoak egon badaudela onartu arren, lekualdatze behartuen bolumenaren aldean hutsalak direla jotzen da.
2. Estatu osoko babesik ez ematearen erantzulea dela jotzen da, batzuetan eskubideak urratzen dituelako eta beste batzuetan, urrakortasuna babesgabe utzi edo murrizten ez duelako. Kontuan hartu beharreko eskubideen gaineko egiturazko indarkeria-maila handiak bere horretan irautearen erantzulea da, eta horietako edozein izan daiteke lekualdatze behartuaren kausa.

Kausa horietan oinarrituta, geroago aztertuko ditugun hainbat alderdi ondoriozta ditzakegu. Honela azal daiteke laburtuta:

1. Kolonbian eta shock bidezko kapitalismoa ezartzen duten beste herrialde batzuetan gertatzen den lekualdatze behartua dela eta, migrazioari buruzko teoriak goitik behera berrikusi behar dira, ez migrazio ekonomikoei lotutako gaiak aldatzeko, baizik eta lekualdatze behartuari buruzko teorian sakondu eta osatzeko.
2. Migrazioetan dagoen hertsadurak, askotan, ez du borondatezkotasuna ezabatzen. Adibidez, horixe gertatzen da gaur egun Espainiako nazionalitatea duten pertsonak Europara joaten direnean, bai eta Kolonbiako biztanle asko Espainiara etortzen direnean ere.
3. Migrazio ekonomikoak hein batean baino ez du partekatzen azterketa-eremua lekualdatze behartuarekin. Horregatik, lekualdatze behartua zer den argi eta garbi zehaztu behar da; haren etiologia zein den, eta Kolonbia landa-lanerako eremu egokia ote den.
4. Fenomenoa hobeto zedarritzeko, garrantzitsua da lekualdatze behartua eta asiloa bereiztea.
5. Ukaezina da estraktibismoari, eraikuntza handiei eta nekazaritza-industriari lotutako kausak biztanleen gaineko indarkeria erabiltzeko esparru *egokiak* direla, eta horren ondorioz lekualdatze-prozesuaren protagonista bihurtarazten dituela.
6. Bi eztabaida bereizi behar dira: bata lekualdatze behartuak eragiten dituzten kausen ingurukoa. Bestea, eskubideen banaezintasuna defendatuko duen gizarte-mugimendua zabaltzeko moduari buruzkoa; izan ere, eskubide zibil eta politikak kentzea bezainbesteko urraketa da eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoak kentzea ere.

○ Eskema orientagarria

JATORRIA	MUGIMENDUA				
HERTSADURA	MIGRAZIOA	NAZIOARTEKOA	SELEKTIBOA	ATZERRITARRA	
			BEHARTUA	'MIGRATZAILEA'	
		BARNEKOA			
URRAKETA	MUGIKORTASUN BEHARTUA	NAZIOARTEKOA	ESTATUAK EZ DU BABESTEN	MOTIBAZIOA	BABESA
				LEKUALDATZE BEHARTUA OHARKABEAN	
		BARNEKOA	BARNE LEKUALDATZEA (BEHARTUA)		

2. kapitulua. Lekualdatze behartuaren karakterizazioa Nazioarteko Zuzenbidearen tresnetan

a) Asilo 'politikoa' desmuntatzen: EESKiekiko begirada, asilo-eskubidearen ikuspegitik

i. Geneva interpretatzeko eskema

b) Nazioarteko Zuzenbideko beste tresna batzuk

o Asiloa

i. Tresnen laburpen-koadroa

ii. Errefuxiatu definizioaren eskema, aipaturiko tresnetan oinarrituta:

o Barne-lekualdatzea

i. Aipaturiko tresnen laburpen-koadroa

c) Europa: babes-tresnak

o Zuzentarauak

o Ez itzularazteko printzipioa

d) Eztabaida Amerikan

2. kapitulua. Lekualdatze behartuaren karakterizazioa Nazioarteko Zuzenbidearen tresnetan

Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen esparruan, lekualdatze bat behartutzat jotzeko¹⁴, pertsona bat errefuxiatutzat, nazioartearen babes merezi duen pertsonatzat edo herrialde barneko lekualdatutzat jotzen duten tresnak hartu behar dira oinarri. Halere, ez dago irizpide garbirik biztanleria-mugimendua behartua dela jotzeko erabakitzen lagunduko duenik, artikulatu beharreko babeserako tresna juridikoa nahiz pertsonak hartuko duen estatus juridikoa edozein izanda ere.

Tresna guztiek ez dituzte kausa berdinak jasotzen. Barne-lekualdatzeei buruzkoak zabalagoak dira (nahiz eta gero nazioko legerietan mugatu) eta, tresna horien arabera behartutzat jo daitezkeen arren, migrazio-mugimendu batzuk boluntariotzat edo ekonomikotzat jotzen dira.

Giza Eskubideen interpretazioan dagoen joera horrek urrakortasun juridikoan uzten ditu kapitalismo neoliberalaren eta krisi ekologikoaren esparruan nabarmentzen ari diren migrazio-mugimenduetako asko. Eskualde-mailako tresna batzuk aurrerapauso gisa hartu behar badira ere, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen urraketa kontuan hartuko duen lekualdatze behartuaren definizio inklusiboa adostu beharra dago.

Europako testuinguruan, bereziki Espainiako estatuan eta Europako hegoaldeko beste herrialde batzuetan (baina ez bertan bakarrik), nazioartearen babes-eskubidea migrazioaren testuinguruan kokatzeko joera handia sumatzen dugu¹⁵: hau da, Errefuxiatu Estatutuari buruzko 1951ko Genevako Konbentzioaren eta haren bidez sortutako beste tresna batzuen irakurketa estua egiten da, eta 'migratzailetzat' edo 'migratzaile ekonomikotzat' sailkatzen dira Genevako testuinguruan lekurik ez duten pertsona guztiak, nahiz eta Europako tresnen arabera edota beste eskualde-mailako tresna batzuek ezarritako premisen arabera, lekualdatze hori behartutzat hartzeko baldintzak egon.

14 Migrazioen Nazioarteko Erakundeak honela definitzen du migrazio behartua: *Termino generiko horren bidez deskribatzen da atzean hertsadura (bizitzaren eta biziraupenaren gaineko mehatxua barnean hartuta) duen pertsonen mugimendua, dela kausa naturalen ondorioz, dela giza kausen ondorioz. Adibidez, errefuxiatuen eta barne-lekualdatuen mugimendua, bai eta hondamendi naturalen eta ingurumen-hondamendien ondorioz, hondamendi nuklearren edo kimikoen ondorioz, gosetearen eta garapen-proiektuen eta abarren ondorioz lekualdatutako pertsonak ere.*

15 'Migrazio-fenomenotzat' aztertzea biztanleriaren mugimendu behartuak. Fenomeno bati beste baten ezaugarriak esleitzea.

Errefuxiatu Estatutuari buruzko 1951ko Genevako Konbentzioaren arabera¹⁶, “Errefuxiatutzat jotzen da bere arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edo iritzi politikoengatik jazarpena pairatzeko beldur izateko arrazoiak dituen pertsona oro, bere nazionalitateari dagokion herrialdetik kanpo dagoena, eta beldur hori dela-eta herrialde horren babesaren izan ez dezakeena edo izan nahi ez duena”. Berrikitan izandako interpretazioei esker, genero-arrazoiengatik jazarpena ere asilo-kausa izan daiteke¹⁷.

Garrantzi berezia du *jazarpen* kontzeptuak, *jazarpena pairatzeko arrazoizko beldurra* duten pertsonak soilik izan baitaitezke errefuxiatu. Esan daiteke Konbentzioaren ildoan, jazarpenak edozein “*kalte larri*” hartzen duela, baldin eta jaioterriko estatuak emandako babesean hutsik badago. Jurisprudenzian oinarrituz gero¹⁸, gaur egun adostasun zabala dago kalte larriaren edo jazarpenaren inguruan; hala, giza eskubideen urraketa larria, iraunkorra edo sistematikoa jotzen da halakotzat.

Pertsona bat errefuxiatutzat onartzeko, *motibazioa* funtsezko kontzeptua izan daiteke. Genevako Konbentzioaren arabera, arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, gizarte-talde zehatz bateko kide izateagatik, iritzi politikoengatik edo genero-kontuengatik eskubideen urraketa larria, iraunkorra edo sistematikoa jasaten duten pertsonak bakarrik jo ahal dira errefuxiatutzat.

a) Asilo ‘politikoa’ desmuntatzen: EESKIEkiko begirada, asilo-eskubidearen ikuspegitik

Espainiako estatuan, eta CEAR-Euskadik egindako lanaren eskarmentuan oinarrituta, badakigu errefuxiatuei buruzko herritarren iruditerian bi pertzepzio indartsu daudela.

16 Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Hitzarmena, 1951. **1. artikulua.**- ‘Errefuxiatu’ hitza definitzea: A.2)-arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edo iritzi politikoengatik jazarpena pairatzeko beldur izateko arrazoiak dituen pertsona oro, bere nazionalitateari dagokion herrialdetik kanpo dagoena edo nazionalitateari ez duena, eta beldur hori dela eta, ohiko bizileku izan duen herrialdera ezin itzul daitekeena edo itzuli nahi ez duena.

1967an New Yorken prestatutako Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Protokoloak 1951ko Genevako Konbentzioa osatzen du. Konbentzioan erabakitako denbora- eta geografia-murrizketa, bi Mundu Gerren ondorioei erantzuteko prestatu zena, kendu zuen; hain zuzen ere, errefuxiatuak Europan 1951ko urtarrilaren 1a baino lehen izandako gertakizunei lotutakoak baino ez zirela zioena.

¹⁷ Generoa ez da agertzen jazarpen ‘arrazoitzat’ 1951ko Genevako Konbentzioan, baina asilo-kausatzat aitortzen zabala du, eta horrelaxe onartzen da, gainera, 2011ko Aitortzari buruzko Zuzentarauan eta 2009ko Asilo Legean.

¹⁸ 1993ko Ward vs. Kanada auzia aipa daiteke. Izan ere, auzi horretan, Kanadako Auzitegi Gorenak zera ebazti zuen: “Konbentzioaren atzean dago nazioarteko komunitateari emandako agindua, oinarritzko giza eskubideak diskriminaziorik gabe berma dituzan [...]. Konbentzioko testuan definitu gabeko ‘jazarpenari’, esate baterako, oinarritzko giza eskubideak sistematikoki eta modu iraunkorrean urratzearen esanahia esleitu zaio, eta horren bidez Estatuaren babesaren porrota frogatzen da.

Alde batetik, gudatik ihesi, ACNURen edo nazioarteko erakundeen laguntzaz kanpamendu handietan bizi diren pertsonak dira: Sahara, Sudan, Palestina, Siria... Horietako asko jaioterrian bertan kokatuta daude eta beste batzuk inguruko herrialdeetan. Beste alde batetik, erbestearen iruditeria dago: Latinoamerikako diktaduretatik, Francoren diktaduratik... ihesi joandakoak; erregimenari aurre egiteagatik, lan politikoagatik, ekintzan jarduteagatik jazarritako pertsonak dira.


Oraindik ere 'politikoa' abizena gehitzen zaio asiloari, eta, horregatik, bereizi egin behar ditugu pertsonak ihesi egitera behartu dituzten kausak eta urratutako eskubideen nolakotasunak. Genevako Konbentzioaren esparru estuan, interpretaziorik kontserbatzaileenetan ere, ezerk ez du zehazten norbaitek arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, gizarte-talde bateko kide izateagatik eta iritzi politikoengatik (edo generoagatik) jasandako jazarpena pertsonen eskubide zibil edo politikoak urratuz gauzatu behar denik. Hau da, Kolonbiako ipar-mendebaldean dagoen Curvaradóko komunitate beltza, lurralde- eta enpresa-interesen ondorioz eta Estatuaren oniritziz, bizi izatea bera ukatzeko punturaino eskubide sozial eta ekonomikoetatik gabetzen dutenean (eskola, osasun, elikadura, etab.), Genevako Konbentzioran sartzeko moduko jazarpena jasaten duela pentsa dezakegu¹⁹.

Giza eskubideen urraketa (eskubide zibil eta politikoak nahiz eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalak kontuan hartuta) jazarpenzat har daiteke eta pertsona herrialde barneko lekualdatu edo errefuxiatu bihurtu, gertaera hori zer baldintzetan gertatu den kontuan hartuta. Ingurumenaren narriadura larriak beste eskubide batzuen urraketa badakar (osasunerako, elikadurarako, enplegu duinerako eta abarrerako eskubidea), hori ere jazarpena izan daiteke.

Honako eskema honen bidez labur daiteke EESKen inguruan eta asilo-eskubidearen inguruan lanean hasi ginenetik CEAR-Euskadik 1951ko Genevako Konbentzioaz egin duen interpretazioa:

¹⁹ SALINAS, Yamile. (13 de marzo de 2011): *El Caso de Jijuamiandó y Curvaradó: ¿estrategia criminal vinculada a un modelo de desarrollo económico*, La Silla Vacía.

○ **Geneva interpretatzeko eskema**



Ikusiko dugu eskualde-mailako beste tresna batzuek Genevak planteatzen duen errefuxiatuaren nozioa zabaltzen dutela, eta barne-lekualdatzearen nozioan, lekualdatzea ezaugarritzen duten kausak askoz ere zabalagoak direla eta ez direla motibazio baten menpe gelditzen. Baina, aurretiaz, Geneva aipatu nahi dugu; izan ere, bera da asilo-alorreko giltzarria, tresna loteslea Europan eta munduko herrialde gehienetan, eta haren gainean eraiki da migrazioa eta asiloa bereizten dituen pertzepzio sozial historikoa.

CEAR-Euskadiren ustez, oso garrantzitsua da Genevaren benetako zentzua nahasten duen iruditeria: arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, iritzi politikoengatik eta gizarte-talde bateko kide izateagatik giza eskubideak urratzen direlako babesteak ez du esan nahi soil-soilik eskubide zibil eta politikoen urraketaren aurkako babes eskaini behar denik.

Marta García Cienfuegos eta Juan Carlos Arnáizek, Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Espainiako Goi Komisariotzako (ACNUR Espainiako) kideek, Genevako Konbentzioarekin loturarik ote dagoen sakontzearen alde egiten dute, baina ildo beretik azpimarratzen dute pertsona batek errefuxiatutzat hartzeko baldintza betetzen ez baditu ere, horrek ez duela esan nahi babesik behar ez duenik. “[...] Konbentzioarekiko loturarik ez badago, ezin izango litzateke aplikatu. Baina horrek ez du esan nahi pertsona hori babestu behar ez denik. Pertsona bat ingurumen-hondamendi baten ondorioz edo beste eskubide-urraketa baten ondorioz lekualdatu behar izateak ez du esan nahi babesik behar ez duenik.

Paloma Favieres abokatuak, CEAREko talde juridikoko kideak, azpimarratzen du zaila dela zehaztea nor den lekualdatutako pertsona eta nork duen lekuan Genevako Konbentzioaren esparruan. “Nik oso argi ikusten dut migrazio ekonomikoaren eta lekualdatze behartuaren arteko muga, baina ez ditut horren argi bereizten lekualdatze behartua eta asiloa. Eskubideen zer urraketa egin behar da lekualdatze hori behartutzat jotzeko? Eskubide bat urratzen delako bizilekua utzi behar izatea noiz bihurtzen da lekualdatze behartua? ”.

b) Begirada Nazioarteko Zuzenbidearen bestelako tresna batzuei

o Asiloa

Afrikako Batasunerako Erakundearen 1969ko Konbentzioak²⁰, 1996ko Bangkokeko Printzipioek²¹ eta Errefuxiatuei buruzko 1984ko Kartagenako Adierazpenak²² (azken

²⁰ Afrikako Batasunerako Erakundearen Konbentzioa, Afrikako errefuxiatuen arazoaren alderdi bereziak arautzeko. Addis Abeba 1969. 1951ko Genevako Konbentzian jasotako errefuxiatuaren definizioa jaso eta honako hau gehitzen du: 1.2. ‘Errefuxiatua’ hitza erabiliko da, halaber, kanpoko eraso baten, atzerriko okupazioaren edo menderakuntzaren, edota jatorriko edo nazionalitateko herrialdeko edozein lekutan ordena publikoa larri nahasten duten gertaeren ondorioz, bizilekua utzi eta bere jaioterritik edo nazionalitatea duen herritik kanpora joatea behartuta dagoen pertsonekin.

²¹ Errefuxiatu statusari eta trataerari buruzko Bangkokeko Printzipioak Lege Kontsultarako Asiako eta Afrikako Erakundeak prestatu zituen 1966an. 1951ko Genevako Konbentzioen eskualdeko alternatibatzat sortu ziren, eta hauxe zehazten dute: *Errefuxiatua da arrazagatik, koloreagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, jatorri etnikoagatik, generoagatik, iritzi politikoagatik edo gizarte-talde sozial bateko kide izateagatik jazarpena jasan duen edo jazarpena jasateko arrazoizko beldurra duen pertsona. Eta bereziki: (a), jaioterriko herrialdea, nazionalitatea duen herrialdea edota, nazionalitate ez balu, bizitokitza ohi zuen herrialdea uzten duena, edota (b) estatu edo herrialde horretatik kanpo egonik, ezin duena edo ez duena nahi herrialde horretara itzultzerik, edota haren babes jasozerik. ‘Errefuxiatu’ hitza erabiliko da kanpoko eraso baten ondorioz, atzerriko okupazioaren edo menderatzearen ondorioz, edota jaioterriko edo nazionalitatea duen herrialdeko osoko edo zati bateko ordena publikoa larriki asaldatzen duten gertaeren ondorioz, ohiko bizilekua utzi eta jaioterritik edo nazionalitatea duen herrialdetik kanpora babes bila jo behar duen pertsona guztiekin. [...]*

biek ez dute izaera loteslerik) zabaldu egin zituzten 1951ko Genevako Konbentzioaren arabera pertsona bat errefuxiatutzat jotzeko kausak. Kartagenako Adierazpenak kanpotiko eraso batetik, indarkeria orokortutik, barne-gatazketatik, giza eskubideen urraketa masibotik eta ordena publikoa larriki asaldatzen duten edozein egoeratik ihesi doazenak hartzen ditu errefuxiatutzat. ABEn Konbentzioak eta Bangkokeko Printzipioek, era berean, atzerriko okupazioa eta menderatzea ere hartzen dute aintzat eta, azken horien kasuan, gainera, generoa, kolorea eta jatorri etnikoa ere hartzen dituzte jazarpen-arrazoitzat.

Azken hiru tresna horiek Genevan planteatutako jazarpen-arrazoiak (besteak beste, giza eskubideen urraketa masiboa, indarkeria orokortua eta barne-gatazkak) zabaltzen dituzte.

Pertsona jatorrizko herrialdetik irteten denean eta haren estatuak babesik eskaintzen ez dionean (jazarpena sustatzen duelako, onartu egiten duelako edota ezin duelako edo ez duelako babestu nahi) abiarazten da asiloa. Pertsona horrek jatorrizko herrialdean (edota nazionalitatea duen herrialdean) irauten badu, barne-lekualdatzeen aurkako babes-bideak aktibatu beharko lirateke (aurrerago aztertuko ditugu).

i. Tresnen laburpen-koadroa

1951ko Genevako Konbentzioa	Jazarria izateko arrazoizko beldurra
	Arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik eta iritzi politikoengatik.
2011ko Aitortzari buruzko Zuzentaraua ²³ 2009ko Asiloari buruzko Legea ²⁴	+Generoa.


²² Errefuxiatuei buruzko Kartagenako Adierazpena, 1984. Hirugarren ondorioa: *Azpimarratu egin behar da Erdialdeko Amerikan errefuxiatuen mugimendu masiboen ondorioz, ezinbestekoa dela errefuxiatu kontzeptua zabaltzea, kontuan hartuta, eskualdean dagoen egoeraren ezaugarrien baitan, Amerikaren Batasunerako Erakundearen Konbentzioran zehaztutako aurrekaria (1. artikuluan, 2. paragrafoan), bai eta Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordearen Txostenetan erabiliko doktrina ere. Hartara, eskualde horretan erabili beharko litzatekeen errefuxiatuaren definizioaren edo kontzeptuaren arabera, 1951ko Genevako Konbentzioaren eta 1967ko Protokoloaren elementuak jasotzeaz gain, errefuxiatutzat hartu behar dira, halaber, indarkeria orokortuaren ondorioz, kanpoko eraso baten ondorioz, barne-gatazken ondorioz, giza eskubideen urraketa masiboaren ondorioz edo ordena publikoa larriki asaldatu duten beste gertaera batzuen ondorioz, euren herrialdea utzi behar izan duten pertsonak.*

²³ 2011/95/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2011ko abenduaren 13koa, arlo hauei buruzko arauak ezartzen dituena: beste herrialde bateko nazionaleri edota herrigabeei nazioarteko babesa aitortzeko baldintzei buruzkoak, errefuxiatuentzako edota ordezkoi babesa izateko eskubidea duten pertsonentzako estatutu bateratu bati buruzkoak, eta emandako babesaren edukiari buruzkoak.

²⁴ 12/2009 Legeak, urriaren 30ekoak, [asilo-eskubidea](#) eta ondoriozko babesa arautzen duenak, horrela jasotzen du, nahiz eta bigarrenaren kasuan beste arrazoi batzuen inguruko mugaketa batzuk izan.

	nazionalitatea duen herrialdetik kanpo dago eta, beldur horiek direla eta, ez du herrialde horren babespean jartzeko aukerarik
	Kontzeptua honako hauengatik jazarritako pertsonengana zabaltzen da:
1966ko Bangkokeko Printzipioak	kolorea, jatorri etnikoa, generoa;
1966ko Bangkokeko Printzipioak 1969ko ABeren Konbentzioa	okupazioa; atzerriko menderatzea;
1969ko ABeren Konbentzioa 1984ko Kartagenako Adierazpena 1966ko Bangkokeko Printzipioak	atzerriko eraso. ordena publikoa larri asaldatzen duten gertaerak eta egoerak
1984ko Kartagenako Adierazpena	indarkeria orokortua barne-gatazkak giza eskubideen urraketa masiboa

ii. Errefuxiatuaren definizioaren eskema, aipaturiko tresnetan oinarrituta:



○ Barne-lekualdatzea

Eskuarki, asiloa eta barne-lekualdatzea bereizteko elementutzat jotzen da nazioarteak aitortutako muga zeharkatzea. Horixe izango litzateke, funtsean, fenomeno bata eta bestea bereizteko gaia. Alabaina, barnean lekualdatutako pertsonen babeserako tresnei erreparatuz gero, ikusiko dugu asilo-eskubidean jasota ez dauden gaiak jasotzen dituztela.

1998ko Barne-lekualdatzeen Printzipio Gidariak²⁵ dira erreferentziako tresna eta, bestek beste, gatazka armatuaren, indarkeria orokortuaren, giza eskubideen urraketaren, hondamendi naturalen eta gizakiak eragindako hondamendien ondorioak aipatzen dituzte. Berariaz debekatzen dituzte apartheid politiketan oinarritutako lekualdatze arbitrarioak, 'garbiketa etnikoa' eta antzeko praktikak: gatazka armatuetan, ez bada zibilen segurtasunak hala eskatzen duela edota nahitaezko arrazoi militarrek daudela tartean; eskala handiko garapen-proiektuen kasuan, interes publiko handiago edo funtsezko batek justifikatzen ez baditu; hondamendien kasuan, kaltetutako pertsonen segurtasunak eta osasunak lekualdatzea eskatzen ez badu; eta zigor kolektibo gisa erabiltzen direnean.

9. printzipioak ezartzen du herri indigenen, nekazarien, artzainen eta lurrarekiko mendekotasun edo lotura berezia duten taldeen lekualdatzeetatik babesteko neurriak

²⁵ Herrialde barruko Lekualdaketei buruzko Printzipio Gidariak. Irismena eta asmoa: 2. *Printzipio hauen ondorioetarako, herrialde barneko lekualdatuak dira etxetik edo ohiko bizilekutik ihes egitera behartutako pertsonak edo taldeak, batez ere gatazka armatu, indarkeria orokortu, giza eskubideen urraketa edo naturak edo gizakiak eragindako hondamendien eraginez edo haren ondorioak saihesteko, nazioarteak onartutako estatu-mugarik zeharkatu ez dutenean.*

6.1. printzipioa: Gizaki orok du etxebizitzatik edo ohiko bizilekutik urrunduko duten lekualdatze arbitrarioetatik babestua izateko eskubidea. 2. *Lekualdatze arbitrarioen debekuak honako lekualdatze hauek hartzen ditu kontuan: E/CN.4/1998/53/Add.2*

a) apartheid politiketan, 'garbiketa etnikoa' edo antzeko jokabidetan oinarritutakoak, baldin eta helburua edo ondorioa bada eragindako biztanleriaren ondorio etnikoa, erlijiosoa edo arrazakoa aldatzea.

b) gatazka-armatuko egoeretan, ez bada pertsona zibilen segurtasunak edo zeinbesteko arrazoi militarrek horrela exijitzen dutela.

c) eskala handiko garapen-proiektuetan, goi mailako edota ezinbesteko interes publikoak justifikatzen ez badu.

d) hondamendien kasuan, ez bada eragindako pertsonen segurtasunak eta osasunak ebakuazioa eskatzen duela; eta

3) zigor kolektibo gisa erabiltzen direnean.

3. *Lekualdatzeak ez dute egoerak agindutakoa baino iraupen luzeagoa izango.*

8. printzipioa: *Lekualdatzea ez da burutuko bizitza-, duintasun-, askatasun- eta segurtasun-eskubideak urratzeko eran. 9. printzipioa: herri indigenen, nekazarien, artzainen eta lurrarekiko mendekotasun edo lotura berezia duten taldeen lekualdatzeetatik babesteko neurriak hartzeko berariazko betebeharra dute estatuak./ 15. printzipioa: Barnean lekualdatuak honako eskubide hauek dituzte: a) herrialdeko beste leku batean segurtasuna bilatzeko eskubidea; b) herrialdea uzteko eskubidea; c) beste herrialde batean asiloa eskatzeko eskubidea; d) derrigorrezko itzuleraren aurkako edota bere bizitza, segurtasuna, askatasuna edo osasuna arriskuan egongo diren edozein lekutan birkokatzearen aurkako babesa jasotzeko eskubidea.*

hartzeko berariazko betebeharra dutela estatuek. 15. printzipioak dio barne-lekualdatzea jasan duten pertsonen herrialdea uzteko eta beste herrialde batean asiloa eskatzeko eskubidea dutela, eta, era berean, derrigorrez itzularazi edota euren bizitza, segurtasuna, askatasuna eta osasuna arriskuan egongo diren beste leku batean kokatu nahi badituzte, aukera horietatik babesteko eskubidea ere bai.

2009ko Kanpalako Konbentzioak²⁶ Printzipio Gidarien termino berberetan definitzen du barne-lekualdatzea, eta lekualdatzearen aurkako babes emateko derrigorra ere jasotzen du (4.4. artikuluan)²⁷, baina Printzipioekiko ñabarduraren bat ezarrita.

²⁶Afrikan Herrialde barruko Lekualdatuei Babesa eta Laguntza emateko Afrikar Batasunaren Konbentzioa

1. artikulua. Definizioak

d.- lekualdatze arbitrariotzat jotzen da 4. (4) artikuluan lekualdatze arbitrariotzat jotzen dena.

4. artikulua.- Herrialde barruko lekualdatzeetan estatu kideek dituzten betebeharrak

4. *Pertsona guztiak dute lekualdatze arbitrarioetatik babestuak izateko eskubidea. Zehatz-zehatzak izan gabe, honako hauek dira debekatutako lekualdatze arbitrarioen kategoriak:*

a.- *Arraza-diskriminazioko politiketan edo biztanleriaren osaera etnikoa, erlijiosoa edo arrazakoa aldarazteko asmoa duten edo antzeko emaitza duten portaeretan oinarritutako lekualdatzeak;*

b.- *Gatazka armatuetan zibilak banaka edo masiboki lekualdatzea, ez bada kaltetutako zibilen segurtasunak edota ezinbesteko arrazoi militarrek hala eskatzen dutela, nazioarteko zuzenbide humanitarioarekin bat;*

c.- *Apropos gerra-metodotzat edo gatazka armatuetan nazioarteko zuzenbide humanitarioaren beste urraketa batzuen ondorioz erabiltzen den lekualdatzea; d.- Indarkeria orokortuak edota giza eskubideen urraketek eragindako lekualdatzea;*

e.- *Jokabide kaltegarrien ondoriozko lekualdatzea;*

f.- *Hondamendi naturalen edo gizakiak eragindako hondamendien ondoriozko ebakuazio behartuak, baldin eta ebakuazio horiek ez badira kalteuen segurtasuna edo osasuna babesteko ezinbestekoak.*

g.- *Zigor kolektibotzat erabiltzen den lekualdatzea;*

h.- *Aurretik aipatutako guztiarekin pareka daitekeen edozein ekintzak, gertaerak, faktorek edo fenomeno larrik eragindako lekualdatzea, baldin eta nazioarteko eskubideak (giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa kontuan hartuta) justifikatzen ez badu.*

e.- *'talde armatutzat' jotzen dira indar armatu disidenteak edota beste talde armatu antolatu batzuk, estatuko indar armatuak ez direnak;*

j.- *'jokabide kaltegarritzat' jotzen dira pertsonen oinarritzko eskubideetan eragin negatiboa duten portaerak, jarrerak eta jardunbideak; besteak beste, baina ez bakarrik, pertsonaren bizitza-eskubideari, osasunari, duintasunari, osotasun fisikoari eta mentalari eta hezkuntzari erasotzen dietenak;*

k.- *"barne-lekualdatutzat" jotzen dira derrigorrez etxebizitzak eta ohiko bizilekuak utzi eta lekualdatu eta nazioartean onartutako estatu-muga zeharkatu behar izan duten pertsonak eta pertsona taldeak. Bereziki gatazka armatuaren, indarkeria orokortuaren, giza eskubideen urraketaren, eta hondamendi naturalen edo gizakiak eragindako hondamendien ondorioetatik ihesi joan behar izaten dute.*

3. artikulua. Estatu kideen betebeharrak

h.- *Lekualdatze arbitrarioak burutzeagatik edo ekintza horietan duten konplizitatea dela eta, estatuz kanpoko eragileen erantzukizuna zaintzea, beraien artean sartuta enpresa multinazionalak eta segurtasun-enpresa pribatuak nahiz enpresa pribatu militarrek;*

i.- *Estatuz kanpoko eragileen erantzukizuna bermatzea, lekualdatzeak eragiten dituzten baliabide ekonomiko eta naturalak esploratzeko eta ustiatzeko jardunean ari direnean;*

5. artikulua. Estatu kideek babesaren eta laguntzaren inguruan dituzten betebeharrak

4. *Estatu kideek neurri bereziak hartu behar dituzte hondamendi naturalen ondorioz edo gizakiak eragindako hondamendi naturalen ondorioz (klima-aldaketa barnean hartuta) barne-lekualdatzea jasan duten pertsonak babesteko.*

10.- artikulua. Proiektuak burutzeko eragindako lekualdatzea

1. *Estatu kideek, ahal den heinean, eragile publiko eta pribatuek burututako proiektuen ondoriozko lekualdatzea galaraziko dute.*
 2. *Interesdunek ordezko aukera bideragarriak aztertuko dituztela bermatuko dute estatu kideek, eta proiektu horien ondorioz lekualda litezkeen pertsonak informatu eta kontsultatu egingo dituzte*
 3. *Proposatutako garapen-proiektua burutu aurretik, estatu kideek haren inpaktu sozioekonomikoa eta ingurumenekoa ebaluatuko dute.*
11. artikulua. Itzulera jasagarriaren, bertan gizarteratzearen edo birkokatzearen inguruan estatu kideek dituzten betebeharrak
5. *Lurrarekiko mendekotasun eta lotura berezia duten komunitateak itzuli, txertatu edo birkokatzen direnean, haien lurra leheneratzeko neurri egokiak hartuko dituzte estatu kideek.*

²⁷Afrikan Herrialde barruko Lekualdatuei Babesa eta Laguntza emateko Afrikar Batasunaren Konbentzioa

1. artikulua. Definizioak

d.- *lekualdatze arbitrariotzat jotzen da 4. (4) artikuluan lekualdatze arbitrariotzat jotzen dena.*

4. artikulua.- Herrialde barruko lekualdatzeetan estatu kideek dituzten betebeharrak

4. *Pertsona guztiek dute lekualdatze arbitrarioetatik babestuak izateko eskubidea. Zehatz-zehatzak izan gabe, honako hauek dira debekatutako lekualdatze arbitrarioen kategoriak:*

a.- *Arraza-diskriminazioko politiketan edo biztanleriaren osaera etnikoa, erlijiosoa edo arrazakoa aldarazteko asmoa duten edo antzeko emaitza duten portaeretan oinarritutako lekualdatzeak;*

b.- *Gatazka armatuetan zibilak banaka edo masiboki lekualdatzea, ez bada kaltetutako zibilen segurtasunak edota ezinbesteko arrazoi militarrek hala eskatzen dutela, nazioarteko zuzenbide humanitarioarekin bat.*

c.- *Apropos gerra-metodotzat edo gatazka armatuetan nazioarteko zuzenbide humanitarioaren beste urraketa batzuen ondorioz erabiltzen den lekualdatzea; d.- Indarkeria orokortuak edota giza eskubideen urraketek eragindako lekualdatzea;*

e.- *Jokabide kaltegarrien ondoriozko lekualdatzea;*

f.- *Hondamendi naturalen edo gizakiak eragindako hondamendien ondoriozko ebakuazio behartuak, baldin eta ebakuazio horiek ez badira kalteuen segurtasuna edo osasuna babesteko ezinbestekoak.*

g.- *Lekualdatzea zigor kolektibotzat erabiltzen denean;*

h.- *Aurretik aipatutako guztiarekin pareka daitekeen edozein ekintzak, gertaerak, faktorek edo fenomeno larrik eragindako lekualdatzea, baldin eta nazioarteko eskubideak (giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa kontuan hartuta) justifikatzen ez badu.*

e.- *‘talde armatutzat’ jotzen dira indar armatu disidenteak edota beste talde armatu antolatu batzuk, estatuko indar armatuak ez direnak;*

j.- *‘jokabide kaltegarritzat’ jotzen dira pertsonen oinarritzko eskubideetan eragin negatiboa duten portaerak, jarrerak eta jardunbideak; besteak beste, baina ez bakarrik, pertsonaren bizitza-eskubideari, osasunari, duintasunari, osotasun fisikoari eta mentalari eta hezkuntzari erasotzen dietenak;*

k.- *“barne-lekualdatutzat” jotzen dira derrigorrez etxebizitzak eta ohiko bizilekuak utzi eta lekualdatu eta nazioartean onartutako estatu-muga zeharkatu behar izan duten pertsonak eta pertsona taldeak. Bereziki gatazka armatuaren, indarkeria orokortuaren, giza eskubideen urraketaren, eta hondamendi naturalen edo gizakiak eragindako hondamendien ondorioetatik ihesi joan behar izaten dute.*

3. artikulua. Estatu kideen betebeharrak orokorrak

h.- *Lekualdatze arbitrarioak burutzeagatik edo ekintza horietan duten konplizitatea dela eta, estatuz kanpoko eragileen erantzukizuna zainzea, beraien artean sartuta enpresa multinazionalak eta segurtasun-enpresa pribatuak nahiz enpresa pribatu militarrek,*

i.- *Estatuz kanpoko eragileen erantzukizuna bermatzea, lekualdatzeak eragiten dituzten baliabide ekonomiko eta naturalak esploratzeko eta ustiatzeko jardunean ari direnean;*

5. artikulua. Estatu kideek babesaren eta laguntzaren inguruan dituzten betebeharrak

Kanpalak egindako ekarpenik garrantzitsuenetako bat zera da: 3. artikuluan estatu kideen betebehartzat ezartzen duela estatuz kanpoko eragileen erantzukizunaz arduratzea, horren baitan sartuta enpresa multinazionalak, segurtasun-alorreko enpresa pribatuak eta enpresa militarrek, baldin eta lekualdatze arbitrarioetan parte hartzen zuzena izan edo konplizeak badira. Ildo beretik, lekualdatzeak eragiten dituzten baliabide ekonomiko eta naturalen miaketa- eta ustiapen-jardueretan parte hartzen duten estatuz kanpoko eragileen erantzukizuna ere bermatu behar dute estatuek.

4. artikuluan zera dio: "*Haien kultura eta balio espiritual bereziak direla eta, lurrarekiko lotura edo mendekotasun berezia duten komunitateak lekualdatzetik babesteko ahalegina egingo dute estatu kideek, ez bada interes publikoko arrazoi nahitaezkoak eta sinesgarriak daudela tartean*". 5. artikuluan aipatzen du hondamendi naturalen ondorioz edo gizakiak eragindako hondamendi naturalen ondorioz (klima-aldaketa barnean hartuta) barne-lekualdatzea jasan duten pertsonak babesteko neurri bereziak hartu behar dituztela estatu kideek.

10. artikulua osoa proiektuak burutzeko eragindako lekualdatzeari buruz ari da, berariaz. Artikuluak dioenez, estatuek, "*ahal duten neurrian*", eragile publikoek edo pribatuek gauzatutako proiektuek eragiten dituzten lekualdaketa eragotzi behar dituzte; eta bermatu egin behar dute enpresa interesdunek alternatiba bideragarriak aztertuko dituztela eta proiektuen ondorioz lekualdatu behar izango duten pertsonen jakinarazten eta kontsultatzen dietela. Gainera, garapen-proiektuek gizartean eta ekonomian nahiz ingurumenean duten eragina ebaluatu behar dute, gauzatu aurretik.

Gainera, itzulera bideragarriari, tokian integratzeari edo birkokatzeari buruzko betebeharrak aipatzen dituen 11. artikuluan zera dio: estatuek "*ahal den neurrian*

4. Estatu kideek neurri bereziak hartu behar dituzte hondamendi naturalen ondorioz edo gizakiak eragindako hondamendi naturalen ondorioz (klima-aldaketa barnean hartuta) barne-lekualdatzea jasan duten pertsonak babesteko asmoz.

10.- artikulua. Proiektuak burutzeko eragindako lekualdatzea

1. Estatu kideek, ahal den heinean, eragile publiko eta pribatuek burututako proiektuen ondoriozko lekualdatzea galaraziko dute.

2. Interesdunek ordezkari aukera bideragarriak aztertuko dituztela bermatuko dute estatu kideek, eta proiektu horien ondorioz lekualda litezkeen pertsonak informatu eta kontsultatu egingo dituzte

3. Proposatutako garapen-proiektua burutu aurretik, estatu kideek haren inpaktu sozioekonomikoa eta ingurumenekoa ebaluatuko dute.

11. artikulua. Itzulera jasangarriaren, bertan gizarteratzearen edo birkokatzearen inguruan estatu kideek dituzten betebeharrak

5. Lurrarekiko mendekotasun eta lotura berezia duten komunitateak itzuli, txertatu edo birkokatzen direnean, haien lurra leheneratzeko neurri egokiak hartuko dituzte estatu kideek.

lurrarekiko mendekotasun eta lotura berezia duten komunitateen lurra leheneratzeko neurri egokiak ezarriko dituzte, komunitate horiek itzuli eta birkokatzen direnean”.

Printzipio Gidariak ez bezala, Kanpalako Konbentzioa loteslea da eta estatu kideek nazioko legerian txertatu behar dituzte. Estatuz kanpoko eragileekiko zehatzagoa da eta areago azpimarratzen ditu baliabide ekonomiko eta naturalak ustiatzeko eta garapen-proiektuen ondorioz eragindako lekualdatzeak. Egoera larria denean (gerra-delituak, genozidioak eta gizateriaren aurkako delituak daudenean) Afrikako Batasunak estatu kide batean parte hartzeko eskubidea jasotzen du, eta barne-lekualdatzeetan babes eta laguntza eskaintzeko derrigorra zehazten du, besteak beste lekualdatutako pertsonen gehiegikeriarik (besteak beste sexu-gehegikeriak eta erreklutatzea) eta goserik ez jasateko.

Kanpalako Konbentzioa da tresna lotesle berriena, eta Hegoalde globaleko herrialdeek gaur egun bizi duten baliabide naturalen arpilatzeko eta desjabetze-egoerara egokituta dago. 2009aren amaieran indarrean sartu ondoren, 2013ko ekaineko datuen arabera, Afrikako Batasuneko 54 estatuetatik 39k sinatu eta 19k berretsi egin dute.

i. Aipaturiko tresnen laburpen-koadroa

	Herrialde barruko Lekualdatzeei buruzko 1998ko Printzipio Gidariak	2009ko Kanpalako Konbentzioa
Izaera	Ez-loteslea	Loteslea
Kausak (<i>barne-lekualdatzearen definizioa</i>)	<ul style="list-style-type: none"> • Gatazka armatua • Indarkeria orokortua • Giza eskubideen urraketak • Hondamendi naturalak eta gizakiak eragindakoak 	<ul style="list-style-type: none"> • Gatazka armatua • Indarkeria orokortua • Giza eskubideen urraketak • Hondamendi naturalak eta gizakiak eragindakoak
Honako hauetatik babesteko eskubidea:	<p>- Ondorengo arrazoiek eragindako lekualdatze arbitrarioetatik:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Apartheid politikak eta 'gizarte-garbiketa' • Gatazka armatua • Eskala handiko garapen-proiektuak, goi mailako edo funtsezko interes batek justifikatzen ez dituenak • Hondamendiak • Zigor kolektiboa <p>- Itzulera derrigortua edota pertsonaren bizitza, segurtasuna, askatasuna eta osasuna arriskuan dauden leku batean birkokatzea</p>	<p>- Ondorengo arrazoiek eragindako lekualdatze arbitrarioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arraza-diskriminazioko politikak • Gatazka armatuak • Gerra-bideak eta nazioarteko zuzenbidearen urraketak • Jardunbide kaltegarriak • Hondamendi naturalak nahiz gizakiek eragindakoak, klima-aldaketa barne • Zigor kolektiboa • Barne-lekualdatzearen ondorioz justifikatuta ez dagoen ekintza, gertaera, faktore nahiz fenomeno larria (giza eskubideak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa)
Estatu kideen	Herri indigenen, nekazarien, artzainen eta	<ul style="list-style-type: none"> • Euren gizarte-izaeraren, erlijioaren edo iritziaren ondorioz biztanleria nahiz

betebeharren artean aipatzen dira, besteak beste:	lurrarekiko mendekotasun edo lotura berezia duten taldeen lekualdatzeetatik babesteko neurriak hartzeko berariazko betebeharra	<p>pertsonak lekualda lezakeen bazterkeria politikoa, soziala, kulturala eta ekonomikoa eta marjinazioa prebenitzea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Estatuz kanpoko eragileen erantzukizuna zaintzea, beraien artean sartuta enpresa multinazionalak eta segurtasun-enpresa pribatuak nahiz enpresa pribatu militarrik • Estatuz kanpoko eragileen erantzukizuna bermatzea, baliabide ekonomiko eta naturalak esploratzeko eta ustiatzeko jardunean ari direnean • Lurrarekiko mendekotasun eta lotura berezia duten komunitateak itzuli, txertatu edo birkokatzen direnean, haien lurak leheneratzeko neurri egokiak hartzea
Proiektuak burutzeko eragindako lekualdatzea		<p>Estatu kideek:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ahal den heinean, eragile publiko eta pribatuek burututako proiektuen ondoriozko lekualdatzea galaraziko dute • Interesdunek ordezkoko aukera bideragarriak aztertuko dituztela bermatuko dute, eta proiektu horien ondorioz lekualda litezkeen pertsonak informatu eta kontsultatu egingo dituzte • Proposatutako garapen-proiektua burutu aurretik, haren inpaktu sozioekonomikoa eta ingurumenekoa ebaluatuko dute

Printzipio Gidariekiko eta bereziki Kanpalako Konbentzioarekiko interesa ez dator soilik barne-lekualdatzeen alorrean duten erreferentzialtasunagatik; izan ere, ildo berean, mugaz gaindiko lekualdatzei buruz hausnartzeko gidalerrotzat ere balio digu.

Ez ote da legitimoa pentsatzea pertsona bat herrialde barruan lekualdatutzat jotzeko nahikotzat hartzen den kausak kausa egokia izaten jarraitzen duela, pertsonak nazioarteak aitortutako estatu-muga zeharkatzen duenean ere?

Ezin ote da zehaztu lekualdatze behartuaren definizio bat, ihes egin eta babes emateko moduak zedarritzeko erabiltzen diren tresna guztiekin koherentea izango dena? Gure ustez interesgarria da, ikuspegi politikotik, hurbilpen hori egitea, gaur egungo migrazioen atzean ezkutatzen den eskubideen urraketa dimentsionatzen, iruditeria kolektiboa astintzen eta European ditugun tresnen (geroago aztertuko ditugu) interpretazio zabalagoa egiten lagunduko baitugu. Alabaina, fokua zabaltzeak eztabaida handia eragin lezake, gure garapen-eredua lekualdatze behartuen nukleo gogorra dela ikusiko baitugu.

CEAR-Euskadiren iritziaren ildotik, Susana Borrásék, Tarragonako Universitat Rovira i Virgiliko Ingurumen Zuzenbideko Masterreko koordinatzaileak, uste duenez, *"migrazio behartuaren edo lekualdatze behartuaren funtsezko kausetako batzuk Barne Lekualdatzeen Printzipio Gidarietan (1998) jasotako barne-lekualdatzeari buruzko definizioan jasota daude. Hala, karakterizazio horren arabera, esan liteke barne-lekualdatzeak estatu barruan egindako lekualdatze behartuak direla. Biztanleak mugaz kanpo lekualdatzen direnean, beraz, kausa berdinak ezarriko lirateke, mutatis mutandi (analogiaz); aldaketa bakarra lekualdatzearen lurralde-esparrua izango litzateke"*.

Interesgarria izan daiteke jendeak asilo-eskubidearen arabera ihes egiteko kausak ez ezik, Barne-lekualdatzeen Nazioarteko eta Eskualdeko Zuzenbidearen arabera ihes egiteko dituzten kausak ere gehitzea.

c) Europa: babes-tresnak

Nazioartean babes Eskubidea eta ez Itzularazteko Printzipioa ezarri eta gauzatzeko Europar Batasunean dauden berariazko tresnak aztertuko ditugu, labur-labur.

1999an, Amsterdameko Hitzarmena indarrean sartu zenean, asilo-politika, pertsonen joan-etorri askea, immigrazioa eta mugak Europako Erkidegoaren ardurapean gelditu ziren.

Gaur egun asilo-eskaerak tratatzeko arau, prozedura eta epe erkideen sorta dago zehaztuta. Erkidegoaren asilo-politikaren muina hartzen duten europar zuzentzarauen bilbe konplexuan murgildu gabe, pertsona bat errefuxiatutzat onartzeko funtsezko bi irizpide aztertuko ditugu, eta asiloari lotutako beste aukera batzuk ikusi.

○ Zuzentzarauak

Horietako bat 2011ko Aitortza Zuzentzaraua da (aurreko epigrafean zerrendatu dugu). Bi helburu nagusi ditu: bata, estatu kideek nazioartearen babesaren premia duten pertsonak identifikatzeko irizpide erkideak erabiliko dituztela bermatzea, eta, bestea, pertsona horiei gutxieneko prestazio-maila bermatzea (laneratzea, hezkuntza, osasun-laguntza eta etxebizitza).

Europar Batasuneko asilo-eskubidearen esparruan, zuzentzari horrek gehitzen duen berrikuntzarik garrantzitsuenetako bat zera da: nazioartearen babesaren onuradunen definizioa zabaltzen duela eta, beraz, errefuxiatu-estatutua aitortzen zaien pertsonak ez ezik, ordezkoko babesaren estatutua aitortzen zaienak ere hartzen direla aintzat. Hau da, zuzentzari horrek zehazten du EBren ustez nor diren errefuxiatuak eta nor diren babes txikiagoa behar dutenak, euren herrialdeetan arriskuan daudela onartu arren, ez direlako errefuxiatutzat jotzen.

Luze eta zabal aipatu dugun 1951ko Genevako Konbentzioak arautzen du Europar Batasunean errefuxiatu-estatusaren aitortza. 2011ko Aitortza Zuzentzarauak Konbentzioan zehazten ez diren elementu batzuk zehazten ditu; adibidez, jazarpen-ekintzat²⁸ zer ulertzen duen eta beste kontu batzuk definitzen ditu. Alabaina, orain beste gauza bati erreparatu nahi diogu: ea nor diren babes premiaduntzat jotzen diren pertsona horiek, nahiz eta Genevako Konbentzioa zorrotz irakurrita, 'errefuxiatutzat' hartu ezin.

²⁸ 9. artikulua. Jazarpen-ekintzak. 1.- Genevako Konbentzioko 1. artikuluko A atalaren arabera, jazarpen-ekintzat hartzeko, ekintza horiek a) euren izaera dela eta, euren iraunkortasuna dela eta, oinarritzko giza eskubideen urraketa larria izateko nahikoa larriak izan beharko dute, batez ere Giza Eskubideak eta Oinarritzko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenaren 15. artikuluko 2. atalaren arabera, salbuespenzat ez hartzeko modukoak, edota (*) b) pertsonari aurreko hizkian aipaturiko tamainan eragiteko bezain larriak izango diren giza eskubideen urraketa ere barne hartuko dituen hainbat neurri metatu izan beharko dute.

1. atalean zehaztutako jazarpen-ekintzak honako moldez burutu ahal izango dira, besteak beste: a) indarkeria fisikoko edo psikikoko ekintzak, sexu-indarkeria barnean hartuta; b) bere horretan diskriminatzaileak diren edota era diskriminatzaileak ezartzen diren neurri lege- eta administrazio-neurriak nahiz neurri polizial eta judizialak; c) neurritz kanpokoak edo diskriminatzaileak diren auzipetzeak eta zigorrak; d) babes judiziala ukatzea eta, ondorioz, neurritz kanpoko zigorrak edo zigor diskriminatzaileak eragitea; e) gatazka batean zerbitzu militarra bete nahi ez izateagatik auzipetzea edo zigorrak jasotzea, baldin eta zerbitzu militarra betetzeak 12. artikuluan, 2. atalean (delituak egitea) ezarritako salbuespen neurrietan jasotako delituak edo ekintzak urratzea badakar.

3. 2. artikuluan, d) letran aurreikusitakoarekin bat, 10. artikuluan aipaturiko arrazoiak eta artikulua honen 1. atalean zehaztutako jazarpen-ekintzak, edota beraien aurkako babes-neurririk ez ezartzea, lotuta egongo dira.

EBk ordezeko babesa eskaintzen die euren jatorrizko herrialdera itzuliz gero, honako kalte larrietako bat jasateko benetako arriskua duten pertsonari: heriotza-zigorrrera kondenatzea edo betetzea; torturatzea edo zigor edo tratu bidegabea ematea; zibil baten aurkako mehatxu larriak edo haren bizitzaren edo osotasunaren aurkakoak, nazioarteko edo barneko gatazka armatu batean indarkeria bereizi gabeak eraginak.

Pertsona horiek migratzaileak dira? Migratzaileak dira jatorriko herrialdera itzuliz gero, arrisku larria duten pertsonak?

Koherentea dirudi pentsatzea pertsona batek, jatorriko herrialdera itzuliz gero, kalte larriak jasateko arriskua badu, lekualdatze behartua izan duela, egoera hori zehazten duen kategoria juridikoa edozein dela ere.

Beste Zuzentarau bat ere azpimarratu nahi dugu: lekualdatutako pertsona ugari etorritik gero²⁹, aldi baterako babesa aitortzeko gutxieneko arauak zehazten dituenak.

Euren estatua edo eskualdea utzi duten edo bertatik ebakuatu dituzten pertsonen zuzenduta dago, baldin eta jaioterriko egoera dela eta, ezinezkoa badute bertara ziurtasunez eta era iraunkorrean itzultzea. Gatazka armatua edo indarkeria iraunkorra dagoen zonaldeetatik ihesi doazen, edota giza eskubideen urraketa sistematikoa eta orokortua jasateko arrisku larria duten pertsona multzo zabalei erantzuteko diseinatu da tresna hori.

Batzordeak proposamena egin eta EBko Kontseiluak izendatzen du aldi baterako babesa, EBra lekualdatutako pertsona kopuru handia egiaztatzen duen erabaki baten bidez. Zuzentzarauan bertan zehaztuko da zer pertsona talde babestuko diren. Egoera zehatz bati aldi baterako erantzuna emateko diseinatu da, baina ez dakar beste babes-sistemak eskuratzeko aukera ukatzea. Espainiako estatuan berariazko araudi baten bidez arautzen da (2003ko urriaren 24ko Errege Dekretua³⁰) eta berehala jartzen da indarrean, Ministro Kontseiluaren erabakiz. Ebakuazio-suposamenduetan kanpo arazoetarako ministroak egingo du eskaera eta larrialdi-egoeretan, berriz, barne-ministroak.

Lege hori indarrean sartu zenetik, hainbat bider ezartzea eskatu du CEAREk. Adibidez, Espainiako Gobernuak Estatu Batuei Iraken militarri esku hartzeko laguntza eman ondoren, herrialde horretako gerrak eragindako errefuxiatu-uholdea egon zenean, edota

²⁹ 2001eko uztailaren 20ko Kontseiluaren 2001/55/EE Zuzentzaraua, oso erbesteratu kopuru handiak etorritik gero, horiei aldi baterako babesa emateko gutxieneko arauari buruzkoa, eta estatu kideek pertsona horiei harrera eman eta horren ondorioak beren gain hartzeko ahalegin bateratua egin dezaten sustatzeko neurriari buruzkoa.

³⁰ 1325/2003 Errege Dekretua, urriaren 24koa, lekualdatutako pertsonen etorrera masiboko egoerarako aldi baterako babes-araubideari buruzko Erregelamendua onartzen duen.

Siriatik ihesi doazen biztanle oldearen aurrean. Alabaina, Espainian ez da inoiz aktibatu. Ez da aktibatu, halaber, Afrikako iparraldeko (Tunez, Libia, Algeria...) matxinaden aurkako errepresiotik ihes egin zuten errefuxiatuak babesteko. Pertsona horietako asko Italiako Lanpedusa irlan pilatuta geratu ziren, inoiz babesik jaso gabe, eta asko bidean hil ziren³¹.

- Ez itzularazteko printzipioa

Lekualdatze behartuen karakterizazioari buruz hausnartzera gonbidatzen gaituzten tresnak aztertzean, nabarmentzeko modukoa da, halaber, Ez Itzularazteko Printzipioa. Nazioarteko Zuzenbideak estatuei jarritako debeku bat da: ezin da pertsona bat herrialde batetik bota edo edozein herrialdetako lurraldera itzuli, baldin eta pertsona horren bizia edo askatasuna mehatxatuta badago, edo torturak, tratu jasanezinak edo umiliagarriak, edo oinarritzko giza eskubideen urraketa larriak nozitzeko arriskua badu. Frantseseko *'non-refoulement'* terminoaren bidez ere ezaguna da.

1951ko Genevako Konbentzioaren 33.1. artikuluan³² agertzen da, asilo eskubidearen ezinbesteko bermetzat, baina ez da soilik esparru horretan erabiltzen. Torturaren eta tratu txar edo zigor krudelen, gizagabeen edo umiliagarrien ohiturazko debekuaren funtsezko osagaia ere bada.

Giza Eskubideak eta Oinarritzko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenak (GEEH), 3. artikuluan³³ xedatzen du "inori ezin zaiola ezarri torturarik, ez zigor edo tratu gizagaberik edo umiliagarriarik", eta Torturaren eta Bestelako Tratu edo Zigor Krudel, Gizagabe eta Umiliagarrien aurkako Hitzarmenak 3.1. artikuluan³⁴ debekatu egiten die estatuei pertsona bat beste estatu batera kanporatzea, itzularaztea edo estraditaztea, *"torturatzeko arriskua duela pentsatzeko zentzuzko arrazoiak daudenean"*. Giza Eskubideen

³¹ Libiatik ihesi joandako 1.000.000 pertsona inguru Tunezen eta Egipton kokatu zirela jotzen da; ACNURen arabera, 58.0000 lagun inguru baino ez ziren iritsi Europara. Horietatik 21.000 baino ez zuten eskatu asiloa EBn.

³² Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Konbentzioko (EEGK) 33.I. artikulua: ezein estatu kontratatzailek ezingo du, inola ere, kanporatzeagatik edo itzularazteagatik, errefuxiatu bat edozein lurraldetako mugetan jarri, baldin eta lurralde horretan haren bizia edo askatasuna arriskuan badago, arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edo iritzi politikoengatik.

³³ 3. artikulua (Giza Eskubideen Europako Konbentzioa). Tortura debekatzea. Ezingo zaio inori torturarik egin, ez eta zigor edo tratu gizagaberik edo umiliagarriarik ezarri ere. Doktrinak onartzen du agindu horretatik ez dela "zuzenean ondorioztatzen pertsonak kanporatu ezin direnik". Hala ere, debekatuta dago, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak behin eta berriz ildo horretan emandako jurisprudentziaren arabera, pertsona bat beste estatu batera estraditaztea, kanporatzea edo erbesteratzea, hartan tortura edo tratu gizagabeak edo umiliagarriak jasateko arriskua izanez gero, Europako Giza Eskubideen Konbentzioko 3. artikulua legezko ondorioen ikuspuntutik" (Fischer-Lescano, A. eta Löhr. T. 2007).

³⁴ 3.I. artikulua. (CAT): ezein estatu kidek ezingo du pertsona bat kanporatu, itzularazi edo estraditatu beste estatu batera, baldin eta ondo oinarritutako arrazoiak badaude pentsatzeko tortura pairatzeko arriskuan egon daitekeela.

Europako Auzitegiak (Soering auzia)³⁵ ebatzi du Tratu txarren aurkako Europako Hitzarmenaren 3. artikulua *“maila berdin-berdinean dela absolutua kanporatzeari dagokionez”*.

Giza eskubideak babesteko tresna horietan eta beste batzuetan oinarrituta³⁶, ACNURek behin eta berriro errepikatu du *“jatorriko herrialdera kanporatu edo itzuliz gero, torturatua izateko, edota tratu txarrak, gizagabeak eta umiliagarriak jasateko benetako arriskua duela pentsatzeko zentzuzko arrazoiak dituen pertsona hala jokatzea galarazten duen araudiaren babesean dagoela. Eta horrekin batera dator ezingo dela beste hirugarren herrialde batera kanporatu edo itzuli, baldin eta handik tratu txarrak jasateko benetako arriskua duen herrialde batera itzuli edo bidali ahal badute”*.

Printzipio horrek debekatzen duen ekintzari buruz aritzean, Goi Komisarioak dio kontua ez dela ‘soilik’ estatuek ez jartzea pertsonak torturak jasateko arriskuan; izan ere, babes maila berdina merezi du herrialde horretatik kanporatu, estraditatu edo itzuliz gero, tratu edo zigor krudelak, gizagabeak edo umiliagarriak jasateko arriskuan jartzeak. *“Pertsona hori leku ziur batetik arriskuan egongo den leku batera eramatea dakarren edozein neurri debekatuta dago, beraz, printzipio horren arabera”*.

Ez itzularazteko printzipioaren lurralde-dimentsioa dela eta, ACNURek azpimarratu du gizabanakoa estatu baten jurisdikzioaren pean egongo dela, baldin eta haren kontrol efektiboaren pean badago, edota estatu horren izenean aritzen direnen eraginpean badago, hori gertatzen den tokia edozein izanik ere.

2012ko otsailaren 23an, *Iris Jamaa eta beste batzuk, Italia* auzian, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Giza Eskubideen Europako Hitzarmena ez zela mugatzen Europar Batasunaren lurretara, estatuak kontrolatzen duen edozein lekutan ezarri eta bete behar baita (baita itsaso zabalean dagoen itsasontzi batean ere). Epaiak berriro gogorarazi zuen kanporaketa kolektiboak debekatuta daudela eta prozedurari lotutako hainbat berme ere aipatu zituen, pertsonak nazioartearen babesa eskatzeko borondatea agertu ala ez (abokatuaren eta interpretearen laguntza, informazio-eskubidea, itzulketaren aurkako baliabide eraginkorrak eskuratzeko eskubidea, pertsonak helmugako estatuan jasoko duen tratua berri jakiteko beharra duela estatuak). Hala, horiek guztia migratzaileen oinarritzko eskubideak errespetatzeko ezinbestekoak zirela gogorarazi zuen.

³⁵ SOERING C. Erresuma Batua, 14038/88 zenbakia. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 1989ko uztailaren 7ko epaiaren laburpena.

³⁶ [Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren](#) 7. artikulua bezala, Banjuleko Kartaren 5. artikulua bezala, eta Giza Eskubideen Amerikako Konbentzioaren 5.2. artikulua bezala.

d) Eztabaida Amerikan

Errefuxiatuei buruzko 1984ko Kartagenako Adierazpenak 30 urte betetzen zituela eta, urteurrena baino lehen Amerikako gizarte zibilari kontsultatzeko eskualde-prozesua abiatu zen. Prozesu horren bukaera izan zen Bogotan 2014ko uztailean egin zen Migrazio Behartuei buruzko Eskualdeko II. Konferentzia Humanitaria, CEAR-Euskadiren partaidetza ere izan zuena.

Horren aurretik, Kanadan eta Estatu Batuetan bi talde fokal eginak ziren Akademiako eta GKE-etako partaideekin, bai eta ACNURek eta Errefuxiatuentzako Norvegiako Kontseiluak (NCR) antolatutako beste hiru azpi-eskualdeko topaketa ere (MERCOSUR hedatua, Andetarra eta Mesamerikakoa). Lan horri guztiari esker, eta Quiton 2010ean burututako Eskualdeko I. Konferentzia Humanitarioari esker, eskualde horretako egoeraren diagnostikoa egin eta lekualdatze behartuen gaur egungo moduen inguruko gomendioak eman ahal izan ziren.

Asmo globala zera zen: barne- eta kanpo-lekualdatze behartuen aurreko babesean sakontzea, eta ACNUR eskualdeko gobernuekin egiten ari zen kontsulta globalerako ekarpena egitea, gizarte zibiletik abiatuta. Hain zuzen, horren guztiaren ondorioa izan zen Brasilen 2014ko abenduan burututako Ekintza-plana.

Gizarte zibilarekin egindako prozesuak agerian jarri zuen, besteak beste, giza mugimenduen kausa berriei lotutako eskubideak bermatzeak zekarren erronka handia, bai eta errefuxiatuen babes-erregimenak eguneratzeko premia larria ere.

II. Konferentziaren emaitza izan zen Bogotako Adierazpenean, eskualdeko estatuei eskatu zitzaie babeserako tresna loteslea onar zezatela. Tresna horrek Kartagenako Adierazpenean jasotako hitzarmenak osatu eta eguneratu; errefuxiatuen, barne-lekualdatuen eta nazioartearen babesa behar zuten pertsonen eskubideak bermatu; eta datozen hamarkadetan benetako txertatuko zirela ziurtatu beharko zuen.

Eskualdeak bizi zituen funtsezko kezken artean azpimarratu zen *“zer-nolako krisi humanitaria eta eskubideen krisia jasaten duten lekualdatutako pertsonen, babes-eskatzaileek eta errefuxiatuek, pertsonen salerosketaren biktimek, aberrigabeek eta baita migrazio behartuaren modalitate berrien biktimek ere; alegia, azpiegituren, inbertsio pribatuen, ingurumen-narriaduraren, klima-aldaketaren eta nazioko nahiz nazioarteko kriminalitate arrunt eta antolatuaren ondorioz lekualdatu behar izan duten pertsonen”*.

II. Konferentzia prestatzeko lehen topaketa Washington DCn egin zen 2013an, eta eztabaidako gai potoloen artean, indarkeria modu berriak eragin dituzten garapen-politiken inpaktua eta gizarte-ondorioak aztertu ziren.

Gai nagusien artean aztertu ziren, besteak beste, Estatu Batuetan neska-mutilek eta migratzaileek bizi duten egoera, asilo-eskatzaileen egoera, mugen militarizazioa, eta lekualdatze behartuaren eta hiri-indarkeriaren modu berriak.

Gainera, estatuz kanpoko eragile armatuen biktimen arazoa ere aztertu zen; adibidez, 'mara' taldeen ondorioz lekualdatutako pertsonak, nazioartean babesa jasotzen ez dutenak. Izan ere, eskualdean kezka handiena eragiten duten gaien artean daude mara taldeek eragindako lekualdatzeak, gizakien salerosketa eta garapen-politikek eta fumigazioek eragindako lekualdatze modu berriak.

Washingtonen mahai gainean jarri zen *"lekualdatze masiboak prebenitzeko mekanismoak"* ezartzeko premia, eta kritikatu egin zen *"meatzaritzaren nahiz petrolio-jarduera aritzen diren Amerikako konpainien portaera"*. Era berean, politikoki ildo horretan eragiteko ekintzak burutzeko premia ikusi zen, ekonomia estraktiboek eragindako lekualdatze behartua prebenitzeko proiektuak gauzatu ahal izateko.

Prestaketa-lanen bigarren bilera Toronton egin zen 2013an, eta industria estraktiboek migrazio behartu berriak sortzen duten erantzukizuna izan zen gai nagusietako bat. Bileran idatzitako ondorioen zati batean, Kanadako meatzaritzaren ondorioak aztertu ziren.

"[Munduko] Meatzaritzaren alorreko inbertsio osoaren % 37 Kanadako konpainiek egiten dute. Mexikon bakarrik, meatzaritzaren emakiden % 50 Kanadako konpainiei aitortu zaie. Era berean, munduko konpainien % 60k Torontoko baloreen burtsan kotizatzen dute.

Ekitaldi horretan, erakunde partaideek azpimarratu zuten industria estraktiboen ondoriozko lekualdatze behartuak ez direla sakon dokumentatu. Latinoamerikan ari diren Kanadako konpainiek giza eskubideak urratu ondoren gertatu diren zigorgabetasun kasuen kopurua itzela da.

Mexikon narkotrafikoaren ondorioz eta Hondurasen, Guatemalan eta El Salvadorren ekonomia estraktiboen ondorioz izandako lekualdatzeen kopuru handia erraztu dute Kanadako enbaxadak, tokiko legeria garatzea oztopatu dutelako. Kanadako legeak dio konpainien legezko ordezkariak konpainiek egindako lege-hausteen erantzuleak direla baina, halere, haien erantzukizuna zehazteko lege-prozesuak oso garestiak eta zailak dira.

Kanadako Gobernuak, gainera, erauzketa-konpainiekin eskuz esku jardun du. Kanadako enbaxadek lurretara iristen laguntzen diete konpainiei, eta inbertsioen inguruko aholkuak eman. Are gehiago, Kanadako gobernuak konpainien aholkulari gisa jardun du herrialde hartzaileak industria estraktiboak geldiarazten ahalegindu direnean".

Ekitaldian bertan salatu zen babesaren alorrean zer-nolako ondorioak dituen herrialde batzuk 'segurutzat' izendatzeak, bertatik ihesi doazen pertsonen babes- eta integrazio-mekanismoak eskuratzeko diskriminazio larria jasaten baitute. Hasiera batean 27 herrialde ziren baina testu hau amaitzeaz zegoela 45 izatera iritsi ziren, horien artean Mexiko. Zerrenda horretako herrialde asko bat datoz Kanadak Merkataritzaren Libreko Hitzarmena sinatua duen herrialdeen zerrendarekin.

Geroago, Andeak Eskualdeko Gizarte Zibilaren Posizionamenduak (Quiton, 2014ko ekainean) arreta berezia egin zion barne-lekualdatzearen arazo bereziari. Posizionamendu horrek Latinoamerikako egoera laburtzen du. Honako hauetan labur daitezke barne-lekualdatzea eragiten duten kausak: gatazka armatua, indarkeria orokortua, indarkeria soziopolitikoak, megaproiektuak, hondamendi naturalak, nazioko eta nazioarteko krimen antolatua eta genero-indarkeria.

Kausa horiei lotuta agertzen dira migratzaileen, errefuxiatuen, aberrigabeen eta nazioartearen babesa behar dutenen defentsan ari diren eragileen kezka dakarten fenomenoak: *"Pertsonen salerosketa; migratzaileen legez kanpoko trafikoa; haur, nerabe eta gazteak delituzko asmoetarako erreklutatzea; talde eta eragile armatuek gizartea eta lurraldea kontrolatzea; sikarioen bidezko jarduna, besteak beste [...]"*.

Arreta berezia egin zaio Kolonbiako kasuari, herrialde horretan dagoen barne-lekualdatzearen dimentsio handia dela eta, baina baita bertako fenomenoak kontinenteko beste herrialde batzuetan birproduzitzen direlako ere: *"Kolonbiako barne-legeriak aurrerapauso handiak eman ditu estatuak gatazka armatuaren (eta horren artean lekualdatze behartuaren) biktimak aitortzeko eta arreta, laguntza eta ordaina eskaintzeko. Aitorpen horrek ez du lortu, ordea, Kolonbian bertan gero eta lekualdatu gehiago egotea dakarren egoera geldiaraztea. Eta Kolonbiako gobernuaren eta FARCen gerrillaren arteko negoziazio-prozesuak ere ez du geldiarazi. Joera berri hori eragile, fluxu eta babesgabetasun-egoera berrien ondorioa da, eta batzuetan eskualdeko beste herrialde batzuetan ere gertatzen dira:*

1. *Paramilitarismoaren oinordetza hartu duten taldeek edo sare kriminalen bidez egituratzen diren talde narkotrafikatzaileek biztanleen gaineko presioa egiten dute, eta tokian-tokian, nazio-mailan eta nazioartean dute presentzia.*

2. *Gatazka armatua hirietara joan da, eta hirietan bertan beste eragile bortitz batzuk egonik, bertako biztanleak jazarri eta hiri-arteko lekualdatzea eragin dezakete.*
3. *Badira kausa antropogenikoak ere (megaproiektuak eta baliabide naturalak erauztea, etab.).*
4. *Pertsonen salerosketak eta trafikoak gora egin du muga aldean, hainbat asmotarako (sexu-nahiz lan-esplotazioa, besteak beste).*

Aurreko guztia dela eta, ezinezkoa da lekualdatutako biztanleak benetan integratzea".

3. kapitulua. Ondorioak: migrazioa ala lekualdatze behartua? Biztanleria-mugimenduen kausak eztabaidan

a) Migrazio ekonomikoaren eta lekualdatze behartuaren artean. Arrazoitutako eta arrazoizko muga-lerro baten bila.

- Migrazio ekonomikoaren eta lekualdatze behartuaren arteko laburpen-taula

b) Azken ondorioak

- Lekualdatze behartuen karakterizazioa
- Eztabaidaren garrantzi politikoa

3. kapitulua. Ondorioak: Migrazioa ala lekualdatze behartua? Biztanleria-mugimenduen kausak eztabaidan

Luze eta zabal aritu gara zein izango litzatekeen, ikuspuntu etiko eta politiko batetik, migrazio 'behartua' izendatzeko muga zehazten duen marra.

Dagoeneko azaleratu dira gako batzuk: gure ustez, bada elementu nahikorik Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidean, giza eskubideen urraketa larriagatik abiatutako mugimendua behartutzat jotzeko; eskubide-urraketa hori ez dagokio eskubide zibil eta politikoei soilik, eta bai eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaleri ere; ingurumenaren narriadura larriak eskubide horiek urratu, eta, beraz, mugimendu 'behartua' eragin dezake; garapen-proiektu handiak gaur egungo migrazio-mugimenduen funtsezko elementua, elementu nagusia dira.

Susana Borrásék Hugo G. aipatu du³⁷; izan ere, haren ustez lekualdatzeek *“orotariko egoerak biltzen dituzte: batzuk guztiz borondatezkoak eta beste batzuk guztiz behartuak izaten dira, betiere jakinik bi mutur horiek direla gutxienak”*.

Borrásék adierazi du bizi-baldintzak hobetzekotan migratzen duten pertsonen bizitza *“normalean, ez da epe laburrean arriskuan egoten; halere, migratzeko motiboen atzean, lekualdatze behartuetan bezala, mugitzea behartzen duten arrazoi bat edo batzuk egoten dira. Beraz, migrazio ekonomiko horiek ez nituzke borondatezkoztat joko, eta bai behartutzat, baina “behartze-maila” txikiagoarekin, eskuarki “lekualdatze behartutzat” jotzen dugunarekin alderatuta”*.

“Kasu batean nahiz bestean estatuaren erantzukizun argia dago, beraren ardura baita biztanleen segurtasunaz arduratzea, giza eskubideak errespetatuko zaizkiela bermatzea (bizitza, askatasuna, osotasun pertsonala, etab.). Horiek guztiak argi eta garbi urratzen dira lekualdatze behartuetan nahiz migrazio ekonomikoetan, nahiz eta azken kasu horietan hain agerikoa izan ez. Bietan ala bietan giza eskubideak osorik eta guztiz errespetatu beharko lirateke, irtenbide iraunkorrak bermatu ahal izateko: bai eskubide zibil eta politikoak, bai eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalak”.

Jatorritik bertatik abiatuko den kategorizazioa eraiki nahi badugu eta guztiok onartzen badugu lekualdatze behartua giza eskubideen urraketa larriarekin, iraunkorrarekin edo sistematiakoarekin hasten dela, beldurrik gabe edo miseriarik gabe bizi izateko aukera ere nabarmen murriztuz, ziurrenik gaur egungo mugimendu migratzaile gehienak

³⁷ HUGO, G. (1996): 'Environmental Concerns and International Migration'. In: Robinson, V. (ed) Migration and Public Policy, 1. edizioa. Britainia Handia: Edward Elgar Publishing,

irudimenezko lerro horretatik hurbil egongo dira. Dimentsioak planteamendua ahantzarazi behar ote digu? Gure ustez, are premiazkoago egiten du.

a) Migrazio ekonomikoaren eta lekualdatze behartuaren artean. Arrazoitutako eta arrazoizko muga-lerro baten bila

Migrazioaren eta lekualdatze behartuaren arteko arrazoitutako eta arrazoizko muga-lerroa zehaztea ez da lan erraza. Migrazio ekonomikoa *strictu senso* zer den objektibatzeke, oso garrantzitsuak izan dira DELPHI metodoaren bidez elkarrizketatutako pertsonen ekarpenak (DELPHIren bidez prestatutako idatzizko galde-sortari esker, ikuspegiak trukatu ahal izan ditugu Espainiako estatuko eta Kolonbiako pertsonekin).

Ingurumenean eta garapen-proiektu handien inpaktuan aditua den Alejandro Pulido ikertzaile kolonbiarraren ustez, *"Migrazio ekonomikoa zera da: pertsona edo pertsona talde batak diru-sarrerak eta bizi-baldintza materiala hobetzeko asmoz bizilekua uztea"*.

Alboan Fundazioko Ekintza Publiko eta Partaidetza Taldeko kide Martin Iriberrik, berriz, honela definitzen du: *"programatutako giza mugitze-prozesua da; haren arabera, pertsona, familia nahiz komunitatea beren aukerak (bizibidea, prestakuntza, enplegua, lan-baldintzak, prestakuntza- eta enplegu-bidezko gizarte-mugikortasuna) nahiz hurrengo belaunaldienak hobetzen saiatzen dira"*.

Borrásen esanetan, berriz, *"migrazio ekonomikoa pertsonak bizi-baldintza hobeen bila egiten duten borondatezko mugimendua da; erabaki horren ondorioz jatorrizko herrialdea/eskualdea nahiz helmugako herrialdea/eskualdea aukeratu behar izaten dituzte"*.

Antioquiako Unibertsitateko (Kolonbia) Sandra Milena González ikertzailearen eta soziologoak uste duenez: *"historikoki migrazio ekonomikoa borondatezkotzat jo izan da. Hori azaltzeko, kanpotiko hertsapenek eragin gabeko erabakia dagoela, erabaki autonomia dela jotzen da. Mugimendu horrek ere galerak dituen arren, uzten dena (elementu materiala nahiz ez-materiala) ezin da galeratzat, zentzu hertsienean, ulertu, bizi-baldintza hobeen bila joatea erabakitzen dutenak joaten direnean gauza horiek galtzeko prest egoten direla jotzen baita. Halere, baten batzuen ustez migrazio mota hori ere behartua izaten da, herrialdeko pobrezari erreparatuz gero, biztanleak migrazioa behartzeko baldintza objektiboak daudelako: langabezia, soldata baxuak, gosea, etab."*

Kolonbian Indarkeriaren Biktimentzako Arretarako Asturiasko Programaren koordinatzailea den Javier Orozkok zera dio: *"eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen gabeziak derrigortuta, lantokia edo bizitokia lekualdatu behar izatea da. Bizi-baldintzak hobetzea da helburua. Itzulera borondatezkoa edo behartua izan daiteke, jatorrian nahiz helmugan errealitate sozioekonomikoak aldatu egin direlako"*.

Elkarrizketatutako pertsonak bat datoz migrazioa faktore ekonomikoekin eta bizi-baldintza hobetzeko asmoarekin lotzeko. Ez ditugu beste kausa batzuk aintzat hartu, soziologiaren ikuspegitik garrantzi txikia dutelakoan.

Migrazioan aukeratu, erabaki, egin ahal dela jotzen da, nahiz eta elkarrizketatutako jende guztia bat ez etorri borondatezkotasun-mailaren inguruan. Aurreikuspenaz, migrazio-proiektua programatzeaz, jatorrizko herrialdea uzteko eta helmugako herrialdea hautatzeko erabaki bikoitzaz eta abar ere hitz egiten dute. Ezaugarri horiek guztiak irabazpidetzat edo erabilitako askatasuntzat interpretatzen dira. Irabazi horiek guztiak galerak ere badakartzate, hala nola familia-errealitatea eta -segurtasuna; oro har, baina, saldoa positibotzat jotzen da.

Alabaina, laugarren ekarpenean, Gonzálezek ate bat irekita utzi du, eta nolabait Orozcok ere baieztatu du hori, mugimendua ulertzeko modua, beharbada, beste bide baterantz lerratu behar dela. Pobrezia, langabezia, soldata baxuak eta gosea migrazioa behartzeko baldintza objektiboak izan litezke, eta borondatezkotasunaren maila jaitzarazi. Ikusi ahal dugun bezala, arrazoi ekonomiko hutsek eragindako borondatezko emigrazioaren eta izaera ekonomikoa esleituz desitxuratzen den lekualdatze behartuaren artean kokatzen gara.

Lekualdatzeko bi modalitate horien arteko muga lausoa zalantzaren itzalpean galtzen da. Izan ere, lekualdatze guztiak dira pertsonak eta komunitateak lekualdatzera behartzeko modukoak, prekarizazioak eragindako mugimenduak diren heinean. Beti dago pertsonak mugiarazten dituen elementu eragile bat eta, beraz, beharrezkotasun hori beti antzematen da, hala migrazio ekonomikoan nola lekualdatze behartuan. Alabaina, erabakitzeko aukerak, migrazioaren ordezeko aukerak, aurreikuspenak ikusteko moduak, migrazio-proiektua programatzeko aukera, helmuga hautatzeko eta itzultzeko aukerak beharrezkotasunaren maila murrizten dute.

Badago bat faktore bat, guretzat funtsezkoa dena, egoeren definizio berriaren premia azaleratzen duena. Hainbat pertsona bat datoz migrazioan nahiz lekualdatzean *"estatuak konpondu ahal/behar dituela lekualdatu behar izatearen kausak"*. Susana Borrásék dio

migrazioa eta lekualdatze behartua aldi berean gauza berbera izan daitezkeela, edo ez: “ [...] kasu batzuetan lekualdatzea eragin lezaketen arrazoiek ez lukete beste batean lekualdatzerik eragingo. Gerta daiteke pertsona bat bere jatorria kolpatzen duen desertifikazio-prozesutik ihesi joatea, aukera ekonomiko berrien bila. Hala, kasu horretan, borondatezkotasuna edo beharrezkotasuna erlatiboak dira eta gerta daiteke aldi berean migrazio ekonomikoa eta lekualdatze behartua izatea”.

Hasieratik bertatik azpimarratu behar da, ordea, migrazio ekonomikoaren aukera mantentzeko komenigarritasuna. Honako ezaugarri hauek izaten ditu:

- Ekonomikoki bizitza seguruagoa izateko aukera gehiago izango dituen etorkizuna eraikitzeke aukera.
- Ikasketen bidez gizartean gora mugitzeko aukera eta, horren bidez, estigmak kendu eta klase-bazterkeria kendu ahal izateko aukera.

Aurretiaz azaldutakoaren zati handia bilduko duen lekualdatze behartuaren definizioa proposatzen digu Gonzálezek: “Lekualdatze behartua egoeratzat interpretatu behar da, eta ez izaeratzat. Lekualdatzea egoeratzat interpretatzen badugu, aldi batekoa eta gainditzeko modukoa den zerbaiten gisa hartuko dugu; baldintzatzat interpretatzen badugu, ordea, kaltetutako pertsonen nortasun bihurtuko dugu, lekualdatzea pertsona horien izaeraren parte izango balitz bezala. Lekualdatu behartuaren prozesua, gainera, lekualdatzea bera baino lehenago hasten da; izan ere, beldurra, mehatxua, tentsioa, eragile armatuen izua... dagoen giro batean bizi izateak ezaugarritzen du, gehienetan, lekualdatze-prozesua hasi aurreko fasea.

Ez da gertaera isolatua edo puntuala; guztiz bestela, lekualdatzeak aurreko fasea, bitarte luzea eta geroko unea izaten ditu. Barne-gatazka armatu baten esparruan, giza eskubideen urraketa garbia da, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren ageriko urraketa. Horretaz gain, kalteak eta galerak dakartzan prozesua ere bada; galera indibidualak nahiz kolektiboak, modu desberdinean adierazten direnak generoaren, etniaren eta belaunaldiaren arabera. Lekualdatze behartuaren egoerak aldaketak eragin eta biztanleriaren aldetiko erantzunak sortzen ditu, hala nola anonimatoa, isolamendua, ekintza eta antolaketa”.

Iruzkin deskribatzaile horrek orain arte ikusi ditugun gaietako asko biltzen ditu: modalitatea dela; giza eskubideen urraketa dela; orotariko kalteak eragiten dituela; pertsonaren egitura guztiak ukatzea dela; gizatasuna kendu eta estigmatizatu egiten duela; edota estigmatizatu eta ondorioz gizatasuna kendu, alienatu egiten duela. Noiz edo noiz ekintzaren eta antolaketaren ernamuina dela ere esaten da, baina hori gutxitan gertatzen da.

Pulidoren iritzian: *"lekualdatze behartua pertsona bat edo talde bat bizilekutik irtetea da, osotasun fisikoa, osasun psikologikoa, gizarte-harremanak eta biziraupena ahalbidetzen dituen ingurune ekologikoa zuzenean edo zeharka kaltetzen dituzten giza mehatxuen edo erasoen ondorioz. Gatazka armatua dagoenean gertatzen da lekualdatzerik agerikoena, askotan eragile armatuen arteko borrokagunean bizi diren herritarren bizitza arrisku zuzenaren pean jartzen duelako.*

Ildo beretik, bestelako lekualdatze behartu batzuetan ere antzeman dezakegu. Adibidez, pertsonen edo komunitateen bizi-baldintzak beste mehatxu edo eraso batzuen menpe daudenean, hala nola, erauzketa-jardueren ondorioz ingurumenari egindako kaltearen ondorioz, herritarren elikadura eta osasuna arriskuan jartzen direnean".

Lekualdatze behartuaz Iribarrik egiten duen definizioa errefuxiatuaz edo herrialde barneko lekualdatuaz egin izan den ohiko interpretazioetatik hurbilago dago, baina, halere, bizimoduen haustura aipatu eta ikusezintasunaren garrantzia azpimarratzen du: *"Pertsonen edo komunitateen lekualdatzea euren borondatez kanpoko kausek eragiten dute eta, beraz, ezin dute lekualdatzea planifikatu, eta ezin dute, era berean, haren eraginik murriztu. Gainera, pertsona horien mugimendua –normalean irteera– jazarpen-egoeran gertatzen da, indarkeria fisikoa eta mehatxuak tartean daudela. Ondorioz, bizi ziren eta bizitza aukeratu zuten lekuan zituzten jabetzak utzi eta bizimodua, gizarte- eta komunitate-harremanak nahiz harreman sinbolikoak eten behar izaten dituzte.*

Lekualdatutako pertsona, familia eta komunitatea ikusezinak dira gizarte osoarentzat, lekualdatze horrek eragin duen gatazka ukatu, ikusezin bihurtu edo harengandik babestu nahian. Halatan, pertsona edo komunitatea bi aldiz lekualdatuko dute: lehenengoz, bizilekutik lekualdatuz, eta, bigarrenez, babes bila joan den hiriburuan edo hirian ikusezin bihurtuz. Ikusezin egite horren funtsean, lekualdatzea eragin duten kausak (gatazka armatua) alboratu egiten dira, eta lekuz aldatutako pertsonak edo komunitateak suerterik gabeko pertsonatzat tratatzen dira, ezer ez duten edo, batek daki zergatik, zeukatena eta bizimodua galdu duten pertsonatzat".

Lehenago ere migrazio-prozesuen atzean dagoen hertsapena azpimarratu duen Orozcoren ustez, zaila da migrazio-prozesua eta lekualdatze behartua bereiztea. *"Gizakien indarkeriaren edo naturaren indarren ondorioz, eta gogoz kontra, pertsona batek edo pertsona talde batek lantokia edo bizitokia aldatu behar izatea da, beraz, lekualdatze behartua. Biktimek euren bizitza eta osotasun fisikoa babestea bilatzen dute. Itzuli ahal izateko, aurretik, giza gatazkak gainditu edo naturaren elementuak 'normalizatu' egin beharko dira".*

Susana Borrás, bere aldetik, asiloaren eta barne-lekualdatzearen alorreko Nazioarteko Zuzenbidearen tresnetan oinarritzen da definizioa egitean: *“Lekualdatze behartutzat jotzen da ohiko etxebizitzatik edo bizilekuetatik ihes egitera behartutako herritarren mugimendua, batzuetan nazioarteko estatuaren muga zeharkatuta eta beste batzuetan zeharkatu gabe. Batez ere gatazka armatuaren, indarkeria orokortuaren, giza eskubideen urraketaren edota hondamendi naturalen nahiz gizakiak eragindako hondamendien ondorioetatik ihesi joaten dira babes bila, euren bizitzarako edo segurtasun pertsonalerako mehatxua dagoelako eta ezin dutelako edo ez dutelako nahi gobernuaren babesa eskuratzea. Gainera, ezinezkoa dute gero euren herrialdeetara itzultzea. Ondorioz, kaltetutako herritarrek borondatearen aurka, derrigorrez utzi behar dute bizilekua, kausa batek, dela jatorri naturalekoak dela giza jatorrikoak, presio hori eragin eta ezinezko bihurtzen dielako bizirauteko aukera”*.

ACNUR-Espainiako García Cienfuegosek eta Arnáizek uste dute lekualdatze behartua dela *“lekualdatzen den pertsonak, dela arriskuagatik, dela beldurragatik, bere osotasun fisikoa zaintzeko ezinbestez lekualdatu behar duela sentitzen duenean [...] Batzuetan pertsona ez da kontziente edo ez du kontziente izan nahi, egoera larrian dagoela pentsatzeak dakarkion beldurragatik. Beharbada zuhurtasunaren eremuan sartuko gara: zuhurtasunez edo zerbait hobeagoaren bila joango naiz. Itxuraz ez nago behartuta, baina gero ikusiko da baietz. Noiz antzematen da? Pertsonak itzultzeko ezintasuna ikusten duenean”*.

“[...] derrigorrezkotasunaren ñabardura dago, eta non sartu aztertu beharko dugu, [...] erronka handia da. Zer zedarritu behar da? Irizpide bat zera da: zer punturaino eskuratu ahal dituen pertsona horrek eskubide ukaezinak, hau da, oinarrizko eskubideak. Eskubide horiek eskuratzeko ezintasuna badu eta termino horietan bizirauteko lekualdatzen bada, orduan hasiko gara ‘derrigorrezkotasuna’ ikusten”.

Ñabardurak zailtasunak dituen arren, ACNURen uste dute lekualdatze behartuak gero eta presentzia handiagoa izango duela.

Favieresen iritzian, lekualdatzea behartua izaten hasiko da giza eskubideak urratzen direnean, nahiz eta onartu bere pentsamoldea, nazioarteko babes-eskaeretan laguntzen duten beste kide batzuen bezala, Genevako Konbentzioaren eskakizunetara lerratzen dela, organo eskudunetatik erantzun positiboa lortzeko benetako aukerak bilatzen dituztelako. Batzuetan errazagoa da Genevako Konbentzioaren eta nazioarteko beste tresna batzuen babespean kokatzeko moduko jazarpena dagoela ez esatea eta Atzerriartasunaren Legearen bidetik erregularizatzea pertsonak. *“[...] oso begirada lerratua dugu, lekualdatzeko kausak beti jazarpenarekin lotzen ditugu eta”*. Halere, berretsi egiten du:

“[...] jazarpena dago norbaitek askatasunez onartuko ez lituzkeen gauzak egitera behartuta dagoenean”.

○ Migrazio ekonomikoaren eta lekualdatze behartuaren arteko laburpen-taula

Etapa	Migrazio ekonomikoa	Lekualdatze behartua
Jatorria	Eskubideen galerak eragin dezake, edo ez.	Giza eskubideen urraketa larria eragiten du.
	Diru-sarrerak eta bizi-baldintza materialak hobetzeko aukerari lotutako arrazoiak aurkezten dira. Ordezko aukerak bilatzen dira.	Funtsean, bizirauteko tresna da (pertsonek segurtasuna edo duintasuna mehatxupean dago). Ez dago ordezko aukerarik. Irteera bultzatu duen <u>funtsezko</u> faktorea ez da ekonomikoa. Faktore ekonomikoak (halakorik badago) espazioaren narriadurari lotuta egoten dira, egoera horrek eskubide ekonomiko eta sozialak gauzatzea galarazten baitu.
	Emozionalki, aurreikuspena, motibazioa, zalantza sentitzen dira.	Emozionalki, segurtasunik eza eta beldurra sentitzen dira.
	Pertsonak helmugan aurkituko duenaren inguruko aurreikuspenak egoten dira.	Irteera bultzatu duten faktoreak helmugan aurkituko duenari buruzko aurreikuspenak baino garrantzitsuagoak izaten dira. Ez dago harrera-lekuan garatzeko etorkizun-proiekturik.

	Diru-sarrera txikiagoak edo aurreikuspen ekonomiko urriagoak dauden lekuetatik aukera ekonomiko hobekak dituzten lekuetara joaten da.	Ez dira halaberrez hobetzen bizi-baldintza ekonomikoak, eta horretarako asmorik ere ez dago. Eskuarki, hasiera batean behintzat, baldintza ekonomikoek okerrera egiten dute.
Lekualdatzea ingurune erakargarrietarantz bideratzen da; lekua erabakitzeke irizpideak hainbat izan badaitezke ere, eskuarki ekonomikoak nagusitzen dira.	Ez dago lekualdatzea eragiteko faktore erakargarririk: kanporatzea nagusitzen da.	
Pertsonak familia- eta komunitate-ingurunetik kanporatzeagatik ez da inor 'onuradun' izaten.	Askotan gertatzen da lekualdatzeak hirugarren pertsonen onurak ekartzea (eragile politiko, ekonomiko, militar eta paramilitarrak nahiz gerrillak), dela interes geostrategikoen ondorioz, dela gizarte- edo erresistentzia-prozesuak hausteko asmoz.	
Kanporatze-faktore sinpleagoak egon daitezke, ez hain metagarriak. Kanporatzeko faktore ekonomikoa dago, helmugara iristean gainditu behar dena.	Kanporatzea eragiten duten orotariko faktore traumatikoak biltzen dira.	
Ez dago lur-ebasketarik.	Lur-ebasketa, jabetzak uztea eta bizimoduekiko haustura egoten da.	
Estatuak ez du arretarik jartzen.	Estatuak ez du babesik eskaintzen (sustatu egiten du, onartu egiten du, ezin du edo ez du nahi babesterik). Estatuak lekualdatzea arintzeko edo haren kausak galarazteko egin dezakeenak garrantzia dauka.	

	<p>Batzuetan, estatuak berak sustatzen du, barruko tentsioa arintzeko, lagundutako itzulera-programetan edota garapen-kidetasuneko programetan.</p> <p>Halere, giza kapital garrantzitsua galtzea ere eragin diezaioke estatuari.</p>	<p>Estatu ahul edo ez-legitimoetan gertatzen da batez ere, baina ez soilik horietan: justizia-administrazioa eta indarraren erabilera esku pribatuetan edo interes publikotik kanpo egoten da. Giza eskubideen urraketaren aurrean zigorgabetasuna nagusitzen da.</p>
	<p>Banaka gertatzen da, baina metatzeen eta gizarte-sareen ondorioz prozesu kolektiboak eragin ditzake.</p>	<p>Eskuarki mugimendu kolektiboa izaten da:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Zonalde berean (adibidez, talde armatuen gatazka-lekuetan edota bizimoduan indargabetzen dituen megaproiektuek jotako eremuetan dauden pertsonak). ○ Gizarte-talde berekoak (adibidez, transexualak).
	<p>Irtetea erabakitzen duen pertsonak, berak bakarrik, migratzea dakar.</p>	<p>Lekualdatzeak familia osoa, komunitate osoa edo komunitatea bateko zati handi bat mugiaraztea ekar dezake.</p>
	<p>Indarkeria egon daiteke, baina ez da ohikoa.</p>	<p>Beti dago indarkeria tartean, nahiz eta modu sotilak edo ikusezinak hartu.</p>
Irteera	<p>Kasurik gehienetan, migrazioa prestatzeko, planifikatzeko eta planeatzeko uneak egoten dira. Programazioak eta aurreikuspenak pisu eta protagonismo handia hartzen dute.</p>	<p>Askotan bat-batean, aurrez ezin antzemateko moduan eta zakar agertzen da (baina ez derrigorrez ustekabea). Ez dago aurretik planifikatuta eta programatuta.</p>
	<p>Pertsonak emigratzeko aukera planteatzen duenean hasten da prozesua.</p>	<p>Pertsonaren bizi-baldintzetan eta segurtasunean aldaketa garrantzitsuak gertatzen direnean abiatzen da prozesua, eta azken buruan ingurunetik irten beharra ekartzen dute.</p>

	Migratzen duen pertsonak hartzen du irteteko erabakia, erabakitzeko askatasunez eta lekualdatzearen gaineko kontrolarekin.	Irteteko erabakia pertsonaren borondatek kanpo dauden arazoiek eragiten dute eta pertsonak ez dauka erabakian askatasunik.
Iraganbidea	Barne-migrazioa garrantzitsua izaten da baina, halere, nazioarteko mugimendutzat jo izaten da.	Eskuarki barruko mugimendua izaten da (estatu beraren barruan), nazioarteko mugimendua baino gehiago. Nazioarteko mugimendua barne-mugimenduaren lagin txikia baino ez da izaten. Inguruko herrialdeetarako mugimenduak gertatzen dira.
	Igarogunerik egotekotan, bidaia jarraitzeko edo muga zeharkatzeko baliabideak eskuratzera bideratuta egoten dira.	Igaroguneak aldi baterako harrera-guneak izaten dira.
Helmuga	Aurretik zehaztutako helmuga argia egoten da, gizarte-iruditeriaz jantzia.	Helmuga ez dago garbi. Pertsonak bideari ekiten dionean ez daki ziur non kokatuko den luzera begira.
	Ekonomikoki aktiboak diren biztanleak izaten dira, eskuarki, migrazioaren subjektuak.	Umeak eta adinekoak zaintzen dituzten emakumeak izaten dira biztanle gehienak.
		Helmugan babes- eta segurtasun-premia egoten da.
		Irteeraren kausak ezkutatu edo ukatu egiten dira. Ez da identifikatzen faktore egozlerik. 'Lekualdatze behartua migrazio gisa ezaugarritzen dira'.
		Prozesu osoa prekarietatean jorratzen da.

Itzulera	Ez dago jatorrian itzulera galarazten duen baldintzarik. Teorian itzulera edozein unetan burutu daiteke, eta migrazio arrakastatsuaeren helburu nagusia ere bada.	Itzulera nahia-beharra da, baina egoera politikoak, lurraldeari lotutakoak edo militarrek direla eta, ezinezkoa da, aldi batean edo era iraunkorrean.
-----------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

b) Azken ondorioak

Argitalpen honen hitzaurrean azaldu den bezala, duela hiru urte baino gehiagotik hona CEAR-Euskadik lekualdatze behartuen karakterizazio berri baterantz jotzeko premia antzeman izan du, gaur egungo kapitalismo neoliberalaren eta krisi ekologikoaren egoeran gertatzen diren jazarpen eta eskubide-urraketa 'berriak' aintzat hartuta. Eta, horretan ari ginela, jakin genuen Europan herabeki planteatu nahi genuen eztabaida hori antzeko terminoetan egiten ari zirela Latinoamerikan ere.

Eztabaida proposatu genuen, baina konbikzio politiko batzuetan oinarrituta: batetik, EESK-k lehen mailako eskubidetzat aldarrikatzea; eta, bestetik, gaur egungo mugen kudeaketa kritikatzeko, gizatasuna ebasten duelako, migratzaile eta errefuxiatuen eskubideak baztertzen dituelako, eta pertsona horiek euren bizilekutik irtetea eragin duten kausak alboratzen dituelako.

Hasieran terminologiaren inguruko eztabaida egin zen, baina momentuz horretan ez zentratzea erabaki dugu. Latinoamerikan 'migrazio behartua' terminoa erabiltzen dute barne-lekualdatzea ez den beste fenomeno bat definitzeko; fenomeno hori ere behartua da, baina eskualdean ezartzen diren nazioarte-babeseko tresnetatik kanpo gelditzen da. Hemen 'lekualdatze behartuaz' hitz egitea erabaki genuen, horixe izan delako gure solaskideen artean nagusitu den terminoa, eta Europan gehien gertatzen diren bi antzeko fenomenoetatik (migraziotik eta asilotik) bereizteko aukera ematen duelako.

o Lekualdatze behartuen karakterizazioa

Uste dugu onuragarria izan dela lan hau egitean hainbat alorretako pertsona eta erakundeen ikuspegia aintzat hartzea, eta bereziki azterketa hori Kolonbiatik egin dutenena, herrialde hori indarkeriaren, pentsamenduaren eta erresistentziaren 'laborategia' baita.

Lehen kapituluan adierazi dugun bezala, EESK-ek eta Estatuaren eginkizunari buruzko interpretazioak izan duen bilakaerak (alegia, Zuzenbide Estatuaren aldeko aldarrikapenez harago, Zuzenbideko Gizarte Estatuaren aldeko aldarrikapenera jotzeak) berarekin dakar biztanleria-mugimenduei buruz gaur egiten dugun posizioa aldatzea.

Hala, ikusi dugu migrazio ekonomikoa eta lekualdatze behartuak bereizten ditugun marra oso irristagarria dela. Izan ere, estatuak lurralde bat egituraz eta sistematikoki

baztertuta, arretarik gabe, uzten badu, egoera hori elementu nahikoa da migrazio ekonomiko hutsa dela esatek borondate-gabezia elementu determinatzailea duen beste migrazio batera igaro garela pentsatzeko. Horrenbestez, bi kategoria horien artean egongo den beste kategoria bat ezarriko dugu, guztien artean *continuum* bat dagoela jotzeko: ezaugarritu nahi dugun lekualdatze behartua.

Giza eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen tresnak eta elkarriketatu ditugun pertsonen artean adostasun handiena duten ekarpenak aztertuta, lekualdatze behartua ezaugarrituko luketen elementuen laburpen txiki bat egin dugu lan honen amaiera gisara.

Lekualdatze behartua, beraz, pertsona batek edo talde batek bizilekua gogoz kontra aldatzea da, euren bizitza edo osotasuna babesteko ihes egin eta ohiko bizilekua uztera behartuta baitaude, lekualdatze horren ondorioz estatu-nazioaren muga zeharkatu nahiz zeharkatu ez. Honako hauek dira mugimendua eragin duten faktoreak:

- giza eskubideen urraketa larria, iraunkorra edo sistematikoa (eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak kontuan hartuta)
- giza eskubideen urraketa masiboa
- indarkeria orokortua
- gatazka armatuak
- hondamendi naturalak edota gizakiak eragindakoak
- garapen-proiektuak eskala handian ezartzea

Ildo beretik, lekualdatze behartutzat jotzen da beste edozein kausaren ondorioz migratu duten pertsonak jasaten dutena, baldin eta jatorrizko herrira edo hirugarren herrialde batera itzuliz gero, tortura, gizatasunik gabeko tratuak edo tratu umiliagarriak jasateko arriskua badute.

Besteak beste:

- Segurtasun gabeziaren aurrean babesa bilatzeko, eta miseriaren aurrean edota bizimoduak desagertzearen ondorioz duintasuna bilatzeko egiten den mugimendua.
- Migrazioaren gogoz kontrakotasunak galarazi egiten du ondorioak planifikatzea, leuntzea edo arintzea.

- Tokian-tokian ikusezintasuna dakar: jatorrian, helmugan eta, azkenean, irteeraren kausak ukatuz. Lekualdatutako pertsonak edo komunitateak zorterik gabeko pertsonatzat tratatzen dituzte.
- Egoerak orotariko eran eragiten die kaltetuei (alor materialean nahiz sinbolikoan, bizitzazkoan); askotan pertsonen osotasun fisikoa, osasun psikologikoa, gizarte-harremanak eta ingurumen ekologikoa mehatxatzen dute, zuzenean edo zeharka.
- Gabetze-prozesu integrala da: jabegoak uztea, bizimoduak haustea, ezagutzak eta autonomia galtzea, eta bizi-muin garrantzitsua duten gizarte- eta komunitate-harremanak eta harreman sinbolikoak suntsitzea dakar.
- Itzulera oso zaila edo ezinezkoa da, eta hori gertatu ahal izateko, aurretiaz jatorriko giza gatazkak gainditu edo elementu naturalak 'normalizatu' egin behar dira.

Sintomatologia berri bat ezarriz, berritu egin dira desjabetzearen moduak, bestelako mehatxu-bide batzuek pertsonen edo komunitateen bizi-baldintzei eragiten dietenean. Adibidez, halakotzat jo ahal dira pertsonak eta komunitateak dauden ingurumenari (eta, ondorioz, euren elikadurari) egindako erasoak, bai eta ingurumen-baldintzak narriatzea ekartzen duten erauzketa-jarduerak eta garapen-proiektu handiak ere.

○ Eztabaidaren garrantzi politikoa

'Zer egin mugekin'³⁸ saiakera kolektiboan Abdelmalek Sayad aipatu genuen, "*migrazioaren ibilbideak osotasunean berregiteko*" asmoa zela eta. Euren etxeetatik derrigortuta lekualdatzen diren milioika pertsonen ihesaren, tarteko ibilbidearen (batez ere mugak zeharkatzen direnean) eta helmugako egoeraren (hiri handietako aldirietan, atzerriarrak barneratzeko zentroen, sarekada arrazisten eta deportazio-hegaldien Europar) artean dagoen lotura hertsia erreparatzea nahi genion.

Migrazio-mugimenduen atzean dauden kausak ikusezin bihurtu eta testuingurutik ateratzeko joera dela eta, lekualdatze gehienak borondatezkoztat jotzen dira; bizitzan aurrera egiteko asmoz egindako mugimendutzat. Bideari ekin dioten pertsonak aukeratu

³⁸ Egile batzuk. (2013): *¿Qué hacemos para conectar la crítica a la movilidad en el capitalismo con la lucha contra las políticas migratorias y las fronteras?* AKAL, Madril.

egin ahal izan dutela jotzen da. Mugimenduak leundu egiten dira, 'ametsetako' helmugari erreparatzen zaio eta harrerako estatuari migratzaileen bizitzaren gaineko ahalmen osoa aitortzen zaio.

Hartara, 'harrerako' estatuak ez du erantzukizunik lekualdatzea eragin duten kausetan. Horrela jokatzuz, azterketa-esparrutik kanpo uzten dira merkataritza- eta inbertsio-politikek (eta, ondorioz, baliabide naturalen desjabetzeak, ingurumenaren kutsadurak, megaproiektuen ondorio zuzen eta zeharkakoek, eta abarrek) eragindako migrazioak. Biztanleen mugimendu horretan estatuak hartzen duten erantzukizun bakarra kanpotik inor ez etortzea izango da: poliziaren eta militarren kontrol-neurriak migratzaileen giza eskubideen errespetuaren gainetik daude eta jendea hiltzeak ez du kostu politikorik, behintzat Europan. Pertsona horiek migratzailetzat joz gero, gainera, estatuak ez dute haiek babesteko ardurarik eta, Eduardo Romero ekintzailearen hitzetan "*lanesku merke eta esanekoa*" eskuratzen dute.

Errepresioa eta eskubide-bazterketa sozialki justifikatu egiten dira eta migratzaileak biktimizazioaren eta kriminalizazioaren tartean harrapatuta gelditzen dira, Europan argi eta garbi ikus daitekeen bezala. Horrenbestez, garapen-eredu zehatz bat legitimatzen da, itxuraz *ihes-efekturik* eragiten ez duelakoan (hau da, baliabideak arpilatuz eta indarkeriaren bidez jendea eskualdetik edo herrialdetik kanporatzen ez duelakoan) eta, horren ordez, *dei-efektua* eragiten duelakoan (hau da, pertsonak landatik hirira, hegoaldeetik iparraldera, joan nahi dute, modernitatean eta garapenean parte hartu ahal izateko).

CEAR-Euskadin uste dugu gaur egun Europarantz bideratzen diren biztanleria-mugimenduetako askoren izaera behartua azaleratuz gero, lagundu egingo dugula Hegoalde globaleko herrialdeetan erabiltzen den garapen-eredu estraktibistaren inpaktuak agerian jartzen; atzerriko inbertsioaren, botere korporatiboaren eta lekualdatzeen arteko harremanak salatzen; migrazioen kausak alboratzen dituzten diskurtsoen bidez eraikitako iruditeria aldatzen; eta pertsonak babesteko tresnak ezartzea aldarrikatzen.

Ez dugu nahi beste pertsona batzuen bizkarretik ondo bizi diren pertsonen kategoriak sortzerik. Europa Gotorlekua zorrean dago gaur egun migrazio-prozesuari heltzen dioten pertsonekin. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean (13. artikuluan) jasotako migratzeko eskubidean eta libre ibiltzeko eskubidean sinesten dugu.

Baina ez dugu nahi, era berean, XXI. mendeko migrazioen azterketak alboan uztea lekualdatze horietako askok duten izaera behartua. Lekualdatze behartuak ezaugarritzen dituzten funtsezko elementuak identifikatu, eta eztabaidan jarraitzeko partekatu egin nahi ditugu. Pentsatzen dugu gizarte zibilak bizi dituen fenomenoak izendatzeko legitimotasuna sentitu behar duela, eta gizarte-erakundeek azterketa-prozesu horiek bultzatu egin behar ditugu, gero politikan eragiteko eta gizartea aldatzeko estrategia bihurtu ahal izateko.

Laburpena

Gaur egungo kapitalismo neoliberalaren eta krisi ekologikoaren testuinguruan gertatzen diren lekualdatzeen karakterizazioa izan da lan honen asmoa. Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen urraketak biztanleria-mugimenduetan dituen ondorioak aztertu eta baliabideen harrapaketari lotutako errealitate berriak kategoriatan zientifiko berrietara eraman ditugu. Giza Eskubideen nazioarteko Zuzenbideetan jasotako babes-tresnetan dauden kontzeptuak analizatu eta gaur egun Latinoamerikan dauden eztabaidak bildu ditugu, gai horren inguruan hausnartzeko asmoz. Azkenik, ondoriok eman ditugu, migrazio ekonomikoaren eta asiloaren artean dagoen kategoriatan berri bat eraikitzeko: lekualdatze behartua.

Raquel Celis Sánchez informazio-zientzietan lizentziaduna eta nazioarteko garapenean eta lankidetzan espezialista da Hegoa Institutuan. Duela hamar urtetik hona Euskadiko Errefuxiatuen Laguntzarako Euskadiko Batzordean (CEAR-Euskadi) lanean ari da; Zuzendaritza Taldeko kidea izateaz gain, Eragin eta Parte-hartze Sozialerako arloa koordinatzen du. Espainiako errefuxiatuen egoerari buruz CEAREk urtero egiten duen txostenaz arduratzen den idazketa-batzordeko kidea da eta ikerketa ugari egin ditu lekualdatze behartuaren kausen eta asilo-eskubidearen inguruan. Berrikitan argitaratutako lanen artean aipa daitezke, besteak beste, *Contra el despojo. Capitalismo degradación ambiental y desplazamiento forzado* bai eta *¿Qué hacemos con las fronteras?* lan kolektiboa ere.

Xabier Aierdi Urraza Soziologian doktorea da Deustuko Unibertsitatean eta 1994az geroztik soziologia-irakasle titularra EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean. EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko zuzendaria izan da hiru aldiz. Migrazioetan eta etnizitatean espezialista, 2003an Immigrazioaren Euskal Behatokia, IKUSPEGI, sortu zuen, eta haren zuzendaria izan zen hainbat urtez. 2011n, José Antonio Oleagarekin batera, Immigrazioa Ikertzeko BEGIRUNE Laborategia sortu zuen. Bertan burutu zuen bere ikerketa-lanaren zati handi bat, harik eta 2013ko urrian Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko aholkulari izendatu zuten artean. Gainera, CIVERSITY ikerketa-taldeko kidea ere bada.

Gako-hitzak

Migrazioa

Asiloa

Babesa

Lekualdatzea

Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak

Ingurumen-eskubideak

Gabetzea

Kolonbia

Nazioartean babesa

Mugak